

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

2

zenbakia

2 urtea

1985 iraila

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

3

**II. urtea
2. zenbakia**

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.

Itzultzaile Eskola

Portada: LAURA ESTEVE

ISBN 84-7086-140-9

Depósito Legal: S.S. 623-85

Imprime: Itxaropena, S.A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendari:

Jesus M. Zabaleta (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Hizkuntz arduradun:

Aintzane Ibarzabal (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Batzordekideak:

Tere Barrenetxea (Elhuyarreko lankidea)

Gotzon Nazabal (UZEIko lankidea)

Andoni Sagarna (Elhuyar eta UZEIko lankidea)

Helbidea:

Itzultzaile Eskola

Lanbide Eskola

Barkaiztegirako bidea z/g

MARTUTENE - DONOSTIA

Tfnoa. 46 19 90

Itzultzaile Eskola

Aurkibidea

Sarrera

Gaiak

Itzulpena eta hizkuntz normalkuntza.	
<i>J.M. Zabaleta</i>	13
Terminologi zentru eta bankuak.	
<i>Tere Barrenetxea</i>	29
Transformazio lexikoak itzulpenetan.	
<i>Levickaja, Fišerman</i>	43
Itzulpen kritikaz. <i>Xabier Mendiguren</i>	59
Itzulpena eta testuen interpretazioa.	
<i>Koro Zumalabe</i>	67
Itzulpen proesuren sakonketa linguistikoa.	
<i>A.D. Švejcer</i>	73
Badakit aita etorri deLA/NA. <i>Uliondo</i>	91
Mantxako herri batean... <i>Gotzon Egia</i>	97
Orixeren itsu-mutila. <i>Pedro Iturrioz</i>	107

Iruzkinak

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	117
Bibliografia	127
UZEL. Zuzenbidea. Hiztegia. 1 eta 2.	
RUSSEL, P. Traducciones y traductores en la península ibérica (1440-1550).	
ASKOREN ARTEAN. La traducción: arte y técnica.	
ETCHEPARE, J. Buruxkak.	
Eusko Olerkiak 1930 eta 1931.	

Berri eta Albiste

Heinrich Böll, ezetz esaten zekiena.	
<i>Pedro Zabaleta</i>	137
Italo Calvino, una pietra sopra. <i>J. M. Zabaleta</i>	139
Donostiako udako IV. ikastaroak.	
<i>Aintzane Ibarzabal</i>	141

Artur Lundkvist idazle suediararak Itzulpena eta nazioarteko kulturazko elkarlana biltzarreari bidali mezua (Sofia, 1979ko urria).

Traduire une littérature créée en langue différente dans différents pays du monde est une tâche d'énorme importance. Sa signification s'est accrue du fait de la large vulgarisation de toutes les formes et genres des belles-lettres, romans, récits, poésie, drame... Mais je considère que cette signification est d'autant plus importante qu'elle se réalise entre nations dont les langues sont des langues «minoritaires». Les grands pays et par conséquent les grandes langues ont acquis par leur littérature une position dominante qu'elles ne méritent généralement pas. Ainsi les œuvres d'auteurs de second et troisième ordre appartenant «aux grandes puissances» passent bien souvent au premier plan, laissant ainsi derrière eux nombre d'œuvres valables provenant de pays de moindre influence. Il est bien évident que les petits pays doivent soutenir des relations avec les «plus grands» pour ne pas se trouver en état d'isolement complet qui nuirait au développement des idées en général et des formes littéraires en particulier. Il est donc d'autant plus important que les hommes de lettres appartenant à ces pays aient des contacts étroits les uns avec les autres au lieu de s'ignorer, afin de conjuguer leurs efforts pour le bien de leurs peuples.

Artur Lundkvist

Munduko beste herrietan beste hizkuntza batean sortutako literatura bat itzultzea garrantziarik handieneko eginkizuna da. Haren munta are handiagoa da, eleder mota eta modu guztiek, nobelak, kontaketak, olertiak, dramak herrian hartu duten hedadura ikusita... Baina nere ustez garrantzia hori are handiagoa da noiz eta hizkuntza «minoritarioak» dituzten herrien artean burutzen bait da. Herri handiek, eta hizkuntza handiek horrenbestez, inperialismo modu bat ezarri dute kulturaren eremuan, zeren beren hedadura zabala dela kausa gailentasun modu bat lortu bait dute beren literaturaren bidez hizkuntza horiek, merezi ez dutena gehienetan. Modu horretara «hizkuntza botere handikoetako» bigarren edota are hirugarren mailako idazleak lehen plaumara jasoak ageri dira sarri, itzal gutxiago duten hizkuntzetako obra baliokoak atzera utzirik. Bistako gauza da herri txikiek behar dituztela harremanak «handiago» direnekin, ideien eta batez ere literatur formen garapenerako kalte besterik ekarriko ez lukeen bakardadean gera ez daitezen. Baina are garrantziatsuagoa da nazio horietako letragizonek, elkarren berri gabe geratu ordez, beren artean harreman estuak edukitzea, beren ahaleginak batera bilduz beren herrien hoberako.

Artur Lundkvist

GAI AK

Itzulpena eta hizkuntz normalkuntza (lehen zatia)

Jesus M. Zabaleta
Itzultzaile Eskolako irakaslea

Arian sartzen hasi aurretik esan beharra daukat gai honen azterketan lagungarri izango nuen bibliografiarik ez dudala ozta batere aurkitu, gurearen antzeko egoera bati zuzenean eta osotasunean zegokiokeenik behintzat; eta horrexegatik ia guztian neure kabuz ihardun behar izan dudanez, ez naizela ausartu aurreramendu teoriko askorik egiten, eta *status quaestionis* bat egiten saiatu naizela batez ere. Galdera sail bat, alegia, egoeraren planteiamendu bat, gaiari dagokion informazioaren ordenatze saio bat, zer pentsatua badagoenez, pentsamendu horretarako nondik abiatua zehazteko asmoz. Izan ere itzulpenak euskararen normalkuntzan ikustekorik baldin badi, eta baduela ematen du, kontu handiz aztertzeke arazoa bait da hori.

Gaiaren gaurkotasuna ez da zalantzan jartzekoa ere, eztabaida askotan entzun bait da itzuli beharrak euskarazko alor bati ala besteari egiten dizkion kalteen aipamena. Horrela, administrazioko itzultzaile bati baino gehiagori entzun izan zaio, administrazioko testuak ez direla itzuli behar, eta administrazioko testuetan ikusten den euskararen akatsak, testu itzuli izanak dakartzala hain zuzen. Gauza bera esana du askok zenbait komunikabidetan erabiltzen den euskara moduari buruz; eta literatur mota batzuez ere gauza bera esan izan da. Ad-

ministrazioa, komunikabideak eta literatura aipatu baditut, Euskal Herrian euskarara itzulpen gehien egiten diren arloak direlako, eta itzulpen horiek ondorioa nabariago antzematen denak direlako izan da bakarrik.

Seguruenik, ordea, itzulpena egiten den alor guztietan gertatzen da itzulpen horren balioari buruzko eztabaida eta auzia, eta alor guztietan daude jarrera setati eta tematuak, alde nahiz kontra. Baina seguruenik, gainera, alor batetik bestera, egoera batean ala bestean, itzulpenak, itzulpen onak ala txarrak, hizkuntzan duen eragina ez da berdina, eta komeni da bereztea, eta alor bakoitzean itzulpenaren eragina besteetan duenaren bestelakoa izanarazten duten faktoreak banakatu eta identifikatzea.

Kontutan hartu behar da, edo komeni da behintzat kontutan hartzea, itzulpena era askotara egin litekeela, egokitik txarreraino dauden maila eta modu guztietan. Itzulpentzat, gainera, nahiz eta itzulpenarekin zer ikusirik zerbait baino gehiago eduki, berez behintzat itzulpen ez diren bestelako iharduera asko eman ohi da. Askotan *itzulpen* delakoa irain edo gaitzespen izateraino ere iristen bait da, hizkuntzaren erabilera normala denaren guztiz kontrakoa adierazteko: itzulpena = kutsadura. Eta *normalkuntza*, egoera normalean ez dagoen eta egoera normalera eraman nahi den hizkuntza baten prozesua denez gero, puntu honi dagokionez, esan beharra dago, ez da txarra behintzat gogoratzea, hizkuntzaren berritze eta gaurkutzeko saio askoren salakuntza horretantxe amaitzen dela: *Itzulpena!*

Egoera "normala"

Eta sarrera labor hau bukatzeko, santurik santu utzi behar ez denez gero, *normaltasun* hitzak ere merezi du kritikatzeko bat, erlatibizatze labor bat.

Normaldu, hizkuntza bati dagokionean, lau zentzutan erabil liteke:

- a) Bata, *normatibizazioa*, hizkuntza erabilera formalizatu eta publikoetarako arauz erregulatzea, maila guztietan, gramatikazkoan, onargarritasunari dagokionean eta erabilera soziolinguistikokoan

- b) Bigarrena *normatibizazio*arekin zer ikusi handia duena, baina *normatibizazioa* ez dena: Hizkuntzaren erabilera populazio batean erabiltzen diren mezu mota edo kultur eduki modu guztiak erabiltzera hedatzeko gaitua egotea. Alegia, gizarte batek darabiltzan kultur edukiak transmititzeko bere hizkuntzan komunikabide egokia aurkitzea. Hizkuntza bat osatzen duten azpi barrietate guztiak osatuta eduki behar ditu; koadro klasikoan esaten den bezala: hizkuntza mailak (poetikoa, literarioa, idatzi arrunta, familiar-tekoa, argotak) eta alorrak (erabilera idatzi eta publikoan espezialitateak edo argot mailan jergak).
- c) Hirugarrena, hizkuntza bateko hiztunen populazioak hizkuntza horrez duen ezaguera normala izatea; populazioak hizkuntz kompetentzia normala izatea hizkuntza jakin batean. Populazio osoak, ordea; nahiz eta populazio horretako azpimultzo zenbaitek, gizarte horretan daukan status sozial eta linguistikoa-gatik hizkuntzaren ezaguera hobea eta zabalagoa, osokoagoa izango duen, normala den bezala, beste batzuek baino. Hizkuntza baten barreneko diglosia maila guztiak, beraz, gizarte horretako hizkuntza bakar horren barrietateen erabilera sozialki banatua eta egituratua baldin bada. Gogora ekar bedi, adibidez, maisuen eta politikoen kasua: gizarte guztietan aitortu ohi zaie hizkuntz abilidade handiagoa. *Horrek bai dakiela hizketan!* Batzutan esan nahiko du hizkuntz errejistro gehiagoren jabe dela; beste batzutan berriz, gizarteko beste maila batzuk erabiltzen dituzten errejistroak ez diren batzuren jabe dela bakarrik, gizarte klase, kasta, bat identifikatzen duen hizkera edo hizkuntz errejistroarena, eta hortik arrotasuna, eta miresmena. Hizkuntz kompetentzia sozialaren normaltzea; beraz, bere konplexutasun guztian.
- d) *Normalduren* laugarren azepzioa hizkuntzaren territorialtasunari dagokiona da: Lurralde jakin batean bizi den populazioa hizkuntzari dagokionez homogeneoa izatea, guztiz ez bada ere, ia guztian. Homogeneotasun horrek ez du esan nahi aurreko paragrafoan esandako guztia baliogabetzen denik; esan nahi da gizarte horren hizkuntz erabilera hizkuntz batean dagoela egitu-

ratua, hizkuntz horretan banatzen direla gizarte barreneko statuek agintzen dituzten jokabideak; gizartea elebakarra dela, ia guztian, nahiz eta populazio horretako bizilagunak, banaka harturik, eleaniztunak badira ere, baita guztiak —edo ia— halakoak badira ere, zeren halako kasuak ere ezagutzen bait dira. Nork us-teko du, esate baterako, holanderaren edo suedieraren egoera, bereak dituzten lurraldeetan behintzat, normala ez denik, nahiz eta populazioaren proportzio handi batek beste hizkuntza bat edo bi ere nahiko modu onean jakin.

Orain arte aipatu ditugun lau parametrook sinkroniari dagozkionak dira laurak, une jakin batean hizkuntzaren ezaguerara eta erabilera nola banatzen den populazio jakin batean, alegia. Hizkuntza batek lurralde batean duen egoera hori *normala* den ala ez jakiteko diakroniazko parametro batzuk ere erabili behar dira, tradizioa ere behar bait du hizkuntza horren erabilerak, alegia gizarte bati bere historian, edo historia puska batean, sortu zaizkion premiei hizkuntza jakin horretan erantzun izana. Hizkuntza ez bait da, gizartea ez den bezala, gauza estatiko bat, aldatzen ez dena, ez da *gauza* ere eta.

Diakroniazko parametro horiek nekez izan litezke globalak, hizkuntza osoari dagozkionak, berpiztutako hizkuntza bate-nak balira bezala. Hebraieraren kasua izango litzateke, gehie-nez ere honelakoa, baina agian hebraierarena, ia globala izanagatik ere, alorkako tradizio falta da gehiago, seguruenik. Beste adibide batzuk, agian, zenbait *pidgin*, izango lirateke, baina bildu dugun informazioak behintzat ez du erakutsi horietara itzulpenak egiten direnik.

Hemen, horregatik, ez dugu kontutan hartuko hizkuntza baten erabileraren tradizio falta osokoa, ez bait dagokigu, batez ere, eta bestelako moduak aztertuko ditugu.

Lau neurkera bezala, lau parametro aipatuko genituzke, laburtuz eta hizkuntzaren normatibizazioa alde batera utzita, itzulpena, guri dagokigun bezalakoa behintzat, idazgarria, normatibizatu aurretik ez bait da egiten (bestelako gauza da ea nolakoa den normatibizazio hori, ea nolako onarpena duen populazioaren aldetik eta horrela planteiatu litezkeen beste zenbait arazo):

- a) Hizkuntzaren erabilera gizarte jakin batean komuni-
kazio-erabilera gaitzeko erabiltzen diren gai guztietara zabaltzea.
- b) Hizkuntzaren erabilera, arlokako hedadura osoan, gi-
zarte maila guztietara iristea.
- c) Lurralde jakin bateko populazioa hizkuntza jakin bate-
tako hiztun izatea homogeneoki.
- d) Hizkuntza jakin horren erabilera, aurreko hiru pun-
tuak betetzen deskribatuta dagoen bezala, denboran atzera-
erortzea; diakronia; tradizioa.

Itzulpena hizkuntza egoera "normal" batean

Aurreko paragrafoetan hitz laburretan deskribatu dugun bezalako egoera normal batean, itzulpenak komunikazio zere-
gina betetzen du batez ere. Zentzu horretan, kultur komunika-
zioak elkar litzakeen ondorioak eragiten ditu gizarte hartu ho-
rretan. Eragin horiek neurtu ere ezinezkoak dira sarri, pentsa
bedi, adibidez, kristau erlijioak eta filosofia klasikoak mende-
baldean, islamak Afrika eta Asian, budismoak eta konfuzio-
nismoak Ekialde urrunean izan duten eraginean, eta geroztik
Mendebaleko filosofia mugimenduek -gogora bedi marxismua,
adibidez- beste herrietan izan duenean. Erlijio eta filosofiazko
eduki soila izan ez zuten kultur mugimendu horiek hizkuntzan
ere ongi isladatzen den eragina ukan zuten eta dute. Era hone-
tako adibideak ez dira falta edozein lexikografiatan.

Baina esan liteke, jeneralean behintzat, hizkuntza *kutsadu-
rarik* izan bada ere, ia lexiko mailara mugatua izan dela ku-
tsadura hori, gehienez ere zenbait kalkotara mugatua, grama-
tikazko eta usadiozko egiturak asko aldatu gabe, eta ez duela
berez eten nabarmenik eragin lehena eta geroaren artean,
hizkuntzaren diakronian normala dena baino gehiago; hiz-
kuntza ez dela arras bestelakotu bere itxura galtzeko moduan.

Arabierak medikuntzako eta beste zenbait artetako termi-
nologia grekotik hartu zuen, itzulpenez eta maileguz, baina
arabiera izaten jarraitu zuen.

Gaztelaniak arabieratik jaso zuen bere lexikoaren puska on
bat, latinetik eboluziozkoa kontutan hartu gabe, eta beste
puska ona, terminologia zientifiko modernoa grekeratik baino
gehiago terminologia internazionaletik. Baina guzti horrek ez
du aldatu gaztelaniaren izaera erromanikoa.

Gaur egun bertan, hizkuntzen arteko ukitu, igurtzi eta ele-aniztasun oso hedatuko garaiotan, esenpluak ekarri beharrik ere ez dago, zenbat eta zenbat alorretan gertatzen ez den hizkuntza batetik besterako maileguak, eta are kalkoa ere. Terminologia zientifikoan ia sistematikoa da fenomeno hori, baina badira beste alor asko eta asko era batera edo bestera hizkuntza arrotz dominanteen eragina iristen zaiena. Pentsa bedi zein kasu bitxia den rokanrolerorik burgalesenari anglofiliak eragiten dion anglofonia, edo gehienetan xenoglotofonia besterik ez den horrena.

Ingelesak eta errusoak frantseseratik lexiko puska ederrak berendu dituzte, jermaniko eta eslabo izaten jarraituz. Nolana-hi ere, ingelesaren kasua berezi samarra ere bada, ez baita da beti izan gaur den hizkuntza hedatua, eta hain zuzen frantsetiko maileguak bere zurtzarokoak ditu, asko eta asko.

Horrelako kasuetan, itzulpena izan liteke ona ala txarra; hori itzultzailearen kontua ere izango da; zenbateraino dagoen teoriz hornitua, zenbaterainoko ezagutza duen SHz, zenbaterainoko abilitadea duen. Itzulpenak, ona bada, balio dezake, kultur ekarriak bideratzeko gainera, XHren ezagueraren erreflexu hoberako ere.

Baina itzulpenak, nahiz eta ugaria eta txarra izan, ez du aldatuko hizkuntzaren egitura, zeren eta -hauxe da gainera, behar bada garrantzi gehienekoa-, mezu hartzaileak hizkuntz konpetentzia aski badu testu itzuliak bere hizkuntzaren gramatikaltasuna, erabiltze-arauen araberako onargarritasuna eta arau soziolinguistikoak hausten dituen ala ez antzemateko (Senez, ale honetxan beste artikulua batean esaten den bezala, Ik. MENDIGUREN, X. Itzulpen kritikaz), nahiz eta testu hori itzulia dela jakin ez. XH-ko mezu-hartzaile hizkuntz konpetentzia normalekoak berehala antzematen die gaizki itzulitako testuaren arrotzasunari, eta gehienean, gainera, testu itzulitatzat jotzen du, zentzu handiz, halakoa.

Adibide bezala, gogoratzea besterik ez dugu TVEko dehen garaietako testu "caribeñoak", portorikeñoak nonbait, ingelasetiko kalkuz josiak eta hainbat txistosoren imitaziotarako beta eman zutenak.

Kasu berdintsua izan liteke gaur bertan ere Japongo literatur itzulpenarena, Daniel Gile-k Tadao Yokoi-ren Gooyaku akuyaku no byoori (Pathologie des fautes et maladdresses dans la traduction) liburuaren komentarioan (Meta Vol. 30,

N 2, Juin 1985) dioena egia bada: *Au premier abord, on est un peu surpris: l'auteur semble s'adresser à des apprentis-traducteurs pour leur expliquer les principes de la traduction, plutôt qu'à des professionnels tels que nous les connaissons en Occident, pour critiquer leur pratique du métier. C'est du moins ce que l'on est amené à penser quand on voit les fautes qu'il présente: il ne s'agit nullement de choix peu élégants ou erronés dans la restitution d'une idée complexe, mais de fautes de compréhension élémentaires (...) et d'une absence absolue de méthode, le mot-à-mot étant roi.*

Itzulpen txarra ez da, beraz, gure artean bakarrik ezagutzen den abilidadea. Hala ere, batere ez baino, itzulpen txarra hobe, jatorrizko edukia beste modutara ezagutzeko modurik ez dagoen bitartean behintzat, eta hizkuntzaren aldagarri izateko arriskurik ez du.

Hitzez hitzeko itzulpenak derrigor bortxatu behar du XH, kalkuz betea bait dago halabeharrez: Horrek ez du eragozten ordea, Japonen literatura autoktono oparoa egotea, bere balio guztiekin.

Egoera modu hauetan, beraz, itzulpena, lehen esan bezala eta itzulpen teoriako liburuetan errepikatzen den bezala, hizkuntza batez mintzatzen den herriak arrotz egiten zaizkion kultur eduki batzuez jabetzeko modu soila da. Itzulpen teoriak normalean ezartzen dizkion xedeak bete behar ditu, eta ez besterik -itzulpenaren teoria, gehienez, egoera normalean dauden hizkuntzetako itzultzaile eta teorizatzaileek egin dute; gauzak ez dira ahaztu behar izaten.

Hizkuntza hauetako teorizatzaileek, esate baterako, literatura itzulpenarako erizpideak eremu horretara bakarrik mugaratu ditu, eta ez du inolako apuko beharrik izango beste zenbait alorretako itzulpenetan XHko gramatikaltasuna bera ere hainbesteraino ez eskatzeko, eta kalkuari eta hitzez hitzeko itzulpenari beldurra galtzeko, itzulpenaren xedea SHko testuan dagoen informaziozko edukia XHn ematea soilik denean, noski.

Aski bedi aipatzea, adibide bat jartzeko, Julio Calonge-ren artikuluko polemikoa, **Sobre la traducción de obras científicas y obras literarias**, Senez-en ale honetantxe aipatzen den **La traducción: Arte y técnica** (Askoren artean) liburuan.

Egoera normalean ez dagoen hizkuntza batera diharduen itzultzaileak bestelako ardurak edukiko ditu, aurreko horien

aldean, bere ihardunak eragin askoz ere handiagoa ukan bait dezake hizkuntzaren iraupenean bertan ere eta, geroxeago ikusiko dugun bezala.

Egoera normalak ez direnak

Iraunkor ez diren egoera soziolinguistikoak, hizkuntz-aldaketa gertatzen ari direnekoak, faktore eragile askorengatik izan litezke diren bezalakoak. Hemen, ordea, itzulpenari eta berorrek ukan dezakeen eraginari dagokionez hiru egoera modu bereiziko ditugu, gainerakoak albo utzita:

- a) Hizkuntz erabileraren alor batean edo bestean erabilerara horretarako tradizio faltaz normalak ez diren egoerak.
- b) Egoera normala ez izatea hizkuntz kompetentzia sozialaren osaketa faltaz datorkienak.
- c) Territorialitate definituaren faltaz normaltasunera iristen ez direnak.

(Oharra: Senez-en ale honetan aurrean aipatzen diren hiru puntuotatik lehenengoa bakarrik aztertuko dugu, bigarrena eta hirugarrena hurrengo alerako utzirik).

a) Tradizio faltazko egoera

Era askotako kasuak daude apartatu honetan elkarrekin sartzekoak, eta ez da denetan berdin gertatzen ez egoerak itzulpena baldintzatzeko modua, ez itzulpenak hizkuntzan ukan dezakeen eragina ere.

Hala ere, bi tradizio falta modutan bana liteke gaia:

1. *Mezuaren trasmisio modu baten edo besteren tradiziorik ez izatea,*
eta
2. *Gai bateko edo besteko mezuen tradiziorik ez izatea.*

Bi eratara ere, ordea, egoera hori esplikatuko duten arrazoietan badago kointzidentzia historiko bat behintzat. Aipatzen ari garen egoera beste era batera esplikatuko balitz, hiz-

kuntz premien eta baliabideen arteko *décalage* efektu batez hitzegin beharko genuke, bestelako hitzez, historiako une jakin batean herri horren bizitzari forma ematen zion kulturak garapen aurreratuagoa, edo bestelakotuagoa izan duela erabiltzen zuen hizkuntzak baino; zenbait alorretan, beraz, beste herri baten kulturazko gailentasuna –behintzat– jasan izan duela.

1. Mezuaren transmisio moduaren tradizio falta.

Hizkuntza baten agrafia kasua izan ohi da gehienetan, baina izan liteke beste era batzuetakoa ere. Adibide batetarako, euskarazko mezuak orain dela gutxira arte ez ziren telebista bidez transmititzen, eta lehen unean arrotz egiten zen, arrotz sunezko sentsazio bat ematen zion entzulegoari, transmisio moduak seguruenik zer ikusirik bazuena (“Vacaciones en el mar”-eko beltzak euskaraz hitzegitean ematen zuen sentsazio arraroa aipatzen ziguten ETBren projektua saltzen ari zirenek).

Trasmisio modu batzuk, hala ere, arras murrizten dute ahozko mezua ulergarriago egiten duten beste adierazmen lagungarri batzuk, nola diren keinua edo doinua. Mintzakidea aurrean ez edukitzeak (telefonozko hizketan, adibidez), murriztu egiten du ulerpena, euskaldunberri askok ezaguna duten bezala.

Idazkerak ahozko hizkerak duen doinua ere eragotzi egiten dio mezu transmisioari eta bestelako baliabideak erabili behar ditu, mezu igorleak mezu hori osoki adierazteko.

Idazten ez ziren hizkuntz izatetik idaztera igaro diren hizkuntzen kasuak ere ez dira guztiak berdinak. Gerta bait liteke guztiz idatzi gabeak izatea, ala komunikazio alor jakin batzuetan idatzi tradizioz izan ez duten hizkuntzak izatea, nahiz eta hitzez behintzat alor horietako mezuak ohizko izan hizkuntza horretan.

Azkeneko kasu honetan, mezuak mailaka egituratu eta banatzen dira hizkuntza batean ala bestean. Kasurik ezagunena ingelesarena izan liteke, bere garapen historiako zenbait unetan behintzat; jakina bait da administrazioan, esate baterako, hiru hizkuntza erabiltzen zirela: *Latina* bat, administrazioaren kodifikaziorako, legedia adierazteko etab., hizkuntza fosildu eta aldaezina, legearen betirakotasunak eskatzen zuen bezala;

frantsesa bigarrenik, Gorteko hizkuntza zenez; eta hirugarrenik ingelesa, administratu ezjakinari jakin behar zituenak jakinarazteko. Fenomeno hori ordea aski hedatua da: The dichotomy of spoken and written language use in law is an ancient one and has existed for a long time both in Christianity and Islam. In Christendom both canon and civil law were codified in Latin, which was variously used for national purposes until the Renaissance, but for international much later. In Islam the diglossia persists, since the H variety is always Quranic Arabic, whilst the L variety can be an Arabic colloquial, or any African language.(C. M. B. Brann: **A Socio-Linguistic Typology of Language Contact in Nigeria: the Role of Translation**, Babel, 1/1981 Vol. XXVII, 9. or.)

Aipatu ditugun bi kasu mota horietan, ordea, lehenak dira ezagunenak, eta itzulpenak zer ikusirik gehiena izan duenak. Kasurik sonatuena eta dokumentatuena SESBeko zenbait hizkuntzarena izan da. Badira, izan ere, han berrogeitik gora hizkuntza, idazkera eta alfabetoa 1917ko iraultzaz gerotzik eza-gutu dutenak.

Beste kasu bat jartzeagatik, Nigeriako hizkuntzena jarri liteke. Eta badaude zenbait kointzidentzia bi hizkuntza multzo horien garapen historietan, eta itzulpenak horietan izan duen zerikusian ere.

Lehenengo momentuan hizkuntza bakoitzeko, komunitate bakoitzeko folklore bilketak egiten dira, eta gailen den hizkuntzara itzultzen dira. Lehenengo kasuan errusierara, bigarrenean ingelesera. Kulturuzazio prozesu baten seinale izan ohi da, edo kulturgabetzearena, kultura batek dituen balio tradizionalak hizkuntzarekin batera galtzeko beldurra: *When an old man dies in Africa, it's like a whole library burnt down.* (Unionmwan Edebiri: **Literary translation in Nigeria**, Meta XXVIII, 1, 24 or.).

Geroxeago, exolekto horiek, gailen diren hizkuntza arrotzak, batez ere estatu nazioaniztunetan, estatu horien batasunaren eragile eta sostengarri bihurtzen dira. SESBean errusierak enbutu bezala balio izan du denbora luzean; beste nazioetako eduki kulturalak errusieraren bitartez itzuli izan dira SESBeko beste hizkuntzetara.

Nigeriari dagokionean C. M. B. Brann-ek dio: *The role of English in Nigeria is that of a metalect, or link language. Politically, it has been the language through which the independen-*

ce and nationalist movement has found expression, and as an instrument of federal centralisation it remains indispensable. Baina the domains it covers are exclusively public, in contradistinction to the chthonic, whose domains of usage are exclusively private. Eta arabierak erlijiozko hizkuntzaren tokia betetzen du, beste zenbait tokitan latinak bete izan duen bezala: *The Muslim belief in the sanctity of de Holy Quran in its original Arabic, however, has prevented the translation of the text into Nigerian languages. Only now does a more liberal interpretation allow of translation into the 'vernaculars'* - Hausa and Yoruba (C. M. B. Brann: ibidem).

Baina horrelako kasuetan, hizkuntza horiek normalkuntza bidean jarri direnean eta ez galerarakoan, berehala iritsi dira tradizioaren hutsune horiek estaltzera. Eginkizun horretan itzulpenak zerikusi handia izan du kasu askotan. Bibliaren itzulpenak hizkuntza ugaritan idatzi diren lehenengo izkribuak izan dira: hizkuntza eslaboak dira ezagunenak, baina badira beste asko ere: *No sooner did they complete work on the Armenian alphabet, than Mesrob Mashtots and Sahak Partev engaged in the translation of de Bible (405-409) from de Siriac. Later, in the decade 430-440 Sahak Partev, Mashtots and his disciples revised their translation from the Siriac in the light of the Greek translation of the Septuagint.* (Levon Mkrtchyan: *Toknow Wis dom and Instruction, Babel, 1/1979, Vol. XXV, 21. or.*)

Itzulpen horiek, gainera, garrantzia handia aitortu izan zaie. *The exceptional importance of translators' work for the development of the national culture was fully appreciated in Armenia already in the 5th century, when traslators were be canonized, and when Tarkmanchan Ton -Translator's Day- was observed as a national festival* (ibidem).

Gaur egun, nahiz eta normaldu behar diren komunikazio arloak askoz ere zabalagoak diren aurreko adibideetan aipatzen direnak baino, hala ere badira zenbait hizkuntza zentzu honetan normaldu direnak edo normaltze bidean daudenak. Eginkizun horiek itzulpenez osatzen dira gaur ere kasu askotan, hezkuntza, komunikabide eta literatur itzulpenez maizenik. Literatur itzulpenari dagokionez, askotan gertatzen da, lehenagoko garaietan potentzia kolonialaren hizkuntzara itzulitako ahozko literatura tradizionala (mitoak etab.) berriro itulitzen direla SHra idatzizko forma berrian.

Lehen itzulpen horietan, ordea, arazo handiak izan ohi dira jeneralean –idazteko gai diren pertsonak beste hizkuntza batzutan egoten bait dira akulturatuak–, harik eta bertako hizkuntzan idazteko gauza izango den idazle multzo bat sortu, idaz praktika luze batean aritu eta hizkuntza idatziaren eredu –eta irakurlegoa– finkatzen den arte: *Thus there is a great need for literary translation from English and other foreign languages into Nigerian indigenous languages, but more particularly from one indigenous Nigerian language into another. Unfortunately, some factors militate against it. The first major is, in fact, that most educated Nigerians are themselves not fluent in the written form of the indigenous languages* (Unionmwan Edebiri, op. cit.).

2. Gai bateko edo besteko mezuen tradizio faltaz:

Homogeneoki –edo ia– hizkuntza bateko hiztun den populazio batean itzulpenak hizkuntza horren beraren garapenean eraginik izango badu, hiru alor nagusitan eduki beharko du eragina: hezkuntza/irakaskuntza, komunikabideak eta literatura. Beste alor asko ere badira, Euskal Herriko egoeraz zehazki ariko bagina zehaztu beharko liratekeenak. Horrek, ordea, urrutira eramango gintuzke, ez bait da gainera horretara mugatzen gurea.

Hezkuntzako hizkuntzak irakaskuntz sistematik kanpora ere duen eraginaz asko hitzegin da gure artean. Guretik kanpora ere argi azaldu izan dute: *As the language of the colonial master, English also enjoyed tremendous prestige outside the school system. It had an important role to play in determining professional success or advancement as well as an individual status. Consequently, Nigerians felt compelled to pay more attention to it than to their own languages. As a result, educated Nigerians could hardly speak their own languages without interspersing them with some English words or phrases* (ibidem).

Komunikabideetako hizkuntzaren eraginaz ere gauza bera esan liteke. Biak, hala ere, elkarrekin oso lotuak daude, bi horietako hizkuntza arrotza denean batez ere. Ez da ahaztu behar, baina, E. Simpson-ek dioena: *One obvious danger resulting from the reliance on European languages in West Africa is that these languages create cultural alienation. Much of what is*

transmitted through foreign language education may in fact go against the grain of the people's culture (op. cit.).

Itzulpenak, alde batetik, kultur eragin hori ez du itzurtzen, baina badu, hala ere, bestelako arriskurik: *For many of those who cannot read or who do not understand English, translation is a major means of information in Nigeria. But this in itself is another risk, since the language of translation is not always the most natural one* (ibidem). Simpsonek azpimarratzen duen arriskua, hizkuntz-ereduarena, ez zen arrisku hizkuntzaren oinarri soziala normal egituratua zenean.

Populazio agrafokoak aipatu ditugunean, guztiz agrafokoak ziren populazio horiek: hizkuntz gaitasunari dagokionean homogeneoak, nahiz eta idazkeraren ezaguerarik ezak behartzen duen atzeramenduan bizi.

Alorkako tradizio faltazko eznormaltasuna aipatzera iritsi garenean, populazioaren hizkuntz erabileraren homogeneotasuna galdu da. Populazio jakin horrek bizitzeko dituen funtzioak bi hizkuntzatan daude banatuak, gutxienez, gizartea bera ere halaxe banatua dagoelako seguruenik boterearen partizioan; eta hizkuntz erabilera, baina, funtzionala eta indibiduala ere bada. Zehaztu beharra dago, zeren halako populazio baten hizkuntz erabilera izan liteke anitza, objetiboki, baina bietako bat hierolekto soila izan, hemen latina ezagutu dugun bezala. Nonbait idatzia du norbaitek etxeko errosarioko "Gloria"-ren ordez dotrinan "Aintza aitari eta..." ikasi behar izan zuenean latina iruditu zitzaioela hura... Hierolektoak ez du komunikazio funtzioa izaten, erritozkoa baizik, majikoa, ulertu gabe erabil litekeena.

Hierolektoak hizkuntza arruntean utzi dituen aztarrenak lexiko mailakoak dira ia beti: *semperrenak ikusi, santiamen batean bukatu, ze patrifilio gero, zaplasteko baten ondondoko ailuixak...*

Esan liteke beraz, itzulpenak txarra izateko probabilitateak berdinak dituela *a.* multzoko kasuetan zein *b.*koetan. Baina itzulpen txar baten eragin kaltegarria are handiagoa dela zenbat eta hizkuntz horren egoera urrituagoa izan, eta horrenbestez kontu askoz ere gehiagorekin egin beharrekoa.

Alor bakoitzerako hizkuntz eredia, hutsunea dagoeneko batez ere, are eta kontu handiagoz osatu beharko da zenbat eta sakonagoa eta hedatuagoa den tradizio falta.

Egoera honetan nabarmen hasten da agertzen hizkuntza gutxiratua gailen den hizkuntzarekiko dependentzian jartzeko arriskua, bere egitura guztian; hizkuntza gailenarekiko, hain zuzen, harekiko izaten bait da eta ez bestekiko: *One serious implication of this last point, and it also touches on some of what has preceded, is that Africans are not trained to translate from African languages into other African languages. In other words, translation has to pass through the medium of the foreign, European language. The result of course is that the affinity between these local languages cannot be fully appreciated and exploited (ibidem).*

Neurria, lojikaren eta gizona gizon denak guztiz barrendurik behar denak guztiz barrendurik behar duen egiaren neurria, hizkuntza arrotza da. Testuinguru horretan purismoa parentesi artean adierazteko hondar-apendiz bat da, dependentzia baita ere, kontrara izatea bakarrik.

Bibliografia

- AZIZ, Jowell Y.: *Cultural Problems of English-Arabic Translation*, in *Babel* 1/1982, Vol. XXVIII.
- BRANN, C.M.B.: *A Socio-Linguistic Typology of language contact in Nigeria: The Role of Translation*, in *Babel* 1/1981, Vol. XXVII.
- CHOWDHURY, Kabir: *Influence of Foreign Literatures on National Literature*, in *Babel* 1/1980, Vol. XXVI.
- DEROY, Louis: *L'Emprunt linguistique*. Société d'Édition "Les Belles Lettres". Paris, 1980.
- GANIEV, Vil: *Le Conseil de la traduction littéraire de l'Union des Écrivains de l'URSS. Structure, objectifs, fonctionnement*, in *Babel*, 1/1979, Vol. XXV.
- GILE, Daniel: *La traduction et l'interprétation en Océanie*, in *Meta*, Vol. 28, n. 1, 1983.
- GOETSCHALKX, Jacques: *Traduction et acculturation*, in *Babel* 1/1980, Vol. XXVI.
- KPOTILOV, Victor: *La traduction en Ukraine*, in *Babel*, 1/1979, Vol. XXV.
- LADMIRAL, Jean-René: *Traduction et sociolinguistique*, in *Meta*, Vol. 27, n. 2, 1982.
- MKRTCHYAN, Levon: "To know Wisdom and Instruction...", in *Babel*, 1/1979, Vol. XXV.
- NISHIYAMA, Sen: *Translation and Interpretation in Japan*, in *Meta*, Vol. 28, n. 1, 1983.

NODIA, Othari: *Les nouvelles traductions géorgiennes*, in *Babel*, 1/1979, Vol. XXV.

OPUBOR, Alfred: *Translating in a Multilingual Society*, in *Babel*, 1/1981, Vol. XXVII.

PRISO, Thérèse: *Les traducteurs camerounais face aux problèmes linguistiques*, in *Meta*, Vol. 28, n.1, 1983.

RONAI, Paulo: *La traduction: moyen de diffusion des valeurs culturelles en Amérique Latine*, in *Babel*, 1/1980, Vol. XXVI.

SAMMA, Otto: *L'œuvre de la traduction en Estonie*, in *Babel*, 1/1979, Vol. XXV.

SIMPSON, Ekundayo: *Translation and the Socio-Cultural Problems of Developing Countries*, in *Babel*, 1/1980, Vol. XXVI.

ZAKHARIEV, Zakhari: *Coexistence between Written Languages and Socio-Cultural Problems of de Developing Countries*, in *Babel*, 1/1980, Vol. XXVI.

SINTESIS

La teoría de la traducción normalmente señala una función puramente comunicativa a la traducción. Sin embargo, según el autor de este artículo, a menudo sucede que la traducción, un volumen relativamente grande de traducción en una determinada literatura, viene a producir efectos diferentes según la situación sociolingüística de la población a que va dirigida. Cuanto más precaria y más minorizada dentro de una determinada población sea la situación de la lengua a que se traduce, tanto mayor será el peligro de que los defectos estilísticos de una mala traducción —calcos, distorsión de las reglas de uso de la lengua— aparezcan también en el uso habitual —no traducido— de ella, llegando a desvirtuarla de tal manera que puede llegar a ser un puro pidgin.

Este efecto no es consecuencia únicamente de la labor traductora, evidentemente, sino de la situación de minorización de una lengua respecto a otra.

Este artículo constituye un intento de analizar las relaciones de interdependencia que pueden existir entre la traducción y los procesos de normalización de las lenguas, procesos de recuperación que parten de situaciones de precariedad y un a modo de ósmosis de la lengua minorizada respecto a la lengua dominante, que a menudo se da en estos casos.

El autor describe y analiza someramente diversos tipos de situación de minorización e intenta establecer una escala entre ellos, así como los aportes que históricamente ha hecho la traducción a lenguas que en su momento se hallaban en esa situación.

SYNTHESIS

The theory of translation normally indicates a purely communicative function of translation. However, according to the author of this article, very often in translation, it occurs that a relatively large quantity of a determined type of literature which is translated, can produce different effects depending on the socio-linguistic situation of the population to who it is directed. The more minorized and precarious the situation of the language into which one is translating, the greater the danger of the defects, bad translating style, distortion of language usage rules, etc. appearing also in everyday usage of that same language -though not translated. This could eventually bring about a deterioration of the language to the extent of it becoming pure pidgin.

This effect is not only due to the translating of course, but also to the "minorization" of one language with regard to another.

This article attempts to analyze the relation of interdependence which may exist between translation and language normalization processes; recuperation processes based on situations of precariousness and a kind of osmosis of the "minorized" language in respect to the dominant one which is often found in such cases.

The author briefly describes and analyzes various types of situation of "minorization" and tries to grade them, as well as the positive influence translation has had in the past on languages which were spoken in that situation.

Terminologi zentru eta bankuak

Tere Barrenetxea
Elhuyarko lankidea

I. Terminologi zentruak

Eremu eta eginkizun desberdinetako zentruak daude

Munduan zehar lanean ari diren terminologi zentruak helburu diferenteei erantzuna emateko sortuak izan dira. Puntu hau garrantzi handikoa da zentru hauetan egiten den lana aztertzerakoan. Badira nazioarteko instituzioak beren lana hizkuntza diferentetan egiten dutenak eta industriaren arloan beharrezkoak diren hainbat alderdi normalizatzen dihardute-nak. **ISO (International Organization for Standardization)** erakundea guretzat ezagunena, adibidez. Beste batzu bestelako behar batzuri erantzuteko sortuak izan dira; hizkuntza minorizatuek beren normalizaziorako ezinbestekoak dituzten lanabesak bereganatzeko. Honelakoa dugu, adibidez, Tanzania-n Swahili hizkuntzazko terminologi lanak egiteko **Dar Es Salaam-eko Unibertsitateko Institutua (Taasisi ya chunguzi wa Lugha ya Kiswahili, Chuo Kikuu Dar Es Salaam / Swahiliaren Ikerketetarako Institutua, Dar es Salaam-eko Unibertsitatea)**. Institutu honetan, besteak beste, Kiswahili/Ingelesa hiztegia eta kiswahilizko biologi hiztegia landu dituzte.

Egun lanean ari diren eta etorkizunean sortuko diren terminologi zentruak ez diete, beraz, premia berdinei erantzun be-

har; bertako hizkuntzak mundu zientifiko-teknikoko errealtate konplexua deskribatzeko gaitzea izango da batzuren desafiota eta besteentzat herri desberdinen arteko hizkuntzazko hesiak gainditzea elkarlanetan oztopo gerta ez daitezten.

Zentru hauetan lantzen diren jakintzagaiak ere oso desberdinak izan ohi dira. Terminologiaren teoria bera landuko da zenbaitetan (**ISO/TC 37 International Organization for Standardization** erakundearen batzorde teknikoa); eremu diferentetako terminologi lanak egiten dira hainbatetan (**Banque de terminologie du Quebec, Association Française de Normalisation, Ustav pro jazyk český / Txekieraren Institutua, Makedonska Akademija na Naukite i Umetnostite / Zientzia eta Arteen Akademia Mazedoniarra** etab. luzea); beste batzuk eremu jakin batetan egiten dituzte beren ikerketak. **World Meteorological Organization** erakundea meteorologia, klimatologia eta hidrologia eremuetako dokumentazio- eta terminologigintza-zentrua da eta gai horietako hiztegi eleaniztunak argitaratu ditu herri diferentetako informazio-trukaketa erraztuz. Bere gain hartu ditu halaber nazio-arteko erabilpenerako taula eta ikurren finkapen- eta argitaratze-lanak.

Medikuntzaren arloan, esate baterako, talde ugari ari dira lanean. Erakunde hauetan kontutan hartzen dira eritasunen nomenklatura, medikuntzari buruzko legeria, biomedikuntza, medikuntzako teknologia, farmazia, etab. arlo guzti horietan dokumentazioa bilduz eta hiztegi arauemaileak argitaratuz. Horretan dihardute, adibidez, bere egoitza Tokyo-n duen **Kokusai Igaku Jyoho Senta / Nazioarteko Medikuntzazko Informazio-Zentrua** eta Geneva-n dagoen **World Health Organization, Technical Terminology Service / Osasunaren Munduko Organizazioa, Terminologia Teknikoaren Zerbitzua** bezalako erakundeek besteren artean.

Terminologi zentru publikoak eta pribatuak

Status juridikoaren aldetik ere ez dira berdinak. Enpresa handien eraginez sortutako ikerketa-zentruak dira batzuk eta beste batzuk herri hartako administrazioak bere hizkuntzaren plangintzaren ondorio bezala emandako urrats bat gehiago. Kanada-ko kasua dugu ezagunena azken hauen artean. Kana-

dan frantses hizkuntzaren normalizaziorako Administrazioak sortu eta bultzatutako **Direction Générale de la Terminologie et de la Documentation** erakundean berrehun eta hamar pertsonak lan egiten dute. Hauen artean ehun eta hogeitabederatzi, hizkuntzalari, terminologilari eta lexikografariak dira, hamabi bibliotekari eta dokumentalistak, sei administrazioari buruzko espezialistak, lau hizkuntzalaritza konputazionalari buruzkoak eta berrogeitabederatzi bulegoko langileak. Kanadako Gobernuak frantsesa bertako administrazioan, merkatalgoan eta komunikabideetan bultzatzeko egindako lana nahiko ezaguna da gure artean eta lehenago ere izan dugu horren berri (Ikus Senez aldizkaria 2. urtea 1. zenb. 29-31. orr.).

Enpresen itzalpean sortutako terminologi zentruen artean Siemens AG, **Sprachendienst** erakundea azpimarratuko dugu. Hirurehun eta hirurogei pertsonak lan egiten dute bertan, hauetatik gehiengoa, hirurehun eta hamaika, itzultzaileak izanik. Aurrerago emango ditugu erakunde honi buruzko xehetasun gehiago, baina ez genuke aipatu gabe utzi nahi hemen, enpresa honek martxan jarri duen **TEAM** izeneko proiektu garrantzitsua. Proiektu honen helburua itzultzaileen lagungarri izango den terminologiazko datu-bankuaren erakuntza da.

Beste zenbait terminologi zentru Unibertsitatearen barruan sortuak dira, Estatu Batuetan eta Hego Ameriketean, adibidez, badira zenbait Unibertsitatean terminologiazko ikerketak egiten dituzten sailak: **Bibliographic Systems Center**, Case Western Reserve University (Cleveland, EEBB), University of Hawaii (Honolulu, EEBB), Carnegie-Mellon University (Pittsburgh, EEBB), Central de Documentación y Terminología para Traductores, Seminario de Traducción del Colegio de Mexico (Mexico D.F.), Instituto de Pesquisas Tecnológicas (São Paulo, Brasil), University of Pittsburgh (Pittsburgh, EEBB).

Terminologi zentru batzuren deskribapena

Oraingo honetan, terminologi zentrurik nagusienak direlako, ala Euskal Herriaren eta euskararen baliabide eta egoerarekin antzekotasunik handienak izan ditzaketenak iruditu

zaizkigulako, zenbait terminologi zentruen azalpen zehatza goa egingo dugu. Erakunde bakoitzak zein jakintza-gai lan-tzen duen, zein hizkuntza erabiltzen duen, bertan lanean di-harduten espezialisten kopurua eta eskaintzen dituen zerbi-tzuak (kontsultak, ikastaroak) azpimarratuko ditugu.

1. International Information Centre for Terminology, INFOTERM

1971. urtean sortu zen erakunde honek Vienna-n (Austrian) du bere egoitza.

Bere helburu nagusia, hizkuntza eta arlo guztietako termi-nologiei buruzko dokumentazio-bilketa eginez, mundu osoko terminologi lanen koordinazioa da. Terminologia standardi-zatuen terminologi bankua sortzeko asmotan ari dira lanean. Nazioarteko mailan, mundu osoko terminologi zentru eta baita bankuek ere parte hartzen dute **Infoterm**-en.

Bost pertsonak lan egiten dute bertan terminologigintza eta/edo thesaurusgintzan aholkularitza emanez. Terminologi-aren hastapenei buruzko ikastaroak antolatzea ere bere asmo-etariko bat da. Estatu Espainoleko **Hispanoterm** erakunde-arekin, adibidez, elkarlanerako akordioa sinatu zuen **Info-term**-ek 1983. urtean. Erakunde honek prestatuak dira mun-duan zehar terminologiarekin zerikusia duten arloetan lanean ari diren erakunde eta talde guztien gidazerrenda eta beste hainbat informazio baliagarri jasotzen dituen "**Infoterm Se-ries**" deituriko bilduma.

2. Association Française de Normalisation, AFNOR

Erakunde hau 1926. urtean sortua da eta bere egoitza Pari-sen dago.

Terminologiari buruzko dokumentazioa eta terminologigintza dira bertako aktibitate terminologikoak. Dokumentazio-lanetan ingelesez, frantsesez, errusieraz, alemanieraz eta gaz-telaniazko arlo tekniko guztiak hartzen dituzte kontutan, bai-na baita beste edozein hikuntzatan argitaratzen diren doku-mentazio-ikerketak ere. Terminologigintzari dagokionez, fran-tsesaren normalizazioarekin zerikusia duten eremu guztiak hartzen ditu kontutan, beste hizkuntzetarako, bereziki ingele-serako, itzulpenak landuz.

Hirurehun eta berrogeitamar pertsonak lan egiten dute bertan liburu-bildumak, hiztegiak, erreferentziak, bibliografiak, arauak, aldizkari eta artikuluak argitaratuz. Bereziki aipagarria da hiztegi teknikoen lanketarako ezarri dituzten arauen zerrenda osatua.

Azken urte hauetako projektuen artean bi dira nagusienak:

- **NORMATERM**: Arau frantses eta internazionalak terminologiaren erabilpen automatikoaren ikerketa.
- "Normalisation" izeneko thesaurus-a: 9.000 hitzeko thesaurus honek normalizazioaren beharrea dauka arlo gehienak estaltzen ditu, hau da, aktibitate industrial eta ekonomiko gehienak. **ISO** erakundeak argitaratutako thesaurus eleaniztunaren bertsio frantsesa da.

AFNORek normalizatutako eremu guztiei buruzko erreferentziak eskaintzen ditu. Frantseseko eta atzerriko hizkuntzetako frantseseratutako arauak argitaratzen ditu.

3. International Organization for Standardization, ISO

1947. urtean sortua, lehenago **ISA** deituriko erakundearen ondorengo bezala. Geneva-n du bere egoitza.

Hizkuntza guztiak hartzen ditu kontutan, baina bereziki ingelesez, frantsesez eta errusieraz egiten dituzte lanak. Jakintza-eremu guztietako terminologigintza eta terminologiari buruzko dokumentazioa lantzen dute lexikogintzarako arauak ezarriz. Hiztegi-gintza bertako azpikomiteei egotzi zaien lana da, Senek aldizkariaren 2.1. aleko 17 orr. azaltzen den bezala.

Erreferentzi zerbitzua **ISO's Information Centre**-aren bidez eskaintzen da.

4. Direction Générale de la Terminologie et de la Documentation, Bureau des Traductions, Secrétariat D'Etat, D.G.T.D.

1974. urtean sortua, Ottawa-n du bere egoitza.

Eremu guztietako terminologiari buruzko dokumentazioa eta terminologigintza lantzen dira hemen ere. Lantzen diren arloen artean, adibidez, administrazioa eta gestioa, nekazaritza, kimika, zuzenbidea, ekologia, elektrizitatea, geografia, in-

formatika, telekomunikazioak, hirigintza, etab. aurkitzen dira. Ingelesa, frantsesa, alemaniera, txinera, errusiera eta gaztelera dira bertan aztertzen diren hizkuntzak, baina ingelesa eta frantsesa dira gehien lantzen direnak.

Berrehun eta hamar pertsonak egiten dute lan, liburu-bildumak, hiztegiak, erreferenzi liburuak, bibliografiak, arauak, aldizkari, tesi eta artikuluak sortuz. Bi aldizkari argitaratzen dituzte, **Actualité terminologique** eta **Bulletin de terminologie**, terminologiaren aspektu diferenteak plazaratzen dituztenak.

Erakunde honek badu terminologi bankua, eta zerbitzuen artean banku horretako datuen irispidea terminalen bidez egin ahal izatea eskaintzen du. Telefono bidezko kontsultak egiteko zerbitzua ere antolatua dute.

5. Vsesojuznyj naučno-issledovatel'skij institut tehničeskoj informacii, klassificacii i kodirovanija, VNIKI (Informazio, klasifikazio eta kodeketarako zentrua)

1964. urtean sortua, Moskun du bere egoitza.

Erakunde honetan, orain arte honera ekarri ditugun guztietan bezala normalizazio bidean dauden arlo guztietako dokumentaziogintza eta terminologigintza lantzen dira. Errusiera, alemaniera, ingelesa eta frantsesaz gain, Ekialdeko Europako zenbait herritako hizkuntza nazionalak hartzen dira kontutan. Erakunde honek bere gain hartzen du Sovietar Batasunean terminologia standardizatuari buruz egiten diren lanen koordinazioa.

6. Bundessprachenamt, BSprA (Hizkuntz Sail Federala)

1969. urtean Mendebaleko Alemanian sortutako erakundea dugu.

Eremu tekniko desberdinei buruzko terminologiako eta lexikografiako lanen dokumentazioa da zentru honek duen ataza nagusia. Hogeiren bat pertsonak egiten dute lan bertan alemaniera, ingelesa, frantsesa, nederlandera eta errusiera kontutan hartzen direlarik.

Erlazio zabalak dituzte terminologiaz, lexikografiaz, terminologiari buruzko dokumentazio eta informazioaz, standar-

dizazio terminologikoaz, itzulpen automatikoaz eta konputagailuz lagunduriko lexikografiaz arduratzen diren nazioarteko erakundeekin.

Datu-banku terminologikoa martxan dute instituzio publiko eta pribatuetatik egiten zaizkien kontsultei erantzun ahal izateko. Instituzio publikoek ez bezala, pribatuek ordaindu egin behar dute zerbitzu honetaz baliatu ahal izateko. Banku honek eskaintzen duen informazioan iturburu-hizkuntza ala jomuga-hizkuntza, bata ala bestea, beti alemaniera da.

7. Hebraieraren Akademia

Hebraieraren Akademia 1953an sortutako erakundea da, bere aurrelari izan zen Hebraieraren Kontseiluaren ondorengo. Hebraieraren Akademiak bere gain hartu du zientzien eta gizarte-arloko terminologigintza, horretarako Terminologia Teknikorako Komite Zentrala eratuz, zeinek **Technion**, Israelgo Teknologiarako Instrukturekin elkarlanean iharduten bait du.

Hebraiera da, noski, bertan lantzen den hizkuntza, baina ingeleza, frantsesa eta alemanierari buruzko dokumentazioa ere biltzen da. Komite teknikoan lankidetzaz gain, Israelgo Normalizazio-Erakundeak ere parte hartzen du terminologiaren standardizazio-lanetan. Ekintza guzti hauek Hebraieran Agintaritzaren Goren-ak hebraieraren sustapenerako emandako legeak ezartzen duen plangintzaren barruan kokatzen dira.

Hamabi pertsonen lan egiten dute erakunde honetan, nahiz eta erakundetik kanpoko espezialista eta hizkuntzalarien aholkularitza eta azterketa-txosten ugari jaso.

Erakunde honen eskutik egindako lanen artean, "Erai-kuntzako Hiztegia" eta "Fisika-Hiztegia II (Elektrizitatea)" aipatuko ditugu; bietan goian aipatutako lau hizkuntzak erabiltzen dira.

8. Hispanoterm (Centro de terminología científica y técnica)

Gaztelania erabiltzen duen populazioa zenbatekoa den kontutan hartuz, bistakoa da komunikazio-hizkuntza oso garrantzitsua dela eta beraz, hizkuntza hau erabiltzen den lurraldetako aktibitate terminologikoen koordinazioaren beharra.

Honela sortu da Estatu Espainolean **Centro de Terminología Científica y Técnica, Hispanoterm** izenaz ezaguna.

Zentru hau Miguel de Cervantes Institutuko partaide da (Gaztelaniaren Ikerketarako Institutua). Bestalde, Institutu hau, beste zenbait Institutu bezala, Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC) erakundearen itzalpean jaio zen.

Hispanoterm-en helburu nagusia terminologia zientifikoaren azterketa sistematikoa gaztelaniaz egitea da, terminologia hori eguneratu eta automatizatuz gaztelania eta beste hizkuntza erromantzeak erabiltzen dituzten herrietako instituzioekin elkarlanean. Terminologi lanei buruzko koordinazio hau garrantzi handikoa da gaztelania hitz egiten den lurraldeetako terminologi informazioaren barreiapena kontutan hartuta. Terminologia horren standardizazio eta baterakuntzan **IRANOR**en (standardizaziorako erakunde espainola) laguntzaz egiten da. **Hispanoterm**-ek bere atazen artean lehentasuna eman die metodologiaren bilakaerari eta hitz berrien sorketarako aholkularitzari.

Gorago esan dugun bezala Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC) da **Hispanoterm**-en erantzule, honen zuzendaritza eta komisió linguistikoak eta zientifikoak CSIC-en ardurapean hartzen direlarik.

9. Termcat

"Centre de Terminologia" (**Termcat**) Barcelonan sortu berria den terminologi zentrua dugu, Generalitat eta Institut d'Estudis Catalans (IEC) erakundeek elkarrekin onartutako hitzarmen baten eskutik.

Horretarako Generalitat-eko Kultur sailak Kataluniako hainbat elkarte eta lagunekin harreman eta elkarrizketak izan ditu, izan ere sail horri atxekitutako "Servei d'Assessorament Lingüístic" delakoak bultzatu bait du erakunde berriaren sorkuntza. Nazioarteko nortasunarekin ere jaio zedin **Infoterm**-eko **TermNet** sarean sartu da **Termcat**.

Terminologi zentru honek bi eratako xedeak izango ditu:

- Katalanerazko terminologi lanen plangintza egitea, lan hauen koordinazioaz eta datuen biltegitratze eta ondorengo zabalkundeaz arduratuz.
- Terminologi lanetako erizpide metodologikoak aztertzea, erizpide horietan oinarrituz, terminologiak prestatzeko.

Xede horiek betetzeko ondoko iharduerak aurrera eramateko asmoa dute:

- Batzordeen sorkuntza eta zuzendaritza
- Hiztegi berezituen prestakuntza
- Terminologiaren gainbegiratua
- Terminologi mintegia
- Banku terminologikoa
- Argitarapenak eta zabalkunde-ikastaroak
- Beste erakunde terminologikoekin harremanak

II. Terminologi Bankuak

Hirurogeigarren hamarkadan, Europako zenbait erakunde terminologiazko sarrerak konputarizatzen hasi ziren, batetik terminologi datu horiek era azkarragoaz eskuratu ahal izateko eta modu errazagoan eguneratzeko posibilitatea izateko eta bestetik informazio hori eraginkortasunez eta kostu txikiagoz hedatzeko bidea ematen zuelako. Hamarkada horretan datu-egitura desberdinetako datu-bankuak sortu ziren.

Honela, Alemaniako Errepublika Federalean, **Bundes-sprachenamt**-ean ingelesezko eta alemanierazko bikote baliokideak biltzen hasi ziren. Luxembourg-en eta Europako Herrien Komisioak sortua, **DICAUTOM** erakundea jaio zen (urte batzuren buruan **EURODICAUTOM** terminologi bankua bihurtu dena) zenbait hizkuntzatako unitate konplexuak biltzeko asmoarekin. Munich-en Siemens enpresaren hizkuntz zerbitzuak **TEAM** (**Terminologie-Erfassungs- und Auswertungsmethode / Terminologiaren bilketa- eta azterketa metodoa**) terminologi bankua sortu zuen **Terminologiaren Teoria Orokorraren** kontzeptuetan oinarrituz. Geroztik, datu-banku terminologikoak lanabes indartsu bihurtu dira terminologiazko informazio eta dokumentaziorako (terminografiarako).

Datu-banku terminologikoen motak

Erabiltzen duten informazioaren arabera datu-banku terminologikoak bi eratakoak izan daitezke:

a) Hiztegi erako bankuak

Hiztegi erako bankuak itzulpen lanetara zuzenduriko bankuak dira. Erregistro terminologikoa hiztegietan agertzen direnen erakoa da, hau da, ordenatutako elementua termino edo unitate lexiko konplexu bat da beste hizkuntzetako baliokidea parean duela. Erregistro bakoitza erregistro-multzo batekin erlazionatzen da, multzo horri dagokion gaiaren kodea atxekiz. Hiztegi erako bankuak erregistro independentez osatuak daude eta erregistroen arteko erlazioak erreferentzien bidez ematen dira gorago adierazi dugun bezala.

b) Izendegi erako bankuak

Izendegi erako bankuetako erregistroak kontzeptuetatik abiatzen dira. Erregistroan kontzeptu baten datu terminologikoak azaltzeaz gain, jakintza-eremu horretan berarekin erlazioa duten beste kontzeptuak ere egingo dira. Erregistro horretan, kontzeptuaren definizio edo gutxienez azalpen bat azalduko da. Erregistroa elebakarra ala eleaniztuna izan daiteke. Gaur egun badira hiztegi standardizatuentzat honelako bankuak dituzten erakundeak, adibidez: **AFNOR** (Frantzia), **VNIKI/GODDSTAND** (Errusian), **DIN / Siemens** (Alemaniako Errepublika Federalean).

Datu-bankuetako informazioa terminologi komisio, erakunde zientifiko eta standardizaziorako elkarrean lanaren bidez sortzen da. Informazio hori gidagarri eta arauemailea izaten da.

Banku hauen terminologiaren baterakuntzarako etorkizuneko lanabesak izango dira eta paper garrantzitsua jokatuko dute teknologia, zientzia eta lanbide desberdinetako informazioaren transferentzian.

Datu-banku terminologikoen funtzioa eta ezaugarriak

Erabiltzaile-talde konkretuen eskakizunak jasotzea da datu-banku terminologikoen funtzioa. Edozein modutara ere, datu-banku terminologikoen erabiltzaile-talde jakinei, adibidez, edozein gaitako espezialistei, itzultzaileei, ikasleei, argita-

ratzaileei eta komunikabideetako eta administrazioko profesionalei honako informazio hau eskaini beharko liekete gai berezituaren alor desberdinetan: hitzen esanahia, beste hizkuntzetako baliokideak, horretaz arduratzen diren erakundeek gomendatuta, antzekotasun-erlazioa duten kontzeptuak, kontzeptu bat azalteko hobetsitako terminoa, kontzeptuaren definizioa edo azalpena, sinonimoak, kontzeptuen arteko erlazioak etab.

Datu-banku terminologikoak testuen tratamendurako sistemekin konbinatuz oso paper garrantzitsua joka dezake terminologia bateratua erabili ahal izateko testuetan.

Terminologi bankuetako erregistroetan fidagarritasuna, hobekuntza eta eguneraketa oso kontutan hartzeko puntuak dira. Terminologi datuen fidagarritasuna hertsiki loturik dago datuen kalitatearekin. Datu-bankuek terminologia bateratuaren erabilpenerako duten garrantzia dela eta, gaizki sortutako termino edo hitz desegokiak erraz hedatzeko bidea izan daitezke. Baina, hiztegi txarrekin gertatzen den moduan, fidagarritasun eskaseko bankuak ere, baztertuak izaten dira eta erabiltzaileek ez dituzte kontsultatzen.

Terminologi bankuaren erabiltzaileei bertan azaltzen den informazioa zuzendu, zabaldu eta hobetzeko bideak eskaini beharko litzaizkieke. Itzultzaileak badira, zihurtatu behar izaten da beraiek proposatutako informazio-hedapena gai horretako espezialistaren batek onetsia dela, kontrolik gabeko datuak sarearen barruan sartzeko posibilitatea ahalik eta neurri handienera eragotziz.

Azkenik, eta gaur egunean terminologia berriaren sorkuntzaren abiada kontutan hartuz, etengabe eguneratu beharko da bankuko informazioa, zientzia, teknologia, ekonomia eta beste hainbat arlotako garapen azkarra kontutan hartuz, edozein terminologi banku erabilgaitz eta zaharkitua gera daitkeelako aspektu hau zaintzen ez bada.

Baldintza hauek bete ahal izateko beharrezkoa da datu-bankuen eta unibertsitateko departamentu desberdinen arteko elkarlana. Munduan zehar, herri eta erakunde asko dira gaur egun, terminologi bankuak sortzeko asmoarekin eta kasu guztietan azterketa sakonak egin beharko liriateke egungo eta etorkizuneko erabiltzaileak zeintzu izan daitezkeen eta konputagailuen teknologiak daraman garapen azkarra baloratu. Etorkizuneko mikro eta minikonputagailuetan emango diren

pausoak kontutan hartu behar dira, memoria-kapazitate handia eskaintzeaz gain, (gaur egun eskaintzen dutena baino dezentez handiagoa) beren malgutasuna balio handikoa izan daitekeelako lan hauetarako.

III. Euskal terminologi zentruaren beharra. Duguna eta falta zaiguna.

Edozein hizkuntzatan terminologia berezitzen arazoari erantzutea beharrezkoa baldin bada, are beharrezkoagoa da modernizazio-bidetik abiatutakoentzat, hauetan standardizazio-arazoari hiztegiaren sorkuntzarena bera ere gainjartzen bait zaio. Hala pentsatu dute behintzat hizkuntzaren modernizazioari eta normalizazioari oro har erantzun serioa ematen ahalegindu diren herrialdeetan. Norvegiarak, txekierak, suomierak, hebraierak, swahili hizkuntzak, mazedonierak, katalanak... beren terminologi zentruak dituzte. Euskarak ere behar du horrelako zentru bat zalantzarik gabe.

Hutsetik abiatzen garenik ere ezin esan, zeren eta azken zortzi urteotan UZEIk terminologi zentru baten lanera hurbiltzen den zeregina bete bait du. Datu hau oso kontutan hartzea izango da hain zuzen ere Euskal Terminologi Zentruaren sorkuntzarako. UZEIn sartu diren milaka orduak (200.000 ordu inguru), bildu diren datu ugariak, harremanek etabarrek eskarmentu aberatsa metatzeko balio izan dute eta hori ez dago alferrik galtzerik.

Nolanahi dela ere, terminologi zentruak ofizialak eta publikoak izan ohi dira, ezaugarri hauek gauzatzeko formula desberdinak badaude ere. Honela, Finlandian gobernuak bere kabuz eratu zuen zer esanik zuten erakundeak bilduz, Katalunian Generalitat-ek Institut d'Estudis Catalans-ekin hitzarmen bat sinatuz eratu du eta Israelen, aldiz, Hebraieraren Akademiak beste hainbat erakunderekin lankidetzan, Estatuak emandako ofizialtasunez eta Unibertsitatearen barnean kokatutako egoitzan, betetzen du eginkizun hori.

Euskal Terminologi Zentru bat eratzeko lehenengo eta behin haren premiaz jabetuta egon behar da, noski, baina horretaz gain hainbat galderari erantzuna bilatu behar zaio: zer nolako harremanak izango ditu Zentru horrek Euskaltzaindia-

rekin, eta EHUn sortzekoa den Euskararen normalizaziorako Institutuarekin, nola hartuko dute parte haren sostenguan Euskal Herriko lurralde desberdinetako Erakunde Publikoek? nola jasoko da UZEIn metatua den esperientzia? etab.

Planteatutako hauek galderak dira eta ez mamiak; esan nahi bait da, helburua garbi edukiz gero eta borondate ona nagusi baldin bada, irtenbide egokia izan dezaketela. Solaskideak definituz eta mahai baten inguruan bilduz ekin dakioke prozesu honi.

Bestalde oso inportantea izango da zentru horretan erabiliko den metodologia nazioartean homologagarria izan dadin. Katalanek esate baterako garrantzi berezia eman diote puntu honi eta hor dabilta beste lekutako esperientziaren berri zehatza jasotzen (Euskal Herrikoa barne) Kongresutan, egonalditan etab.

SINTESIS

Existen, según la articulista, muy diversos tipos de bancos y centros de terminología en el mundo, dependiendo cada tipo de la problemática en la que se halla inmerso. Así, al mismo tiempo que existen centros terminológicos internacionales, cuyo fin es normalizar la terminología internacional en campos de uso concretos, sobre todo referentes a la industria y a la investigación industrial, existen otros cuyo principal objetivo es la normalización lingüística de lenguas minoritarias, o minorizadas, que aunque sean habladas por millones de hablantes, actualmente se hallan fuera de los circuitos de información modernos.

Puede establecerse otra distinción entre estos centros según la amplitud o restricción de sus campos de actividad, pues a la vez que existen centros con campos de interés muy amplios, puede haberlos con campos tan restringidos como pueden ser la terminología internacional en la meteorología o en el arte.

Los bancos terminológicos pueden ser tanto centros públicos como centros privados, aunque lo más normal es que estén inscritos en el ámbito de alguna universidad.

Tras describir y mostrar ejemplos de diversos centros ingleses, franceses, canadienses, rusos, alemanes, hebreos, castellanos y catalanes, la autora analiza los modos de organización de datos que se usan normalmente en los bancos de terminología, las condiciones que debe cumplir una buena labor de sistematización terminológica, y la información que esa debe ofrecer al usuario: significado de cada término, equivalentes en otras lenguas, términos cuyo uso es aconsejado por otras entidades para el mismo campo semántico, conceptos que guardan relación de semejanza con el antedicho, términos preferidos para

expresar determinado concepto, definición del concepto, sinónimos, relaciones interconceptuales.

Al cabo, la autora analiza las condiciones, sobre todo institucionales, que debe reunir el necesario centro terminológico vasco, al tiempo que informa de los pasos que ya se han dado para la consecución de ese fin.

SYNTHESIS

According to the writer different types of Centres of Terminology and data banks exist throughout the world, each type dependant on the problem in which it is involved or which it is trying to solve. Thus, international terminological centres exist in which the objective is to normalize the problems of international terminology in specific fields, especially in industry and industrial research, as well as others whose principal objective is the linguistic normalization of minority languages which, even though spoken by millions of inhabitants, find themselves outside the circuits of modern information technology.

Another distinction can be established between these centres according to the amplitude or restriction of their particular field of activity because while centres with a broad scope of interest may exist, others may be limited, for instance, to international terminology in meteorology or art.

They may also be private or public centres, although they are normally to be found within the confines of the universities.

After describing and showing examples of different centres based in England, France, Canada, Russia, Germany, Israel, Spain and Catalonia the writer analyzes the way in which the data, which is normally used in the data banks of terminology, can be organized. He also considers the conditions which a competent systematization of terminology should meet and the information which it should offer to the user: the meaning of each term, equivalents in other languages, terms whose use is recommended by other entities for the same semantic field, concepts which bear a similarity to the aforementioned, terms which are preferred to express the determined concept, the definition of the concept, synonyms, and interconceptual relationships.

Finally, the author analyzes the conditions, above all of an institutional nature, that the Basque Centre for terminology should satisfy, and gives information about the steps which have been taken in the realization of this objective.

Lexikozko transformazioak itzulpenetan

Levickaja, Fišerman

Čem vyzývajútsja leksičeskije transformacii pri perevode?

Tetradi Perevodčiki, n. 12, Moskva, 1975

Euskaratzailea: Xabier Mendiguren

SH eta XHren artean egitura desberdintasun bat gertatzen da. Hizkuntza bakoitzak bere "Weltanschauung" edo "mundu-ikuskera" berezia isladatzen du. Errealitatea ezagutzerakoan, gauza bat eta berari buruz ezaugarri desberdinak har daitezke kontutan. Aukera hau hitzari dagokion egitura semantikoa isladatzen da.

Betaurrekoak adierazteko ingelesak *glasses* eta errusierak *ocki* hitzak erabiltzen dituzte. Ingelesak objektu horren gaia hartzen du, errusierak, berriz, objektu horren funtzio edo zertarakoa. Halare, bi hitzok ongi adierazten dute errealitateko fenomeno bakarra.

Hitzaren hedadura semantikoa ere ez da berdina edo parekoa gertatzen bi hizkuntzetan. Hitz bakoitzak bere bizitza du hizkuntza jakin horretako sistemaren barruan, eta beroni eskuti loturik egoten da. Adierazi lexikalaren alderdi desberdinak har ditzake, esanahia zabalduz edo murriztuz, konkretogo edo abstraktoago bihurtuz.

Konbinagarritasunaren aldetik ere desberdintasunak sortzen dira bi hizkuntzatarako hitzak parekatzean. Batean egin daitezkeen hitz uztarketak, bestean b. g. arbadaz ezinezkoak izaten dira.

Azkenik, garrantzi handia du hizkuntza bakoitzaren baitan hitz jakin bat erabiltzeko dagoen ohitura edo usadioak. Hitz bakoitzak bere lekua du hizkuntza horren historian eta sistema lexikalaren mamikuntzan eta garapenean. Hizkuntza bakoitzak bere klitxe, formula eginak eta hitz konbinazioak sortzen ditu.

Itzultzerakoan transformazio lexikalen beharra agerian jartzen duten lau arrazoi modu hauen adibideak ikusiko ditugu ondoren.

Hot milk with skin on it (P.H. Johnson)

Gorjačee moloko s penkoj

Errealitateko fenomeno jakin hau larrua edo azalarekin asoziatzen da ingelesez gorputza edo fruituak estaltzen dituenarekin. Errusieraz, berriz, adieraziaren oinarrian irakitearen ondorioa datza - irakin eta bitsa sortzea. Euskarazko *esnegaina* ingelesezko *skin*-etik hurbil legoke eta *aparra* errusierazko *penka*-ren parekoa litzateke.

herring-bone (work)

v ělku, v ěločku

Adreiluak ezartzeko modua, joskintzan, marrazkigintzan eta abar erabiltzen den esamolde hau errusieraz zuhaitzarekin asoziatzen da, izeiarekin (abeto) hain zuzen; ingelesez, ostera, harenkearen bizkarrezurrarekin. Errusierazko imajina basoen ugaritasunari zor zaio, ingelesezkoa, berriz, itsasoaren hurbiltasunari.

Egitura semantiko argia duten hitzetan ezezik, osagai etimologikoak gardenak dituzten hitzetan ere garbi ikusten dira fenomeno hauek:

gostinaja = *gonbidatuentzako gela*

drawing-room

(withdrawing-room) = *emakumezkoak mahaitik
bartzertzen zireneko gela*

parlour = *gonbidatuekin hitz egiteko gela*

sitting-room = *eserita egoteko gela*

sala de estar = *egongela*

instant coffee = *rastvorimyj kofe*

Bi hitzetako eraikuntza hauek fenomeno bakar eta berdina-
ren alderdi desberdinak isladatzen dituzte: ingelesak presta-
kuntzaren *bizkortasunari* begiraten dio; errusierak, aldiz, ka-
fe honen *ezaugarri bereziari*, disolbagarritasunari.

school-leaver = *vypusknik*

Eskola-aroa bukatzen duena errusierak eskolak bizitzara
bota edo *aterarazitakoa* balitz bezala ikusten du, ingelesak, be-
rriz, eskola *uzten* duenaren gisa. Ondorioz, hitz hauen bidez
sortzen diren eraikuntza edo hitz-elkarketak ere ez dira bat
etortzen:

to raise the school-leaving age

(*prodlit' srok objazatel' nogo obučenija v škole*)

to raise = *jaso, igo, altxa*

prodlit' = *luzatu*

Itzultzaileak badu hitzaren adieraziak bere baitan duen
ezaugarri bereziaren mendean erortzeko arriskua. Ordezkoa
bilatu behar da, jatorrizkoaren lilurapean erori gabe.

He lives next door

I *On živět v sosednem (a ne sledujuščem) dome*
Auzokoa da (ez hurrengo atekoa)

A snowdrift ten inches deep

II *Sugrob vysotoj (a ne glubino) v polmetra*
*Metro erdiko elurpiloa edo metroerdi alturako elur-
piloa (ez sakonerako)*

Batzutan, hautaturiko hitzak duen ezaugarriarengatik, ger-
tatu da hedadura semantiko zabalagoa izatea eta beste hizkun-
tzakoaren kide ez gertatzea. **Teenager** hitzarekin haxe ger-
tatzen da. Etimologiari bagagozkio, **thirteen**-etik **nine-
teen**-era doazen zenbakitzaileei loturik dago (Cf. in one's
teens).

Errusierazko *podrostok* – *podrastajuscij* hitzek ez dute era-
bat hartzen **teens**-aroa, 12-tik 16-rakoa adierazten bait du.

Horregatik hitz desberdinak erabili behar izaten dira itzultzeko, lehengoez gainera *junoša* eta *moloděž'* pluralean.

Arazo berdintsua sortzen zaigu euskarazko *gaztetxo*, *gazte*, *mutil*, *neska* eta abarrekin ere.

Hitzaren egitura semantikoan dauden desberdintasunak dira transformazio lexikalak burutzeraz bultzatzen duten funtsezko arrazoiatariko batzuk. Desberdintasun hauek hitzaren edo hitz-taldearen ezaugarri bereziei loturik egoten dira. Horrela, bada, hizkuntza desberdinetan adieraziz identikoak diren hitzak ez dira absolutuki zentzukideak sekula ez dira erabat bat etortzen. Sarritan bat etortzen da hitz horien lehendabiziko bariante lexiko-semantikoa, funtsezko adierazia, baina gero beste bariante lexiko-semantiko batzuk ematen dira, zeren hitz hauen garapena bestelako bideetatik gertatu bait da. Honen baldintzatzen du hizkuntzaren baitan hitzak desberdin funtzionatzea, desberdin erabiltzea, eta desberdin konbinatzea; gainera ingelesezko hitzaren oinarritzko adierazia errusierazko hitz kidearena baino zabalagoa izan daiteke, edo aldearantziz. Hiztegiek garbi ematen dute fenomeno honen berri. Adibidez, ingelesezko **gloomy** hitzaren bi adierak errusierazko bi hitz desberdinen bitartez ematen dira:

1.- *tëmnyj, mračnyj*

2.- *mračnyj, unylyj*

Beraz, itzultzailea aukera baten aurrez-aurre aurkitzen da.

Mellow adjektiboaren egitura semantikoaren analisisia eginenez gero, berehala ikusten da hitz polisemikoa dela eta gauza eta kontzeptu sail oso zabala kalifika dezakeela: fruituak, ardoa, lurra, ahotsa, gizona. Erabilpen-eremu bakoitzari adierazi zehaztua dagokio. Ingeles-errusierazko hiztegiren bat aztertzen badugu, koma batez banaturik agertzen dira hitz guzti hauek. Argi dago, beraz, bariante lexiko-semantiko bakoitza ez datorrela bat errusierazko hitz bakarrarekin; izan ere, beraren baitan bi sema edo gehiago geratzen bait dira, errusierazko bi hitzez edo gehiagoz ematea eskatzen dutenak.

1.- **Mellow** *spelyj, mjagkij, sladkij, sočnyj* (fruituei buruz).

2.- **Mellow** *vyderžannyj, staryj.*

pryjatnyj na vkus (ardoari buruz)

3.- **Mellow** *podobrevšij, smajagčivšijsja s vozractom* (gizonari buruz).

- 4.- **Mellow** *mjagkij, sočnyj, gustoj* (ahotsa eta koloreei buruz).
- 5.- **Mellow** *rychlyj; plodorodnyj, žirnyj* (lurrari buruz).
- 6.- **Mellow** *veselyj, podvypivšij* (gizonari buruz).

Ia kasu guztietan **mellow** hitzari errusieraz bestelako hitza dagokio, kalifikatzen duen sustantiboaren arabera.

Colour hitzaren egitura semantikoa errusierazko *cvet* hitzaren antzekoa edo oso hurbilekoa da, nahiz eta beronen bigarren adierak (*rmujanec*) errusieraz hitz zehaztaileago bat eskatzen duen: *cvet lica*. Hala ere, **colour** hitza zentzu honetan erabiltzen denean desberdintasuna sortzen da errusierazko *cvet lica* sintagmarekiko.

- She felt the colour rising in her cheeks. (H. Robbins)
- Ona počuvstvovala, čto krasneet (čto u neë krov' prilila k licu).

Oso bide desberdinetatik garatu dira **Brittle** eta *chрупkij* hitzen aldaera lexiko-semantikoak. **Brittle** hitzak gaurreguneko idazle amerikar eta ingelesentzat zentzu berriak hartu ditu; ugari erabiltzen da pertsonaren deskribapenetan sustantiboe kin konbinaturik (itxura, ahotsa, portaera). Adibidez: **brittle manner, brittle temper, brittle tone**.

Adierazi hauek itzultzeko beharrezkoa izaten da dagozkien ordezkapen lexikalak egitea errusieraz: *razdražitel'naja (nervnaja)* etab. erabiliz.

Ikus dezagun beste adibide bat. Ingeleseko **bug** eta errusierazko *klop* (tximitx) bat datoz oinarritzko adierazian, biek zomorro nazkagarria esan nahi bait dute. Hala ere, irudizko zentzuaren edo zentzu eratorriaren garapena bide desberdinetatik gertatu da hizkuntza bakoitzean, konnotazio emozional kontrajarriak sorterazeraino.

Errusieraz *klop* hitzak *nini, mutilkoskor* esan nahi du, eta zentzu maitakor eta positiboa du. Ingelesean, berriz, guztiz negatiboa du: **a big bug, bugging**.

Hitzaren egitura semantikoa eta beronen erabilpen kontestuala

Hitzaren egitura semantikoak aurre mugatu egiten du beronen erabilpen kontestuala, eta hitzaren adierazi kontestuala itzultzeko zailtasun handiak sortzen dira.

Hitzaren adierazi kontestuala hein handi batetan kontestu semantikoaren izamoldeari loturik dago, beronekin semantikoki konbinatzen diren hitzei. Hitzaren adierazi okasionala, ustegabeki kontestuan sortzen dena, ez da izaten hautazkoa edo arbitrarioa baizik eta potentzialki hitz horren egitura semantikoa sorturik egoten da. Poesian eta literatur-prosan, hitza zentzu kontestualean erabiltzen denean, sarritan idazlea hitz horren egitura semantikoaren sakoneraino sartzen da. Horrela, bada, hitzak berezkoak dituen lotura paradigmatico eta semantikoak, eta hitzaren potentzia lexikalak bi kasuetan aurki daitezke. Baina adierazi potentzial hauen aurkikundea estuki loturik dago hizkuntza bakoitzaren berezitasun lexiko-semantikoarekin, eta horretatik sortzen da zailtasun berezia hitzen adierazi kontestuala itzulterakoan; hizkuntza batetan egin litekeena, ezina bait da beste batetan.

In an atomic war women and children will be the first hostages.

Hostage hitzak, hiztegiei bagagozkie beti adierazi bakarra du (*založnik, rehén, bahitu*). Baina ingurune semantiko jakin honetan (*žertva, víctima*) zentzua hartzen du. Adierazi kontestual hau argiro dago berorren adierazi paradigmaticoan: "bahitu bakoitza biktima bihurtu daiteke eta hil".

Interesgarria da **exploitation** hitzaren adierazi kontestuala ondorengo adibide honetan:

Britain's worldwide exploitation was shaken to the roots by Colonial Liberation Movements. (Daily Worker)

Hitzaren adierazi kontestuala metonimikoki sortu zen sistema kolonial guztiak *hustirapen* edo *explotaziotik* sortzen dira, berau bait da botere kolonialaren oinarria.

Errusierazko *ekspluatacija* ez dago adierazi kontestual horretan erabiltzerik; **exploitation** hitzak duen ingurune kontestualak (**worldwide, shaken to the roots**) eragozpenak sortzen ditu horretarako. Itzulpenean aldaketa egin beharra dago transferentzia metonimikoaren laguntzaz.

"Kolonial'noe moguščestvo Anglii..."

Hitzaren adierazi kontestuala beti oso efektu handikoa gertatzen da, nola semantikoki hala estilistikoki ere, ustekabekoa izaten delako. Sarritan helburu estilistikoekin erabiltzen da eta itzultzaileak bi arazori erantzun behar izaten die: nibelazioari ihes egin behar dio eta aldi berean itzulpeneko hizkuntzaren arauak ez ditu hautsi behar.

Adierazi emozionalaren itzulpena

Zailtasun berezia sortzen du adierazi emozionala duten hitzen itzulpenak, ordezkapen lexikalak eskatzen dituztenean. Hizkuntza guztiek izan ohi dituzte adierazi logikoaz gainera emozionalaren jabe ere diren hitzak. Ez da nahastu behar konnotazio emozionala izatea eta adierazi bat baino gehiago izatea (polisemia). Adierazi emozionala sarritan agertzen da hitzaren adierazi paradigmaticoan, h.d., objektiboki, eta ez subjektiboki, adibidez **love, hate, friendship** bezalako hitzetan etab. (Hala ere, ez dira baztertzen erabilpen kontestualaren eragitez hitzari adierazi emozionala sortzen zaioneko kasuak). Hitzaren adierazi emozionala bigarren sematzat, errealitateko gertakari edo fenomeno jakin bati buruzko balorazioa adierazten duen sematzat har daiteke. Balorazio hau positiboa edo negatiboa izan ohi da eta kontestuz eta hautemate subjektiboaz aparteko zerbaite da.

Grief, joy, sorrow, motherland, to smile, to greet, tender, funny, cute, terrifying, etab. bezalako hitzetan badago konnotazio emozionalik.

Baina honelako hitzen itzulpenak ez du zailtasun berezirik itzultzailearentzat, zeren berauen adierazi logikoa konkrettoa bait da muga oso zehatzak bait dituzte bi hizkuntzetan. Oina-

rri kontzeptual zabala eta muga semantiko zehaztu gabeak dituzten hitzen adierazi emozionala itzultzeak sortzen ditu zailtasunak. Hauetakoa da, adibidez, **glamour** sustantiboa eta **glamorous** adjektibo eratorria. Kontestu desberdinetan adierazi desberdin hauek izatera irits daiteke:

distira, bonbonkeria, arrandia, luxua, joritasuna, pintoreskotasuna, etab.

Honelako hitzen itzulpena oso loturik egoten da kontestuari. Ikus adibide hau:

- **R. was captivated by the vulgar glamour and the shoddy brilliance of the scene before him.**
R. byl plenen vul'garnyn bleskom i deševoj roskoš'ju vsego okružajuščego.
(**Vulgar glamour** eta **shoddy brilliance** sinonimoak dira).
- **... who were attracted for the moment by the glamour of the dancer or the blatant sensuality of the woman.**
(... *romantičeskijoreol...*)
- **In her bought arms they caught sight for a moment of the brilliant world of the capitals, and ever so distantly and however shoddily of the adventure and the glamour of a more spacious life.**
(... *i otblesk šikarnoj žizni.*)
- **Hirsch's Richard is not lacking in glamour.**
Facially he is a smiling fallen angel. (The Observer Review, 1973)
[... *ne lišen obajanija* (xarma, erakarmena)]

Adierazi emozionala duten hitzetan une baloratzaille bat dagoenez gero, kontesturik desberdinenetan erabil daitezke. Erabilpen zabalera honek oinarri kontzeptuala hedatzen du eta adierazi logikoa ahultzen, hau da, nolabaiteko dessemantizazioa gertatzen zaio. Horrelakoetan *areagotzaille* bihurtzen dira. Hau garbi ikusten da adjektibo eta adberbioen kasuan.

- **Mr. Heath sorely needs support of the Opposition in the face of the explosion of anger and horror at the shootings in Derry.** (Morning Star, 1972)

Chit krajne nuždaetsja... vzryv gneva i vozmuščenija.

Kasu honetan **sorely** hitzak areagotzaile funtzioa du eta *krajne* hitza baliokide gertatzen da itzulpenean funtzionaltasunari dagokionean, nahiz eta bi hitzen adierazi logikoa planu desberdinetan geratu.

- **Even judged by Tory standards, the level of the debate on the devaluation of the pound yesterday was abysmally low.** (Morning Star, 1973)

(... debaty... prochodili na črezvyčajno nizkom urovne.)

"Nazioarteko hitz" deituak

"Nazioarteko hitzak" derizatzenekin, hau da, itxura berdina izan eta hizkuntza sail batek politika, gizarte eta teknika arloetan erabiltzen diren hitz horiek "sasi-adiskideak" dira itzul-tzailearentzat, zeren eta egitura semantiko desberdina izateaz gainera, erabilpenari dagokionean ere aldeak gertatzen dira eta ordezkapen lexikalak behar izaten dituzte.

- **We are told that BBC television this autumn will give a massive coverage to the General Election.** (Morning Star, 1968)

(... predači Bi-bi-si... budut široko osveščat' parlamentskie vybory.)

Massive hitza *massivnyj* errusierazkoaz itzul daitekeen arren beste adierazi hauek ere baditu: *massovyj* (trinko)

grandioznyj (handios)

ogromnyj (eskeraga)

širokij (zabal)

Adibidez, **massive success** = *ogromnyj uspech*

(arrakasta handia)

massive problems = *važnye (složnye) problemy*

(arazo zailak)

Errusieraz *progress* hitza zentzu estuan bakarrik erabiltzen da, eta ingelesez adierazi askorekin, esanahi nagusia beti "aurreranzko mugimendua" izaki, zentzu positiboan edota negatiboan. Errusieraz zentzu positiboa baizik ez du.

Ikus adibideok:

(—) "A rake's progress" (*Zižn' povesy*)

(+) "The Pilgrim's Progress"

- Her progress about London during that first week was one thrilling adventure. (H. Walpole)
(*Ež znakomstvo c Londonom...*)

Hedadura handiagoko adieraziei dagokienean, nazioarteko hitzek ingelesez askozaz erabilpen zabalagoa dute errusierazko analogoen aldean.

- Never before in the history of the world have there been so many persons engaged in the translation of both secular and religious material. (Nida & Taber)
(... *ne zanimalos' perevodom kak svetskoj, tak i duchovnoj literatury*)

Religioznye materialy esamoldea ez litzateke egokia hemen, beste erabilkera bat bait du. *Usadioak* garrantzi handia du kasu hauetan.

Ikus beste adibide hau, ingelesezko *echo* hitzari :

- Various proposals are being made in Britain with the aim of solving the unemployment problem before winter sets in. Perhaps we should think about an echo of the Civilian Conservation Corps with which Roosevelt drew many young men out of the doldrums. (The Guardian)
[... *nam sledovalo by podumat' o čem-to vrode* (gisako zerbait) *Grazdankogo korpusa po ochrane prirodnyh resursov...*]

Argi dago ingelesezko eta errusierazko hitzak (*echo-echo*) erabilpen desberdinak dituztela. Errusierazkoak entzutezko asoziazioak bakarrik onartzen ditu; eta irudizko zentzuan sarrigiago erabiltzen da *otgolosok* hitza.

Sarritan makur asko egiten da **to see, to feel, to believe**, bezalako aditzak sinonimoki *videt'*, *cuvstvovat'*, *verit'*, hitzen bidez ituliz gero. Errusierazkoek ez bezala, ingelesezko aditz hauek badituzte beste esanahi batzuk ere, batez ere kazetariak erabiltzen dituztenean:

- **The Tories believe they have still more effective methods of keeping wages down.** (Morning Star)
(*konservatory sčitajut, čto...*)

Gauza bera gertatzen da gaztelaniazko *creer* aditza euskaratarakoan.

- **No creo que creas mis palabras.**
- *Ez dut uste nire hitzak sinesten dituzunik.*

"Aditz adberbial" izenekoan itzulpenak ere arazo bereziak sortzen ditu. Berauen egitura semantikoak bi sema izaten ditu: ekintzaren sema eta ekintza horren nolakotasuna ematen duen sema. Aditz hauek gero eta gehiago erabiltzen dira gaur eguneko ingelesean.

- **One rainy afternoon Wade moped about the sitting-room, occasionally going to the window and fattening his nose on the dripping pane.** (M. Mitchell)
(... *Ueid unylo brodil po gostinoj...*)
(*egongelan alde batetik bestera zebilen tristeki Wade*)

He walked out on the edge of the small dock and knifed his way into the water. (H. Robbins)
(*on... prygnul, vrezavsis 'v vodu kak nož.*)
(*Salto egin zuen, labana bezala uretan murgilduz*)

Ingelesez sarritan erabiltzen dira oso esanahi zabaleko hitzak: **thing, point, stuff**, sustantiboak; **nice, fine, bad** adjetiboak; **to say, to go, to come, to get** aditzak etab. Testuin-

guruak ematen dien zentzuaren arabera zehaztu edo konkretatu behar izaten dira itzultzerakoan.

“Adierazi lexikal zehatza, aditz baten aldagai lexiko-
-semantiko jakina, berau osatzen duten hitzen egitura eta edu-
kin lexikalaren baitan dago” (A.A. Ufimceva)

- **At the by-election victory went to the Labour candidate.** (Morning Star)

(... *pobeda dostalas' lejboristam*) – Egokitu, suertatu.

(... *pobedu oderžal kandidat ot lejboristskoj partii*) –
Lortu, eskuratu.

Ingelesezko **to die** aditzak errusierazko *umirat'* aditzak baino erabilpen zabalagoa du eta horregatik zehaztu egin behar izaten da itzultzean.

- **So far 65 people have died in floods in Dacca. Province, East Pakistan.** (Morning Star)

[... *65 človek utonulo (pogiblo)*...] ito, galdu.

Batzutan sustantibo abstraktoek ere konkretizazioa eskatzen dute.

- **An ageing speaker cannot take on the burdens of the presidency.**

(... *vzjat' na sebja bremja prezidentskoj vlasti*) *prezidentstvo*-ren ordez.

- **The Saigon regime used every form of pressure and violence to compel a reluctant electorate to go to the polls.** (Morning Star)

(... *čtoby zastavit' uprjamych izbiratelej prinjat' učastie v vyborach*)

- **Two of the shipwrecked seamen died of exposure.** (Morning Star)

(... *pogibli ot choloda (ot znoja i žaždy)*).

- **It was a good solid house built to withstand time and exposure.** (A. Christie)

(... *protivostojat' dejstviju vremeni i pogody (doždja, sne-ga, vetra)*).

Sustantibo desesemantizatuak

Esanahi edo adierazi ugari dituzten sustantibo batzuk desesemantizatu egin dira. Hala nola: **thing, point, affair, pattern, stuff** etab. Sarritan hitz ordeztaille gisa erabiltzen dira (prop-words) eta itzulpenean alde batera uzten dira.

- **His luncheon was a frugal affair and he dined at night.** (P. Buck)
(*Zavrakal on lëgko*)
- **If the Prime Minister's Guildhall speech made few new points, it was statesmanlike.** (The Times)
(... *ne sodržala ničego novogo*)

Noizbehinka hitz desesemantizatuen bitartez ere itzultzen dira:

- **Elections in Britain in the XIXth. century were a very costly business.**
(... *vybory byli očen' doringim delom*)

Batzutan, konkretizatzerakoan, bi hizkuntzetako hitzen artean desberdintasun kualitatiboak daudela ikusten da. Adibidez:

meal ≠ *trapeza*
limbs ≠ *členy*

Errusierazko hitz hauek ingelesezkoak baino askozaz gutxi-ago erabiltzen dira:

- **"Thank you", said Margaret, feeling large and awkward and clumsy in all her limbs** (H. Walpole)
(... *i ne znaja kuda devat'svoi ruki i nogi*)

Ingeleseztik **child** sustantiboa beronen kide den errusierazko *rebēnok* baino askoz gehiago erabiltzen da. Sarritan sustantibo konkretok itzultzen da (*mal'čik, devočka, syn, doč'*).

- **No one knew what passionate emotion she loved this child** (H. Walpole)
(... *kak strastno ona ljubila svoego syna.*)

Baina alderantzizko kasua ere gertatzen da, ingelesezko sustantibo konkretok kontagarriari errusieraz sustantibo abstrakto ezkontagarria dagokionean eta itzultzeko hitzen bat gehitu behar izaten da pluralean erabiliko dena.

- **A german of fifty-five has seen two wars, two defeats, two terrors, an inflation and three major economic crises.** (The Times)

Transformazio lexikalak eta hitzen konbinagarritasuna

Hizkuntza bakoitzak bere arau propioak ditu hitzak konbinatzeko. Alde batetik, hizkuntz-sistemari loturik daude, eta bestetik, hizkuntz-erolearen berbaldiak duen orijinaltasunari. Hizkuntza guztiek ezin konta ahala konbinazio berri sor ditzakete hizkuntza horretako arauak betez mintzatzen direnek ulertzeko modukoak.

Hizkuntza guztietan dago usadioz finkaturikoa eta ohizkoa den konbinazio-sail bat, beste hizkuntza batetako sail korrespondentearekin bat ez datorrena. Beraz, itzulpeneko hizkuntzan egokiak diren konbinazioak bilatzea eskatzen du horrek.

Hitz konbinatuon funtsa bat etortzen da semantikoki eta irauten du itzulpenean, baina bigarren mailakoa dena sarritan beste adierazi logiko bat izan arren funtzio bera betetzen duen hitzez itzultzen da. Adibidez:

trains runs - *poezda chojat*
rich feeding - *obil'naja pišča*

- **The air was rich with the scent of the summer flowers.** (P. Johnson)
Vozduch byl napoen aromatom letnich cvetov

- **Labour Party protests followed sharply on the Tory deal with Spain** (Morning Star)
(... *nemedlenno posledoval protest lejboristskoj partii*)

Zenbat eta zabalagoa den hitzaren hedadura semantikoa, hainbat eta handiagoa izaten da haren konbinagarritasuna.

Usadiozko konbinazioekin batera ustekabeak ere gerta daitezke hizkuntzaren baitan, baina ulergarriak izaten dira, zeren eta onarturiko konbinazio-eredu semantikoei jarraitzen bait diete.

Fenomeno hau zeharo berezitasun semantiko desberdinen jabe diren hitzen elkarketa hizkuntza guztietan ematen da, bainan pisu espezifikiko desberdina du bakoitzaren baitan. Ingelesean, adibidez, oso erraz eraten dira ustekabeak konbinazio hauek. Hitzaren ustekabeak erabilpen honek zaildu egiten du itzultzailearen egitekoa, zeren ez bait dio beste hitz bati bakarrik erasaten, perpaus osoko gainerako hitz guztiei ere bai sarritan.

- **"Fairly", said Ginger in a voice rich with disinterest.**
(... *otvetil Džindžer, naročito ravnodušnym tonom.*)
- **Madame's white sharp hand rested on Adam's broad knee.** (H. Walpole)
(*Belaja, suchoščavaja ruka madam...*)

Itzulpenean zentzua gorde bada ere, ustekabeak erabilpena baztertu egin da.

Ikus beste adibide hau:

A teacher who leaves a documentary bombshell lying around by negligence is as culpable as the top civil servant who leaves his classified secrets in a taxi. (Daily Mirror)

(*bumagi, kotorye mogut vyzvat' bol'šoj skandal...*)

(*eskandalo handia sortzeko moduko paperak...*)

Usadiozko erabilpena

Hizkuntza bakoitzak usadioz nolako jarrera hartu duen errealtateari buruz eta hori nola aditzera eman duen ere garantzizkoa da transformazioak egiteko.

- **The city is built on terraces rising from the lake.**
(The Times)
(... *na terrasach, spuskajuščichsja k ozeru*)
spuskat'sja = jaitsi

- **He wrote under several pseudonyms, many of his essays appearing over the name of Little Nell.**
(... *očerki pojavilis' pod pseudomimom...*)

- **Margaret Howden in a ball gown of pale mauve lace, above the gown her shoulders bare.**
(*Glubokoe dekol' te obnažalo eë pleci*)

Klitxe izenekoak ere usadiozko erabilpenaren (usage) eremuan sartzen dira: aginduak, errotuluak etab.

- **Never drink unboiled water.**
Ne pejte syroj vody.

- **No smoking.**
Kurit' vospreščaetsja.

- **Commit no nuisance.**
Ostavlivat'sja vospreščaetsja.

- **The New Zealand earthquake was followed by tremors lasting an hour. No loss of life was reported.**
(*Žertv ne bylo*)

- **The Commonwealth countries handle a quarter of the world's trade** (N.Y. Times)
(*Na strany... prichoditsja četvert' vsej mirovoj trgovli*)

Itzulpen kritikaz

Xabier Mendiguren

Itzultzaile Eskolako Zuzendaria

Senez aldizkari honen lehen eta bigarren zenbakietan zenbait itzulpenen kritikak agertu zaizkigu. Ez dut esango hemen aipatzen ziren puntuak bere haietan ongi kritikatuak ez zeudenik. Oro har, laprastada nabarmenak ziren gehienetan, eta zenbaitetan borondaterik hoberenez begiak zuzenduarren ezina gertatzen zaio kritikariari akatsa dagoen lekuan ez dagoela esatea. Nire kezkek ez doaz hortik, beste nonbaitetik baizik. Kritikaren egitekoa ugariago edo bakanago obran zehar ia beti agertzen diren akatsak bildu eta nabarmeneraztea ote da soil-soilik? Bidezkoa al da berrehun-hirurehun orrialdetan barrena zoliena eta arduratsuenari ere itzurtzen zaizkion akats horiek sailean jarri *-Quandoque bonus Homerus dormitat-* eta lan osoaren ikuspegia zuzenketa-lan horretara mugatzea? Bistan dago ezetz. Akatsen zuzenketa kritikaren parte bat da, noski, baina normalean ez luke izan behar bakarra ez eta nagusiena ere, bestela ezina gertatuko bait litzateke itzulpen bakar baten defentsa ere, eta bestalde inpresio deslekutu bat emango luke, zeren eta itzulpena bere osoan irakurtzen duenak sekula ez bait du ateratzen honelako kritika bat irakurrita ateratzen duen ondoriorik. Badirudi, giza legeak berak eskatzen duela edozein kritika egitean lanaren on-gaitzak, argi-ilunak aipatzea eta tamainak ere kontutan izatea, obraren isladapena desitxuraturik gerta ez dadin.

Argi dago kritika beti izan dela zaila eta labana, eta are gehiago oraindik erreferentzia objektibo eta zientifikoak berriak eta urriak dituen itzulpenarena bezalako alor batean. Itzulpenaren zientzia bera, traduktologia, haur-oihaletan badago, zer esanik ez beronen atalik kolokatsuena den hau. Halere, zerbait idatzi da honetaz eta nik uste zerbait iradoki litekeela ildo honetatik.

Itzulpen kritika zer den

Definizio gisako bat eman nahi izanez gero:

"Xede-testua kritikatzeara, era deskribatzailez eta baloratzailez testu hori arakatzeara litzateke, sorburu-testuarekin alderatuz beronen baliakide zenbateraino den jakiteko".

(E. Zierer)

Beraz, aurrena deskribatze-lan xehe eta zehatza burutu behar da ikuspegi inpresionista eta irazeko baten menpean ez geratzeko eta maila desberdinetan burutu ere.

- a) *Edukin semantikoarenean*, informazio-galerarik gertatu den eta zer neurritan jakiteko.
- b) *Edukin pragmatikoarenean*, jatorrizko testuak bere irakurleen artean lortzen duen ondorio komunikatibo bera itzulpenekoak ere lortzen ote duen ikusteko eta zer neurritan.
- e) *Azaleko egitura edo estilistikarenean*. Maila honetan lau bat azpi-geruza berezi behar dira:
 - "langue" maila edo gramatikaltasuna
 - erabiltze-arauen maila edo onargarritasuna
 - arau soziolinguistikoen maila
 - estilo indibidualaren maila

Maila semantikoan XHko osagai lexikoak eta gramatikazko egiturak zenbateraino bat datozen edo pareko gertatzen diren aztertu behar da XHko sistemarekiko eta bide batez zehatz transmititzen duten SHko testuan datorren informazioa.

Demagun frantsesezko perpaus hau: **Jean est arrivé hier** **Juan ha llegado ayer* itzuli duela norbaitek gaztelaniara. Argi dago gaztelaniaren gramatikaltasuna ez duela errespetatu eta *ayer* adberbioari aditz indefinitua dagokiola (*llegó*).

Antzeko zerbait gertatzen da **I have worked in this company for 20 years** ingelesezko perpausa euskaratzean *Hogei urtez lan egin dut enpresa honetan* esaten badut. Izan ere, ingelesezko **I have worked** horrek ez bait du adierazten nire zerbitzuak dagoeneko amaituta daudenik. Beraz, *lanean ari naiz* esamoldea erabili beharko genukë.

Egia da beti ez dela hain erraza gertatzen gramatikaren muga non dagoen jakiten, baina xehekeriatan sartu gabe hizkuntz-gaitasun normalaren jabe denak ez du zailtasun handiegirik izaten oinarritzko arau gramatikalak ezagutzen eta bete diren ala ez antzematen ere.

Maila pragmatikoari bagagozkio, osagai lexikoak gramatikazko eraikuntza eta esamolde edo lokuzioak XHko erabilpen-arauekiko zenbateraino bat datozen eta ados dauden aztertu behar da, jatorritzko testua zer motatakoa den eta zer komunikazio-asmo duen kontutan izanik.

Hemen ez da aski gramatikala den ala ez begiratzea, baizik eta ohizkoa, usadiozkoa den ala ez eta zer neurritan ere begiratu beharra dago.

Esate baterako ingelesezko **The fly stands on the ceiling** linguistikotasun gordinean **Eulia zutik dago sabaian* itzuli beharko litzateke, errusierazko **Mucha sidit na potolke** **Eulia eserita dago sabaian* itzuli beharko litzatekeen bezalaxe. Baina erabilpen-arauek ez dituzte onartzen bi esamolde horiek, nahiz eta gramatikalak izan; usadioak *Eulia sabaian dago* finkatu bait du euskararen baitan.

Eta euskaldunontat, funtzio pragmatikoari dagokionez, ez du zentzurik beste hizkuntza horietako *zutik* edo *eserita* egote-ari buruzko informazioak.

Alemanieraz, adibidez, **das Buch ist auf dem Tisch** izan, gramatikala da, baina usadioz **das Buch liegt auf dem Tisch**, *Liburua mahai gainean dago (datza)* erabiltzen da.

Die Blumenvase ist auf dem Tisch ere gramatikala da baina erabilpen-arauek beti **die Blumenvase steht auf dem Tisch** esamoldea hobesten duten arrazoi berberagatik.

Funtzio ilokutibozko adierazpideen itzulpenean ere erabilpen-arau edo usadioak eskatuko luke **Fasten your seatbelts** alemanierazko *Bitte anschnallen* gisa itzultzea.

Maila honetan garrantzi handikoak gertatzen dira *denbora, lekua, topikoa, testuinguru kulturala* eta hizkuntzaz kanpoko beste zenbait kategoria. Adibidez, ez dute balio berdina esamolde berek hego-amerikar baten eta espainiar baten ahoan, ezta ipar-amerikarraren eta britainiarren ahoan ere, brasildarraren eta portugaldarraren ahoetan ere aldeak dituzten bezala.

Arau sozio-linguistikoen eremura jotzen badugu, berriz, hemen ere aztertzea komeni da xede-testuko eraikuntza gramatikalak, osagai lexikoak eta lokuzioak zenbateraino datozen bat *erabilpen-arauekin* gizarte-geruza eta -rolei dagokienean.

Jatorrizko hizkuntzan agertzen den trataera nola eman behar da hizkuntza hartzailean? Ingeleseko **you** eta gaztelaniazko **Vd.** eta **tú** tratamenduek zer eskabide dituzten euskarazko *zuketa* eta *hiketa* erabiltzerakoan eta abar aztertu behar dira puntu honetan.

Ingeleseko "understatement" (eufemismoa) delakoa zenbateraino dator bat euskarazko usadioekin?

E. Nidak Bibliaren itzulpenean dela-ta bildu duen esperientzia aberatsak erakusten duenez, hizkuntza hartzailean sozio-linguistikoki berezgarriak diren adierazpideak erabili ezean *komunikazio-ondorioa* motelagoa eta eskasagoa gerta liteke.

Eta azkenik, *norbanakoaren estilora* edo idazkera indibidualera jotzen badugu, berrikuntza edo orijinaltasun estilistikoak adierazteko zer moduzko bitartekoez baliatu den itzulzailea aztertu eta neurtu behar du kritikariak. Jakina denez, baliabide hauek asko aldatzen dira testu-tipo eta klasearen arabera. Adibidez, G. Garcia Márquez-en **El Coronel no tiene quien le esriba** nobelaren itzulpena alemanierara egin duen Curt Meyer-Clason, nire eritzian errazegi aldendu da jatorrizkotik, esamoldeen indarra motelago eta usadiozkoagoen bitartez emanez.

Hona adibide batzu:

Masticó oraciones ≠ *leierte sie Gebete*

Una cigarra instaló su pito en el patio ≠ *Im Innenhof begann eine Grille zu zirpen*

Siguió sabiendo el café en las pausas de su respiración pedregosa ≠ *Sie schlürfte den Kaffee zwischen rauhen Atemzügen*

La vegetación que reventaba en verdes intensos ≠ *Das üppig wachsende Grün...*

Argi dago ez dela batere erraza hizkuntza batetik bestera esamolde poetiko edo berri hauek egoki aldatzea eta subjektibismoren beste edozein alderdi baino isuriago dagoela hau. Harelere, ahalegin serio bat egin ezik iruzur egiten zaio jatorrizkoari.

Itzulpen kritikaren helburuak

Itzulpen-kritikak, beste edozein kritikak bezala, aztertu eta baloratzen den obra eta jeneroen kalitatea hobetzea duela helburu nagusia esango genuke, baina aldi eta era berean beste helburu garrantzitsurik baduela ere aitortu beharra dago.

Sistematikotasun eta zehaztasunez buruturiko kritika baten itzulpenaren alderdi desberdinak sakontzen dituen neurrian, idea eta orientabide baliagarriak eskaini liezazkieke itzulpen-praktikari eta didaktikari.

Bestalde, itzulpenaren baloratze orokorra bere osotasunean egiten duen kritikak laguntzea handia eskaini diezaike argitaletxei beren itzulpen-politika finkatzen eta gorpuzten.

Eta azkenik, kritikariak beti izango du irakurleen begiak zabalerazteko erantzukizuna itzultzaileak bere lanean nahita edo nahigabe egin ditzakeen manipulazioen aurrez-aurre.

Kritikaren arazoak

Esan beharrik ez dago norbanakoa bakoitza eta errepikaezina den heinean, beronek egindako itzulpenak ere indibidualtasun-kutsu nabarmena duela, testu konnotatibo eta poetikoei dagokienean batipat.

Eta oso zaila da, egia esateko ezina, kritikaria eta itzultzailea gaitasun edo konpetentzia hermeneutiko beraren jabe ger-

tatzea SHko eta XHko testuen artean izan litekeen baliokidetasun-maila finkatu eta epaitzerakoan.

Bestalde, ez da pentsatu behar xede-testu bakarrik dagoenik jatorrizko testuaren bertsio hoberentzat jo litekeenik.

Jatorrizko testuak kritikariarengan sortzen duen komunikazio-ondorioak badu eraginik xede-testuak sortzen dion ondorioan, baldin eta jatorrizkoa alde zuzenetik irakurria baldin badu. Distortsiozko ondorio hau ez da gertatzen xede-testuaren hartzailearengan edo itzulpenaren irakurlearengan, zeren normalean ez bait du irakurtzen jatorrizkorik eta berak jasotzen duen informazio guztia xede-testuaren bitartez hartzen bait du.

Kritikaria jatorrizko testuaren hartzaileen artekoa gertatzeak edo ez gertatzeak ere izan lezake distortsiozko ondoriozkoak, batez ere testu adierazkor eta eragilearen itzulpenari dagokionean. Gainera, ez da ahaztu behar sorburu-testu gehienak ez direla "puruak" izaten.

Azkenik, autoreak, sorburu-testuaren egileak, eta itzultzaileak, xede-testuaren egileak, nor bere aldetik duen sormena edo kreatzailetasuna nahastu ordez ongi berezten ahalegintzea da kritikariak ardura handiz burutu behar duen zereginetako bat eta guzti honek, konplexutasun handiko eta objektibitate/subjektibitate maila desberdinetako epaiketak egitea eskatzen du itzulpen-kritikak.

Hemen ere, harako hartan bezala, Karibidiseko muturra jota ez gelditzea komeni da baina, handik ihesian gabiltzala, Eszila zirimolatan galdu gabe.

Beraz, norbaitek itzultzaileari "ezinaren maitale" deitu badio itzulpen-kritikaria "ezinagoaren maitale" dela aitortu beharko genuke.

SINTESIS

El presente artículo intenta fundamentar las bases sobre las que se debe sustentar una crítica equilibrada de la traducción, sobre todo la crítica de la traducción literaria. Toma pie para ello en diversas críticas de traducciones literarias, un poco impresionistas y bastante puntuales todas ellas, publicadas en estas mismas páginas, en números anteriores, y trata de orientar la crítica en general, haciéndola partir de fundamentos más científicos y globales, que pueden ser proporcionados por la teoría de la traducción.

Según el articulista, la crítica de la traducción debe contemplar tres niveles de equivalencias entre el texto original y el traducido: a) equivalencia en el contenido semántico, pues no debe existir pérdida de información; b) equivalencia en el contenido pragmático, para que el texto traducido logre el mismo efecto comunicativo que el original, y c) equivalencia de nivel estilístico, en el que el articulista distingue cuatro subniveles: la gramaticalidad, la aceptabilidad, las reglas de uso sociolingüístico y el estilo individual.

El articulista expone, después, los fines que debe perseguir una buena crítica de la traducción: orientación del público consumidor y del esfuerzo editorial, y termina subrayando las grandes dificultades con que siempre se va a encontrar la crítica de la traducción literaria, dado, sobre todo, que el crítico está necesariamente condicionado por la lectura previa del texto literario original.

SYNTHESIS

The present article may be considered an attempt to establish the basis upon which a balanced criticism of translations, and more especially literary translations, can be made. Rooted in several reviews of literary translations, all of which were, incidentally, a little impressionist and imprecise and which have been published in these same pages in recent issues, it is an attempt to orientate criticism in general, giving it a more scientific and global basis, one supplied by the theory of translation.

According to the writer criticism of translations should take into account three levels of accord between the original text and the translated text. Firstly, accord in the semantic content, in case of a loss of information. Secondly, an accord in the actual content, so that the translation has the same communicative effect as the original, and thirdly accord on a stylistic level. The author divides this last point into four sub-headings a) grammatical approximation b) acceptability c) the use of socio-linguistic rules and d) individual style.

The writer afterwards expounds the objectives by which a good review of a translation should be guided: the orientation of the public in general and an effort on behalf of the publishers. He ends by underlining the great difficulties with which critics of literary translations are always going to be confronted, given the fact that the critic is always conditioned by his previously having read the original literary text.



Itzulpena eta testuen interpretazioa

The nature of translation liburutik, Edwad Balcérgan-en **La traduction, art d'interpréter** eta Josef Čermák-en **La traduction du point de vue de l'interprétation** artikuluetan oinarri harturik.

Koro Zumalabe

Arazo honen azterketari ekin nahi diogunean, lehendabizi gogora etortzen zaigun auzia testu artistikoen eta ez-artistikoen itzulpenen arteko diferentziarena da. Testu ez-artistikoen jatorrizkoarekiko leialtasuna ezinbesteko baldintzatzat onartu ohi da, eta testu artistikoetan leialtasuna, hots, testuaren "teneur"-a gorde beharra, balantzaren alde batean ikusten da, eta balantzaren beste aldean, arrazoi kreatiboengatik egingo litza-tekeen jatorrizko testuarekiko traizioa. Testu artistikoetan, beraz, balantzaren bi besoen existentzia onartzen da, iritzien arteko diferentziak alde bakoitzaren garrantzi desberdinean eta oreka-puntua ezartzearen zailtasunean bilatu behar dire-larik.

Lehen hurbilpena dela esan daitekeen hori, ordea, ikuspuntu psikologiko eta etikoetan oinarritzen da, problemak, aldiz, itzulpen-prozesuaren lege objektiboetatik sortzen diren bitartean, eta bide honetatik joan behar du, baliagarri izango bada, eskuartean darabilgun arazoaren analisiak.

Itzulpen-prozesuaren legeak zeinu-sistemaren eremuan kokatzen dira, eta lehen enuntziatu bat honela egin genezake. Edozein itzulpenetan ematen da -artistikoa izan nahiz ez izan-:

1. Zeinu-sistemaren "desplazamendua".
2. Testu-zatien transformazioak (mozketa, luzapen, ordenaren nahiz elementuen aldaketa...).
3. Neurri batean edo bestean, interpretazioaren fruitu izatea, intepretazioak bi aldi dituelarik: Jatorrizkoaren deskonposaketa eta testu berriaren konposaketa, eta bi pauso hauek ematerakoan sortzen da elementuen balioen arteko hierarkia berria.

Azkeneko puntu honetan kokatzen da gure arazoa, eta beraren azterketa sakonagoak emango digu testu artistikoen eta ez-artistikoen arteko mugaren berri garbiagoa.

Alde batetik, hizkuntzaren planoan ematen den interpretazioa dago, H_1 hizkuntzatik H_2 hizkuntzara pasa-bidean H_1 eta H_2 hizkuntzak direnak direlako, beren aberastasun guztiekin, sortzen den interpretazio-beharra. Hau bai testu artistikoetarako eta bai ez-artistikoetarako ere. Hemen bereziko ditugu interpretazioa maila linguistikoa (hertsiki kontsideratuz) eta maila estilistikoan, hizkuntzaren azpi-sistemak, ohitura terminologikoak eta abar, hizkuntzaren eremuan bait daude.

Eta beste aldetik, tradizio literarioaren planoan ematen den interpretazioa. Hau ez da testu ez-artistikoetan ematen, bai ordea artistikoetan, hauek beti bait daude bi *hizkuntzatan* idatziak, hizkuntza naturalean, alde batetik, eta jatorrizko testuaren zibilizazioko tradizio literarioan bestetik. Horretaz, itzulpena egiterakoan $H_1 \rightarrow H_2$ maila ezezik, $T_1 \rightarrow T_2$ maila agertzen da.

Eman diezaiogun, bada, interpretazioari begiratu bat maila hauetan, banan-bana.

Interpretazioa maila linguistikoa

Maila honetan itzultzailea jatorrizko testuaren baliokiderik egokienak bilatzen saiatzen da, baina badira beti hitz edo adierazpen itzulezinak, H_1 eta H_2 -ren korrelazio faltagatik gertatzen direnak. Honelakoetan irtenbide bakarra hizkuntzaren eremutik atera eta errealtatera joatea da. Adibide gisara aipa dezagun P. Neruda-k "Canto General"-en **las mariposas de Muzo** idazten duenean, *Muzo tximeleta urdinak* itzuli beharra dagoela, zehaztuz, eta **jacarandá** dioenean *jacarandá zuhaitz morea*, zeren eta pinpilinpausa horien kolorea eta arbola

hauen loreena hitzekin loturik bait daude poetarentzat, eta ezezagunak bait dira gure irakurlearentzat.

Itxuraz, hau interpretazio alinguistiko edo estralinguistikoa litzateke; itxuraz soilik, ordea. Errealitatera joate hau linguistikoa da, hain zuzen, testua zeinu linguistikoa bezala hartzen delako, testuak izendatzen dituen objektu errealetaraino joanez, eta enuntziazioaren egiazkotasuna errealitatean aztertuz, literaturatik kanpo. Kasu horietan hizkuntza komunikabide huts bihurturik geratzen da, testu zientifiko edo informaziozkoetan gertatzen den bezalaxe obra literarioetan ere. Zuzena da, beraz, interpretazio hori interpretazio linguistikoa dela esatea.

Interpretazio linguistikoa obra literarioen itzulpenean erabiltzea itzulezintasun objektiboa gainditzeko ahalegina da, zilegia beraz, baina puntuala: ez du metodo iraunkor bihurtu behar.

Interpretazioa maila estilistikoan

Itzultzaileak H_1 -eko testua H_2 -ra pasatzerakoan, jatorrizko testuaren estiloa, hizkuntz mailak -lexikoan nahiz fraseologian- H_1 -eko ohitura terminologikoak, argot eta dialektoak, eta, orohar, jatorrizko hizkuntzan dauden ohiturazko erabile-
rak kontuan hartu beharko ditu, eta ordainak bilatzeko H_2 -ren potentzial estilistiko guztia eskutan dauka.

Halere, soluzioak ez dira beti jatorrizko figura estilistikoaren baliokideen bidez ematen ahal, sarritan H_2 -ren logika, ohitura estilistikoak jarraitzen dira. Eta, batez ere, itzulezintasunaren eraginez komunikazioari indar eman zaionean balio artistikoaren kaltetan, orduan biziagotzen da interpretazio estilistikoaren beharra.

Bestalde, itzulpenak H_2 -ko literaturan parte hartu nahi badi, itzultzaileak bere asmaketa erasten dio obrari.

Interpretazio-mota honen adibide gisa, gero tradizio literarioaren mailako interpretazioa azaltzeko aukeratu dugun nobelatik har ditzagun esenplu batzuek. Nobela Bruno Jasiński idazle poloniarren *Pale Paryż* da (*Paris-i su ematen diot*), Varsobian poloneraz argitaratu eta zenbait hizkuntzatarara itzulia izan ondoren, idazleak berak urte batzuren buruan, 1934an, errusieraz emana.

Jatorrizko testuko zenbait elementu galdu egiten da, hala nola:

- retruekanoak: poloneraz, **oko/okno**; errusieraz, *oko/glaz* poloneraz, **cierpki, cierplivy glód**; errusieraz *mnogoterpelivyj golod*
- jatorrizkoan eduki bikoitza duen hitza erabiltzen den bitartean: **rubaszka**, errusierazko itzulpeneko *rubaskach* hitzak ez dauka aberastasun hori, poloneraz normalean *kożula* erabiliko bait litzateke, eta hitz hura aukeratzean soldadu heroikoek beren jantziari emango lioketen izena hartzen bait da.
- Polonerazkoan leit motiv baten papera jokatzeko duen hitza **obraz** errusieraz zenbait sinonimoetan barreiatzen da, *obraz, kartina, videnie*, hala komunikazio-gaitasuna gehituz, baina originalaren ardatz estrukturala galtzen dela.

Aurreko adibideek, estilistikaren aldetik, jatorrizko testuaren pobretze bat badakarte ere, badira aberasten duten elementuak, horrela oreka hobeto lortzen laguntzen dutenak, adibidez:

- poloneraz juduak izendatzeko **żyd** izenaren parean, errusieraz bi erabiltzen dira: *evrej*, karga emotiborik gabekoa, eta *żid* mespretxu-karga duena. Hura narratzaileak erabiltzen du eta baita Solomin pertsonaiak ere begiko dituen juduez ari denean, jendeak, berriz, *żid* erabiltzen du eta baita Solominek ere, salbuespen diren kasu haiek ez beste guztitan, oro har, juduei gorroto bait die.

Interpretazioa tradizio literarioaren mailan

Interpretazio linguistikoak eta estilistikoak ez dute obra osoaren izaeran garrantzizko eraginik. Jatorrizko obran zehar puntualki, zatika, hemen eta han sakabanaturik egindako esanahi-aldaketak ez dira sistemaren (tradizio literarioaren zentzuan) joera nagusietan nabarmentzen. Nolabait, hizkuntza naturala bere osotasunean sistema bat bada ere, bere izaera zabalegia da, aberatsegia, obra literario baten egitura nagusia aldatu ahal dezan. Aldiz, tradizio literarioaren hizkuntza (T) erabat aldatzen denean, T₁ eta T₂ zibilizazio arrotzen tradizioak direnean, edo obrari bestelako tradizio literario bat inpo-

satzen zaionean, obra osoaren "berrinterpretazioa" dago, eta obra itzuliak jatorrizkoarekiko oso zentzu desberdina izan lezake.

Horixe egin zuen, hain zuzen, Bruno Jasiński-k berak 1934-ko errusierazko bertsioan, $H_1 \rightarrow H_2$ itzulpen bat ezezik, $T_1 \rightarrow T_2$ itzulpena ere egin bait zuen, arte futuristaren korrontean bete-betean sartzen zen obra errealdismo sozialistaren sistemara pasatu zuenean.

Ikus dezagun zehatzago:

Jatorrizko bertsioan, Pierre Parisen erabat galdurik aurkitzen da, bertako bizi-legeak ulertu ezinik, eroturik, eta Paris suntsitu nahi du. Hirirako ura bonbeatzen duteneko gordailuak izurri-baziloz pozointzen ditu, eta horren ondorioz sekulako iskanbila sozialak sortzen dira..., zoriak hala nahita, gartzelako ura ez da kutsatzen, presoak kalera irtetzen dira, errepublika komunista txinoa antolatzen dute Sena hibaiaren ezker aldean, horiek zuriak izurri-kutsatzailatzat hartu eta hiltzen dituztelarik, irrati eta telegrafo-sarea bereganatzen dituzte, hala garaipen ideologikoa lortzearen Frantzia eta Europa.

Arte futuristaren zeinu diren elementuak zentzu ematen diote nobelari. Horien artean aipa ditzagun:

-Informazioari energiari baino garrantzi handiagoa ematen zaio, hala, hasieran ur-sistema izan arren hondatzen dena, informazioaren kontrola da, bukaeran, errepublikaren helburu nagusia.

-Ero batek aldakuntza iraultzaileak erakar ditzake.

-Maitasuna, maitasuna denagatik tratatzen da, funtzionaltasunik gabe, eta berdin heriotza. Aipa dezagun, gero aldaketa hobeto ikusteko, nola P'an Tseng-kuei-ren maitateak, bere buruaz beste egin baino lehen hari idazten dion gutunean esaten dion: **A! ze beldurra ematen didan heriotzak!**

-Fantasia.

Horrela idatziriko obrak, ordea, Polonia-ko prentsa komunistaren aldetik kritika gogorrek jaso zituen, alegia:

-Iraultza proletarioaren ikuspegi "mistiko-apokaliptikoa" eskaintzen zuela.

-Gizarteko antagonismoen funtsezko motibaziorik eza.

-Erotismo izugarria.

Errealismo sozialistak fikzio literarioaren oinarri ziren legeak mundu errealearenak berak izatea (monosemia) eskatzen zuen, beraz: gizarte-gatazkak produkzio-moduaren kontraesanen ondorio direla agertzea, produkzio-indarren (eta energi iturrien) garrantzia zalantzan ez jartzea, traszendentziari hegalak moztea...

... Eta errusierazko bertsoan:

- Pierre ez da eroa, Frantzia inperialistaren gobernuak erabiltzen duen agente itsu bat baizik. Pierrek ez du Paris suntitu nahi, gobernuaren aginduz kutsatzen ditu urak, eta hori egiteagatik, hain zuzen, energi baliabideen sabotaia egiteagatik, langileek hil egiten dute.
- Nazionalitateen arazoa beste era batera tratatzen da: horiek zuriak hiltzen dituzte, baina ez denak, faxistak besterik ez. Errepublika berriko komisariaren aginduetara makurtzen direnak gera daitezke.
- Maitasuna eta heriotza ez dira hutsaren truk ematen, P'an Tseng Kuei-ren lagunaren hil aurreko esaldia hau da orain: *A! Bai gogorra gure garaipena ezagutu gabe hil beharra! Laster lortuko da, ziur nago. Dena hobea izango da orduan.*

Galde daiteke ea 1934eko errusierazko bertso honen arazoa itzulpenaren eta interpretazioaren esparruan kokatzen den ala ez, baina nolana ere, garbi esan behar dugu $H_1 \rightarrow H_2$ eta $T_1 \rightarrow T_2$ biak sartzen direla itzulpenaren esparruan. Izan ere, nahiz eta gehienetan $T_1 \rightarrow T_2$ -k ez duen adibidean daukan erradikaltasuna hartzen, beti darama berekin gaiaren ikuspuntu bat. Gehien ematen den maila honetako interpretazioa laburpena izan ohi da.

Bi hitz bukatzeko:

"Itzulpenean interpretazioa egiteari kritika egin dakiok. Galde daiteke, interpretazioa zer da: itzultzailearen hutsa ala pribilegioa? Galdera honi ezin zaio erantzun garbi bat eman.

Batez ere, ezin dira interpretazio-prozedurak errazegi baztertu, zeren, alde batetik, jatorrizkoaren zentzua (esanahia) faltsetzen badute ere, interpretazioaren artea literatura nazionalaren garapenean parte hartzen duen kreaio bezala kontsidera erazten bait dute, hots, kreaio originalarekin batera, nazio-literaturaren garapenean arduradun eta beraren balioren sortzaile".

Itzulpen prozesuaren sakonketa linguistikoa

A.D. Švejcer

(K probleme lingvističeskogo izučeniya processa perevoda, Voprosy Jazykoznanija, 1970, 4. z.)

Xabier Mendigurenek errusieratik euskararatua

Gero eta hizkuntzalari gehiago ari dira itzulpen prozesuan sortzen diren arazoak aztertzen. Itzulpen automatikoaren eremuan egindako estudioak izan dira hizkuntzalarien ardura eta interesa alor honetara zuzendu dituztenak. Itzulpen automatikoaren teorikoei aurkitu dituzten zailtasun eta eragozpenek garrantzi handia izan dute, zeren eta berauek gainditu ahal izateko gizonak burutzen duen itzulpenaren mekanismoak gero eta sakonkiago arakatu behar izan bait dituzte. Metodo estrukturo-formalak erabili izan dira gehienbat alor honetan. Adibidez, Revzin-Rozencveigen "**Osnovy obščego i mašinnogo perevoda**" (Moskva, 1964) obran, itzulpen egintza desberdinak analisi egituraleko "metodo objektibo zehatz"en bitartez aztertzeko moduko sailetara mugatzen ahalegindu dira autoreak. Hain konplexua eta kontraesankorra den fenomenoak jakinaren gainean sinplifikatzeak kritikak sorteraiziko dituelakoan, zientziaren baitan ezaguna den printzipio hura aipatzen dute: "soiletik konplexura". Hala ere, zera esan behar da, sinplifikazio orok badituela bere tolerantziatzko mugak eta fenomeno konplexu eta askotarikoa bere forma sotilen eta oinarrikoenetara erreduzitzea legezkoa eta onargarria bada ere zientzi analisiaren une jakin batetan, nekez egon daitekeela ados

horrelako sinplifikazio batekin fenomeno horren baitan funtsezkoak diren alderdiak bertan behera uzten direnean.

Beraz, inola ere ezin onar daiteke itzulpen arazoan izaera azaltzeko sortzen den itzulpen prozesuaren eredurik, haren baitatik egoera errealekiko edo errealtatearekiko erreferentzia bezalako puntu garrantzitsuren bat baztertzeko badu.

SHko testuaren baliokide den testu bat HAan sortzen bada giza egintzaz, itzultzailearen aurretiko esperientzia edo errealtatearekiko erreferentziarik gabe itzulpen hori ulertu nahi izatea, giza jardunez egindako itzulpen prozesu guztiei buruz dakigunaren aurka dago.

Beraz, alde aurretik ezarritako erregelen arabera eta errealtatearekiko erreferentziarik gabe eta itzultzailearen esperientzian edo pertzepzioan isladatzen den eta datu ezlinguistikoko sorta bat suposatzen duen interpretaziorik gabe egiten dena benetako itzulpentzat hartzeak ezin liezaioko probetxu handirik ekar itzulpen prozesuaren azterketa linguistikoa.

Alderdi linguistikoen eta ezlinguistikoen batasun organiko eta ezinbanatuzkoa da gizonak burututako itzulpenaren ezauzgarri nabarmenena.

Lege estrukturo-formalen analisisian soilik oinarritzen den metodoak ez du balio giza-itzulpenaren baitan gertatzen den faktore linguistikoko eta ezlinguistikoen elkarreragina agerian jartzeko, eta hau bere-berea du itzulpen ez-automatikoak.

Itzulpenaren alorrean diharduten espezialistek "itzulpena/interpretazioa" dikotomia sasikotzat jotzea ere ez da arrazoirik gabe gertatu, eta "errealtatearekiko erreferentzia (interpretazioa) bizian egiten den edozein itzulpen-jardunek derri gorrezkoa duela" adierazi dute.

Itzulpenak orokorki harturik dituen arazoak lantzean itzulpen automatikoaren sailean egindako estudioen aurreratze onuragarria aipatzen dugularik, itzulpen teoriako kontzeptu-sail bat zehazteaz gainera, itzulpena komunikazio-prozesu bezala ikastera bereziki bultzatu duela gertakari honek aitortu behar da. Hain zuzen ere, korrespondentzia erregularren "usadiozko" teoriaren funtsezko akats ugari nabarmenerazten lagundu du estudio honek.

Itzulpen eskola sobietarreko ordezkari entzutetsuek beren lanetan mamitu duten korrespondentzia erregularren teoriak eragin nabarmena izan du eta oraindik ere badu itzulpenaren teoria linguistikoa baita eta beronen irakaskuntzan hiz-

kuntz disziplina den aldetik. Izan ere, teoria hau itzulpenari buruzko metodo eta eskuliburu gehienek hartu bait dute oinarritzat.

Teoria honen alderdi positiboa begi bistakoa da: baliokidetasunari buruz sarritan eskaini ohi ziren iritzi lauso eta subjektibismoz kutsatuen ordeztu, berau izan zen lehenengoz itzulpen arazoa abiaburu linguistikoen argitan tratatzea proposatu zuena.

Teoria honen jarraitzaileek lortutako jeneralizazio ugari eta baliotsuak itzulpen automatikoari buruzko lanetan jasoak izan dira.

Hau honela izanik, bestalde, jatorrizko hizkuntzaren eta hizkuntza hartzailearen arteko korrespondentzia erregularren formulazioaren oinarrian aurkitzen den abiaburu teorikoaren ahulezia ere agirian jarri da. Nola kategoria formaletik, hala datu objektibotik abiatuz (hitz-tipo, hitz-konposizio eredu, hitz-sorta edo subjektu jakin bat duten perpaus-moeta batetatik) egiten den analisi konparatiboa da funtsean, zeinaren bidez ikertzaileak mugatzen bait du adierazia hizkuntza batean eta bitarteko formalen bitartez adierazten ondoren bestean (hitz berdina edo antzerakoez, hitz andana kidetsu edo desberdinez, perpaus bakun edo konposatuez...). Testuinguruak duen garrantzia haintzakotzat hartzen bazuten ere, eta itzuli behar den testuaren berezitasun funtzional eta jenerozkoak kontutan edukitzea nahitaezkoa dela aitortu arren, "hizkuntz unitate batetatik beste hizkuntz unitate batetara" dabilen metodo konparatiboa da oraindik ere korrespondentzia erregularrei buruzko estudioetan lehen postuari eusten diona. Argi baino argiago ageri da hau, lehen aipatutako A.V. Fedorov-en obran, non *"Itzulpen hizkuntzan erantzukide formalik ez duen osagai gramatikaren funtzioaren bihurpena"* titulupean *"Izenordain pertsonal zehaztugabeekiko eraikuntzen bihurpena"* etab. bezalako gaiak erabiltzen dituen.

Bat gatz J.J. Revzin eta V.J. Rozenveig-ekin aipaturiko metodo honek konparatutako unitateen artean berehalako baliokidetzat bat ezarri nahi duela aitortzen dutenean, zeina hiztegi elebidunetan erabiltzen den prozedura bait da. Korrespondentzia erregularrezko teoriaren askieza, batez ere, honetan datza: bai abiapuntuko testuaren analisi fasean eta bai testu hori beste hizkuntza batetan sortzean elkarrekin erlazionaturiko osagaiezko konposizio hutsa baino zerbait gehiago dela

itzulpena ez estudiatzean edo behar adina ez kontutan hartzean.

Are gehiago, metodo honek maila desberdinetako unitateak (morfologikoak, sintaktikoak, lexikalak) berezian edo aparte tratatzen ditu, itzulpen prozesuan jakina bada ere, abiapuntu-ko materiala eta azken sorkaria ez direla unitate linguistikoak baizik eta diskurtsuzko obrak, zeintzuetan maila desberdinen influentzia, elkarreaginean, inola ere ezin banatuzko batasun bilakatzen bait da.

Honezaz gainera, erantzukide erregularren metodo honen beste akatsetariko bat beronen izate estatikoa da, zeren garrantzi handikoa bait da itzulpen teoria bat eraikitzerakoan, prozesu honen izate dinamikoa agerian jartzea. Bestetara esateko, ez da aski prozesuaren hasera gunea emaitzarekin konparatzea. Funtsezkoa da emaitz hori nola lortu den galderari erantzuten jakitea. Galdera honi ematen zaion erantzuna sarritan orokorregia izan ohi da eta terminu logikotan formulatua (konkrezioa, jeneralizazioa etab.) behar adinako oinarri linguistikorik gabea, eta bestalde, sorburu-testuko unitateak itzulpen testukoekin konparatzean adierazten da.

Itzulpena "zeinu linguistikoan mailan" egin daitekeelako hipotesia beste lan batzutan ere aurki daiteke, zeinen autoreek erabat onartzen bait dute itzulpen-prozesuan ez unitate linguistikoan mailan, baizik eta diskurtsuzko sorkarien artean erlazio baliokideak ezartzen direlako. Honela dio, adibidez, L.S. Barchudarov-ek: "Hizkuntzabarneko transformazioek ez bezala... itzulpeneko transformazioek ez dute unitate linguistikoan aldaketarik suposatzen, diskurtsu-sorkariena baizik" baina beste lan batetan "hitz, morfema eta, areago, fonema mailako itzulpenaz" dihardu, eta honako adibideak eskaintzen ditu: **lady** (ingeleseaz) *ledi* (errusieraz) - "Fonema mailako itzulpena". **President** (ingeleseaz) *predsedat'* (errusieraz) - "Morfema mailako itzulpena".

Lehen adibideri bagagozkio, eta transliterazioa itzulpentzat harturik, kasu honetan argi dago hitz hori behinola imitazio-prozesu batean transliteratua izan zela baina aurrerantzean ez zela behin eta berriro transliteratzen, baizik eta itzultzaileek unitate prestatu gisa erabiltzen zutela, eta bigarrenez eta garrantzitsuago dena, itzulpenean, hain zuzen, aldaera (barriante) hau hautatzea, hots, *ledi* eta ez *dama* (cf. a great lady) "znatnaja dama", "žena" (cf. Give my best regards to your

lady) o "bogorodica" (cf. **Our Lady**) obra bakoitzak duen diskurtsu-testuinguruaren arabera erabakitzen da, eta ez da posible bestetara egitea.

Orobat esan behar da bigarren adibideari dagokionez. Argi dago inork ez duela **president** morfemaz morfema (**pre-sid-ent**) [*pred-sed-atel*] itzultzen, baina era berean, hain zuzen bariante hau hautatzea, "*predsedatel*" eta ez "*prezident*" (cf. **The President of the United States**) eta ez "*rektor*" ere (cf. **The President of a University**) diskurtsu-testuinguruaren baitan dago. Lege hau hitzen formazioan ere betetzen dela erakusteak ez du neke handiegirik eskatzen.

Itzulpenaren baitako arazo linguistikoaren funtsa, diskurtsuaren mailan hizkuntz baliabideak aktualizatzean datzala, hizkuntza mailan zeinu linguistikoaren alderdi semantiko-funtzionala bat ez datorren bitartean, dio arrazoiz O. Kadek. Bestela esanik, baliokidetasunezko erlazioak ez dira zuzenik SHko zeinuaren eta XHko zeinuen artean ezartzen, baizik eta SHko zeinua - testuinguruaren eta XHko zeinua - testuinguruaren artean, hau da, diskurtsu sorkarien artean.

Esanak esan, holako edo halako mailatan hizkuntzarteko korrespondentziak aurkitzearen bidez soilik itzulpenaren teoria orokor bat eraikitzea ahalgarria ote deneko auzia sortzen da. Hau honela izango balitz, zertan legoke gramatika konparatiboa, semasiologia konparatiboa eta estilistika konparatiboaren arteko aldea. Hizkuntzen artean dauden eta disziplina hauek aurkitzen dituzten parekotasunak itzulpen teoriarako oinarri baizik ezin daitezke izan, inola ere ez beren ordezkatzailerik. Gure eritziz, itzulpen teoriaren kizuna itzulpenaren lege orokorrak ezartzean datza, berau diskurtsu ekintza moeta jakina den heinean, hizkuntza batetatik beste batetarako itzulpen prozesuan itzultzaileak zertzen dituen eragiketarik generalizatzean eta itzultzaileak hartutako erabakiak determinatzen dituzten faktoreak aurkitzean.

Itzulpenari buruzko arazo teorikoak ikuspegi linguistikotik ukitzerakoan, oraintsu arte linguistika estrukturaleko zenbait eskola eta joerak bere-berea zuen hizkuntzabarneko orientazioa ez dago ahazterik. Hizkuntzaz kanpoko faktoreak ez estudiatzea edota bigarren maila batetara saihestea, hizkuntza, eraikidura abstraktoa den heinean, azpimarkatuz eta kontzeptzio honen ildotik, diskurtsu abiapuntutzat bai, deskripzio lin-

guistikoaren objektu autonomotzat ez hartzea, guzti hau, itzulpen teoriaran isladatu den zerbait da.

Gaur eguneko hizkuntza zientziaren garagunea, jakina denez, hertsikeriak eta mikrolinguistikak ezarritako murrizketak gainditzeak karakterizatzen du, eskema sotilegiei uko eginez, eta hizkuntza naturalak beren konplexutasun eta ugaritasun guztian sakonki eta alderdi guztietatik aztertzen saiatuz. Hain zuzen ere, soziolinguistika eta psikolinguistikari dagokionean, nabarmenki zabaldu da iker eremuaren horizontea; gero interes handiagoz estudiatzen da hizketa hizkuntzaren baitan eragina duten faktore psikologiko eta sozialen "bateralekua" den neurrian. Honek beronek sortarazi ditu, halaber, itzulpen teoriaren oinarri linguistikoa hedatzeko baldintza objektiboak, linguistikaren adar aplikatua den heinean. Iraganean, inoiz kontutan hartu ez ziren edota nabarmenki guttietsi ziren itzulpenaren funtsezko zenbait alderdi hauetariko bakoitza banan-banan aztertzeke astirik. Aurrerantzean itzulpen teoriaran baitan funtsezkoak diren bi arazori buruzko auziei erantzuten ahaleginduko naiz: itzulpena komunikazio-egintza eta itzulpen-prozesuaren bururatzeko eskema.

Zientzia bibliografiak sarritan aipatu izan du itzulpena komunikazio egintza den aldetik. Baina komenigarria da, itzulpenaren eskema komunikazio egintza den aldetik oinarritik planteatzea, O. Kaderen arabera.

Eskema honen arabera, itzulpena hiru fasetan deskonposatzen da komentzionalki:

- 1) *Emisorea eta itzultzailearen arteko komunikazioa, zeinak betetzen bait du H haserako mezu hartzailearen funtzioa.*
- 2) *SH → XH kodigo aldaketa itzultzaileak egina, zeinak oraingoan "transkodifikatzaile" (TK) funtzioa betetzen bait du.*
- 3) *E' emisore funtzioa betetzen duen itzultzailearen eta H' funtsezko hartzailearen arteko komunikazioa.*

Eskema hau aztertzerakoan bada kontutan eduki beharreko zerbait: "kodigo" eta "transkodifikazio" hitzak kasu honetan ez dira zentzu terminologiko zehatz batekin erabiltzen, metafora antzera edo baizik, zeren eta ohizko transkodifikazioarekin konparatuz gero zera ikusten bait da, kodigo batetako eta beste batetako zeinuen artean korrespondentzia baliokide aski

sinpleak daudela eta SHtik diskurtsuzko sorkariak XHzko bihurtzeak askoz ere zailtasun konplexuagoren aurrez-aurre jartzeko duela itzultzailea; eta bigarren, 1 eta 2. faseak, denboran zehar banaturik badaude ere, aldiz, 2. eta 3. faseak bat datoz denboran eta ez dira bi aldi berezi, bi helburu edo xede berezi baizik itzulpeneko aldakariaren bilaketa, haserako mezu-edukiari dagokiona eta HHko arauetara ere bai, bestalde, entzulego edo hartzailegoaren ezaugarrien zerrenda. Honetaz gerora xehekiago mintzatuko gara.

Halere, bada beste alderdi garrantzitsurik: eskema honetan itzulpena komunikazio egintza den heinean funtsezkoak zaizkion alderdi hauek mugatzen da gehienbat arreta:

- 1) Izatez, itzulpena bi egintza komunikatibo eta elkarrekin erlazionatuta banatzen da - emisore-itzultzaile arteko komunikazioa eta itzultzaile-hartzaile arteko komunikazioa.
- 2) Itzultzaileak, komunikazio prozesuko partaideetariko bat delarik, hartzaile eta emisore funtzioak txandaka trukatu egin behar ditu, eta funtzio aldaketa honek garrantzi handiko eragina du itzulpen prozesuan.

O. Kadek arrazoiz ikusarazten duenez, "E-H eta E'-H' arteko elkarreaginezko markoan itzulpen prozesurako influentzia erabakiorra duten faktoreak gertatzen dira". Beste nolabait esateko, itzulpen prozesuaren azken emaitza ez dago SHko testuaren eta XHko testuaren arteko erlaziokidetzari soilik loturik, baizik eta itzultzailearen eta komunikazio egintzan partaide diren gainerako arteko erlaziokidetzatik ere bai. Nahiz eta zenbait kasutan, itzultzailearen eta komunikazio egintzako beste partaideen artean (itzulpen idatziaren kasuan, adibidez) zuzeneko kontakturik ez izan, SHko testua emisore jakin batengandik datorren eta hartzaile jakin batengana doan mezutzat interpretatzen du itzultzaileak, eta XHz mezua berreiraitzean, itzulpenaren jomuga den entzulegoa ikusten du beti bere aurrean.

Bi hizkuntzaren arteko komunikazio egintzat hartzen badugu itzulpen prozesua, beronen ezaugarri edo berezitasunei dagokienean, funtsezkoa da honako osagai guzti hauen elkarreaginean kontutuan hartzea eta estudiatzea:

partaideak: (emisorea, hartzailea, itzultzailea)

kanaleak: (diskurtsu ahozkoa idatzia, prentsa etab.)

egoera zeinean gertatzen bait dira holako edo halako mezu formak

mezu-formak eta berauen generoak
eta mezuaren *edukinak*.

Bi hizkuntzaren arteko komunikazio egintzan gertatzen diren eta jadanik aipatuak ditugun osagai horien arabera, egintza hori definitzen duten honako berezitasun hauek ematen dira:

1. *metalinguistikoa* (kodigoarekikoa)
2. *denotatibo edo erreferentziala* (mezuaren gai edo edukia-
rekikoa)
3. *espresibo edo adierazkorra* (emisorearen eta komunikazio
egintzako beste osagai guztien arteko erlazioa)
4. *identifikatiboa* (emisorea)
5. *direktiboa* (hartzailearenaganako orientazioa)
6. *kontakto-mantentzailea* (kontaktoari euste aldeko joera)
7. *kontestuala* (egoera edo testuinguruarekiko orientazioa)
8. *estilistiko edo poetikoa* (mezuaren formarekiko orienta-
zioa)

Bistan dago zein garrantzizkoa den itzulpen prozesuan ager-
tzen diren eta lehen aipatu ditugun funtzio diskurtsibo guztiak
zerrendaratzea. SH eta XHa behar bezala menderatzea eta
biak elkarrekin alderatzeko gaitasuna (funtzio metalinguis-
tikoa) besterik gabe bere burua zuritzen duen aurrebaldintza
da itzulpen arrakastatsua lortu nahi baldin bada. Halaber,
nabarmena da eta oro har onartua gaia edo egoera erreala eza-
gutzeak duen garrantzia (funtzio denotatiboa) testuinguru
kontutan hartzeak eta jatorrizkoak duen nabardura estilistiko
eta espresiboaz ongi jabetzeak ere. Horregatik, bada, hobe da
honen argiak ez diren beste auzi batzuri buruz ihardutea, hala
nola, funtzio guztiok itzulpen prozesuan duten elkarreraginaz
eta garrantziaz.

Sorkari diskurtsiboaren karakteristikak bata besteari her-
tsiki loturik daude. Bestalde, ez da harritzekoa ere moeta be-
reko baliabide linguistikoaren eginkizun funtzionala aldatzea
diskurtsu sorkari jakin baten beste parametro funtzionalen

arabera. Honela, Šolochov-en "Podnjataja Celina" (Luberria) nobelan, pertsonaien dialektalismoek eta hizkera arruntak *funtzio identifikatiboa* dute, hizketa jakin bati kutsu sozial eta lokal berezia ematen diolarik. Alemanera itzuli duenak aleman arruntean erabiltzen den hiztegiak baliatuz bihurtu du funtzio hau:

Vorotic' zaraz že, a to v ambar zapru

(Zatoz hona bizkor, bestela ganbaran sartuko zaitut)

Komm hierher, sag ich, sonst sperr ich dich in den Speicher

No vaše delo riskovoe

(Baina zure gauza arriskugarria da)

Aber ihre Sache ist verdammt gefährlich

Sama s soboy už načala ja rutarit

(Neure buruarekin hizketan hasi nintzen)

Ich fange schon an, Mensch, mit mir selber zu reden

A vy seete melkim rjadkom, napolovinu peže, čem zavsegda...

(Eta ez duzue hurbilegi ereingo, ohizkoa denetik erdi tartera...)

Ihr sät sie nicht dicht, sondern etwa um die Hälfte weiter voreinander entfernt, versteht ihr?

Bistan dago jatorrizkoa, itzulpen idatzian sarritan gertatu ohienez, ez dago artezki itzulpenaren hartzaileari zuzendua. Alemanaren baitan bereziak diren hizketa arrunteko esamoldeak testuan sartzean, hala nola: *sag ich, Mensch, versteht ihr*, berorien bitartez itzultzaileak zuzenketak egiten ditu itzulpenaren funtzio direktiboan.

Berns-en poesian, aldiz, dialektalismoek erabat funtzio desberdina dute.

And turned me round to hide the flood

That in my een was swelling.

Wi' altered voice, quoth, Sweet lass,

Sweet as yon hawthorn blossom,

O! Happy, happy may he be,

That's dearest to thy bosom.

S. Maršak egindako testu honen itzulpena aldera bedi:

*S resmic smachnul ja kapli slez
I, golos izmenjaja,
Ja zadal debuške vopros,
Kakoj - i sam ne znaju
Potom skazal ja: ty svetlej,
Čem etot den' pogožij;
I tot sčastlivej vsech ljudej
Kto vsech tebe dorože.*

Lehen aipaturiko Šolochov-en nobelaren kasuan, dialektalismoek funtzio identifikatiboa betetzen bazuten, autorearen literatur hizkuntzarekiko kontrastean, hemen, aldiz, ez da horrelako kontrajartzerik gertatzen. Eskoziar dialektoa, kasu honetan, obra egilearen hizkuntza da eta ez pertsonaiaren hizkera bereziko baliabide. Horregatik, S. Marsak-ek kutsu dialektal hori alde batetara uztean arrazoizko erabakia hartu du.

Hizkuntza arrotzeko entzulego bati mezua zuzentzean, eta abiatestuan eta itzulpenekoan funtzio direktiboari dagokionean aldakuntzak sar eraztean, sarritan itzultzailea ez da mugatzen baliokide semantikoak aurkitzera, baizik eta hizkuntza arrotzeko hartzailearen baitan *ondorio komunikatiboak* (O. Kaderen hitzak dira) sortertzeko gai diren analogia funtzionalak ere bai. Arrazoia G. Mounin, frantses ikertzaileak, itzultzaile ona izateko etnografo izatea ere beharrezkoa dela aitortzean.

Horregatik, bada, itzulpen prozesuan bi hizkuntzarena ezezik bi kultura edo zibilizazioren arteko konparaketa ere egiten da. Alderdi hau argi baino argiago ikusten da zenbait modismo itzultzerakoan. Hona hemen E. Nida, amerikar hizkuntzalariak, eskaintzen dituen modismo itzulpenari buruzko zenbait adibide **elurra bezain zuri** modismoa *gartza luma bezain zuri* edo *ziza bezain zuri* esamoldeez itzultzen da "elur" kontzepturik ez dutenen hizkuntzan, eta **bihotz** hitzaren orde *gibel* erabiliko da lehen hitzak duen konnotazioa mantendu nahi baldin bada.

Honenbestez zera esan daiteke, itzulpenaren *funtzio direktiboa* gainerakoen gainetik dagoelarik, superfuntziotzat har daitekeela, zeren eta garrantzizko korrektiboak sartzen bait ditu abiatestuaeren pertzepzioan eta itzulpen testuaeren eraiki-

duran. A. Neubert-ek itzulpenaren alderdi pragmatikoarekin lotzen dituen arazoan artean erdi-erdiko postua hartzen du funtzio honek. Alderdi pragmatiko honetakoak dira "formanteen" arteko erlazioak, hots osagai fonologikoak, morfologikoak eta sintaktikoak, zeintzuk osatzen bait dute hizkuntz kodigoaren oinarri materiala, eta bai komunikazio egintzan partaide direnak ere.

Itzulpen prozesuan, gramatikalki eta semantikoki jatorrizko testuari dagokion beste testua erlazio pragmatikozko sare batetan sartzen da. Erlazio pragmatiko hauek hizkuntz baliabideen hautaketarako erregela estilistikotara erreduzi daitezke, komunikazioan helburu jakin batzu lortzeari begira.

Honi dagokionez, testu moeta desberdinak berezten dira: SHren eroalearengana zuzenduriko testuak; XHren eroalearengana zuzenduriko testuak; aurreko bi moeten artean erdi-jarrera batetan dauden testuak, hots, lehen mailan SHren eroalearengana zuzenduriko testuak, baina ez beronengana soilik, beste edozein entzulerengana ere bai, hein handi batetan eta azkenik, SHren eroalearenganako orientazio berezirik ez dutenak.

Sail bakoitzeko adibideak:

1. *saila*: legeriak, prentsa lokaleko testuak, iragarkiak.
2. *saila*: irratibidezko testuak eta entzule arrotzentzako beste edozein informaziogai.
3. *saila*: Letra Ederrak (Elederra).
4. *saila*: Zientzi literatura.

Argi dago A. Neubert-ek proposatzen duen sailkaketa neurri batetan komertzionala dela. Hala ere, arestian eginikako zerrendari bagagozkio, eta mezu baten edukin pragmatikoa mugatzeaz denaz bezanbatean, funtzio direktiboari dagokio irizpide erabakitzailea. Hain zuzen ere, itzulpen moeta desberdinen funtsean dagoena da funtzio hau: jatorrizkoaren edukin semantiko-gramatikala eta pragmatikoa transmititzen duen itzulpena eta hizkuntza hartzaileko erlazio pragmatikoak kontutan hartzen dituen itzulpena.

Bi itzulpen-moeta hauen artean dagoen desberdintasuna argi ikusten da A. Neubert-ek dakarren adibide hau aztertuz gero:

Sandstein aus Guiseley Guiseley-Sandstein

Lehen barianteak pragmatikoki egokia den itzulpen eredu bat eskaintzen du. Izan ere, **Guiseley sandstone** hitz konposatua guztiz ezaguna zaio irakurle ingelesari, zeinarengan imajina konkretozko asoziazioak sorteraizten bait ditu. Irakurle alemanari zuzendutako itzulpenean, funtzio direktiboak al-dakuntzak eskatzen ditu: **the grey of Guiseley sandstone** – *wie aus grauem Sandstein*. Bigarren eta hirugarren barianteak ezin daitezke pragmatikoki egokitzen jo testu literario baten itzulpenean eta espezialistei zuzendutako batetan, erabat justifikatzen da bariante hauek aukeratzea. Hemendik zera ateratzen da, alegia, sorburu-testuko elementu jakin baten betekizun funtzionalaren balorazioa ez dela garrantzizkoa soilik beroni dagokion bariantea itzulpeneko hizkuntzan aurkitzeko baizik eta printzipiozko auzi bat erabakitzeke ere bai, hots, elementu jakin bat itzuli behar den ala ez erabakitzeke. Adibidez, errusierazko perpaus hau ingelesera itzultzean: **Бриджтаун (Bridgetown) что в переводе означает "город-мост", расположен на берегу узкого залива** itzulpenari buruzko aipamena (**что в переводе означает...**) esan beharrik ez dago desagertu egiten dela. Egintza komunikatiboko funtzio desberdinen elkar ekintza eta baldintzapena kontutan hartzean, zenbait kasutan funtzio jakin bat gailendu egin daitekeela, eta beste guztiak mendeen har ditzakeela gogoan izan behar da.

Dickens-en **Little Dorrit** nobelaren errusierazko itzulpena adibidetzat hartzen badugu, hara nola itzultzen duen jatorrizko pasarte hau: **"Papa is a preferable mode of address", observed Mrs. General. "Father" is a rather vulgar, my dear. The word Papa, besides, gives a pretty form to the lips. Papa, potatoes, poultry, prunes and prisms are all very good words for the lips, specially prunes and prisms.** E. Kalasmikov-en errusierazko itzulpenean ikusten da, aliterazioaren berri emateak (funtzio estilistikoa) garrantzitsuagoa eta komunikazio mailan lehenagokoa dela hitz bakoitzaren adierazi denotatiboa ematea baino: **papa, potatoes, poultry, prunes, prisms** hitzen ordez *papa* (aita), *pčela* (erlea), *plomba* (zigilua), *pljuš* (felpa), *puđing* (pudding) hitzak erabiltzen ditu.

Obraren generoak eta helburuak lehen mailan jartzen dituzte diskurtsuaren zenbait funtzio, eta bigarreanean eta mendeen uzten beste zenbait. Honela, bada, zientzi testuetan eginkizun nagusia duen funtzio denotatiboa, baita deskribapen tekniko eta txosten edo adierazpen informatiboetan, batzutan funtzio adierazkor eta estilistikoaren mendeen eta subordinaturik gera daiteke poesi lanetan. Komunikazio egintza batetan eginkizun gailen edo nagusikoia duten karakteristika funtzionaleri *dominante funtzional* izena eman diezaiekegu.

Mezuaren dominante funtzionalak definizioz kantitate barriagarriak direlarik, itzulpenaren inbariantea zertan ote daztan auzia sortzen da. Itzulpenaren inbarianteari buruzko definizio ugari dago, baina gehienbat eman ohi dena hauxe da: hizkuntza desberdinetako testuen edukin semantikoaren osotasuna edo eta testu batetik besterako aldaketan testu haue-tako edukin planuaren inbariagarritasuna. Bestalde, jatorrizkoan erabilitako baliabide lexikal, gramatikal eta estilistikoek beren baitan daukaten informazioa ulertzen da edukin hitzaz.

Definizio honetatik ongi ulertzen da jatorrizkoan dagoen informazio multzo guztia transmititzen ahalegintzen dela itzulpena. Baina lehenago ikusi dugunez, auzia beste era batetara planteatzen da. Komunikazio egintzako dominante funtzionalak hizkuntz baliabideak analisatzeko eta hautatzeko legeak determinatzeaz gainera, transmitituriko informazio multzoa bera neurri batetan aldatzea ere lortzen dute.

Bada inbarianteari buruz beste definizio bat, J.G. Kuz'min-ek emana: "*Mezugileak berak atzematen duen bezala, izatezko egoera*". Definizio hau ontzat eman liteke diskurtsuzko adierazpen guztiak egoerei buruzko deskribapenak izango balira eta egoera beraren pertzepzioa mezugilearen eta erdal hartzailearen aldetik identikoa izango balitz. Baina lehenago erakutsi denez, gauzak ez dira horrela gertatzen.

Gure iritziz, J.G. Kuz'min egia ez den premisa batetatik abiatzen da, zeinaren arabera "*errealitate objektiboa bait da itzulpen bidez elkarren arteko ulermena lortzeko oinarri bakarra*". Ez dago aitorten honekin bat etortzerik. Mezu elebiduna ahalgarri egiten duen berehalako oinarria ez da errealitate objektiboa bera, baizik eta giza pentsamenduaren izate unibertuala, unibertsal semantikoaren existentzia eta giza esperientziaren izaera komun jakin bat.


Itzulpenaren problema linguistikoak aztertzen dituen J. Catford ikertzaile ingelesak dioenez, "*Sorburu-hizkuntzako testuaren eta itzulpen hizkuntzako testuaren zeinu diferentzialen (banaka batzuren, gutxienez) arteko korrespondentzia*" da inbariantzia. Testu jakin batentzat funtsezkoak diren eta holako edo halako hizkuntz formaren hautapena determinatzen duten zertzelada situazionalak hartzen ditu Catford-ek zeinu diferentzialtzat.

Zoritxarrez, V. Avramovek Catforden obra aipatzean dioen bezala, autoreak intuitiboki berezten ditu zeinu diferentzial horiek, inolako irizpide zehazturen laguntzarik gabe. Itzulpenaren arazoak zeinu situazional diferentzialen auzira muga-tzea nekez onar daiteke itzulpen prozesuaren alderdi ugarita-sunaz lehentxoago esan denaren argitan.

Zer esan, beraz, itzulpenaren inbariantez? Zera pentsatu behar da, alegia, itzulpen prozesuan beti aldagaitz dirauela haserako mezuaren (semantikoki ezezik, pragmatikoki ere bai) komunikazio egintza jakin baten karakteristika funtzionalek eta berauen arteko koerlazioak determinaturik eta modifikaturik. Beste modu batez esateko, itzulpena soluzio baten bilaketa prozesutzat har daiteke, baina soluzio horrek irizpide funtzional bariagarrien hautapen jakin bati erantzun behar dio.

Goazen orain itzulpen prozesua burutzeko erabil daitezkeen moduak aztertzer. Alor honetan oraindik eginkizun asko dago. Azken urteotan zehar, zenbait hipotesi sortu da prozesu hau eta beronen oinarritzko etapak nola ematen diren azaltzeko. Honela, zenbait lanetan eredu transformazionalista proposatzen da giza ekintzaz egindako itzulpenarako. Lehenago, E. Nida amerikar hizkuntzalariak proposaturiko eredia ikusi dugu, nahiz eta beste lan ugari egin den teoria transformazionalista itzulpenari aplikatzeko asmoz.

E. Nidaren ustetan, itzulpen prozesua, batez ere SH eta XH-aren artean egitura semantiko eta gramatikalei dagokienez desberdintasun nabarmenak daudenean, azaleko egitura multzo batetatik beste batetara iragate soil ez da gertatzen. Honen ordez askoz prozesu konplexuagoa gertatzen da, zeinetan itzultzaileak haserako mezua analizatu, forma argi eta so-tiletara erreduzitu maila honetan, hizkuntza hartzaileko sistema transposatu eta azkenik, mezua berreraiki egiten du XHan.



Gramatika mailan, azaleko egitura egitura erdinuklear (*near-kernel sentence*) atzerantz transformazera (*back transformation*) mugatzen da analisia. Honela, bada, honako azaleko egitura hau: **John preached the baptism of repentance unto the forgiveness of sins** (*Joanesek damuzko bataioa predikatzen zuen bekatuen barkamenerako*) beste honetara geratzen da: **John preached that the people should repent and be baptized so that God would forgive the evil they had done** (*Joanesek predikatzen zuen jendeak damutu eta bataioa hartu behar zuela egindako gaitza Jainkoak barka ziezaion*).

Argi dago perpaus konplexu hau nuklear sail batetan destolesta daitekeela, baina honek informazio galera suposatzen du perpaus nuklearren arteko lotura semantikoei buruz. Baina elementuen arteko lotura semantikoak argienak izango diren mailan egitura transformatua ezartzean eta SH eta XHko egituren arteko kontrasteak minimora mugatzean datza itzultzailearen egitekoa. Hain zuzen ere maila honetan, hau da nuklearrera hurbiltzen den mailan gertatzen da errazenez transposizioa. Adierazi lexikala transmititzearen arazoaz denaz bezanbatean, E. Nidak analisi konponentzialaren bidez konpontzen du auzia (osagai semantikoak transmitituz, eta ez hitzak; egitura konponentzialen banaketa berri bat gertatzen da itzulpenean). Berregituratze prozesuan gogoan hartzen dira hizkuntza hartzailearen berezitasun espresibo-estilistikoak eta generoari dagozkion funtzionalak, baita mezu-hartzailearen baitan duen eraginaren faktorea (funtzio direktiboa).

Dirudienez, itzulpena burutzeko prozedura hau erabilgarria da, baina izatez, eraikuntza sintaktiko konplexuak sotiltzeko eta polisemiak gabetzeko balio du, osagaien artean erlazio monosemikoak dituzten eraikuntza sintaktiko bihurturik. Hone-la ingelesetik errusierara itzultzean, hitz konposatuak sarritan sintagma prepositional bihurtzen dira, zentzuetan preposizioak osagaien artean dagoen erlazio sintaktikoa zehazten duen. Hona hemen zenbait adibide: **pupil use** (use by a pupil), **neighbourhood projects** (projects in the neighbourhood), **the river tube plan** (the plan of building a tube under the river).

Bestalde, itzulpen prozesua eredu batetara erreduzitu nahi izateak gorabehera handiak ditu. Ekintza linguistikoaren formetariko bat bada itzulpena, psikolinguista sobietarren oharra gogoan izatekoa da, zeinaren arabera funtsik gabea bait da enuntziatuak printzipio bakar baten bitartez sortzen direlako. Soluzio hoberenaren bilaketa ez da beti E. Nidak deskribatutako sistemaz gertatzen, eta enuntziatu beraren markoan itzulpen prozesua burutzeko modu desberdinak nahas daitezke.

Zentzu honetan badu interesik V.G. Gakek proposaturiko *sintesi linguistikozko ereduak*. Arrazoiak du eredu estrukturalaren (sortzailearen) mugak aipatzean, zeinak aldagaitz gertatzen diren berehalako lexema eta lotura sintaktikoak dituzten enuntziatuen transformazioak soilik kontutan hartzen bait ditu, eredu semantikoan oinarritzko zentzuen aldagaiztasuna suposatzen duten semek edo osagai semantikoek irauten duten bezala. V.G. Gakek eredu situazional bat eraikitzen du (situazioa - testua) zeinak posible egiten bait du era bereko situazio jakin batzu deskribatzen dituzten eta enuntziatuaren egitura semantikoa eratzen duten osagai semantikozko multzoak bariatzea. Hizkuntza bakoitzak (eta estilo funtzional bakoitzak) bere joera eta hobespenak ditu. Ikus adibideok:

Les bombardements tuent en priorité les gens qui habitent près de la gare (Courtade).

Vo vremja bombežek pogibajut prežge vsego te, kto živet podle sortirovočnyh stancij.

De l'autre côté de la route... le lac étalait la surface glacée et recouverte de neige (Hériat).

Po tu storonu dorogi prostiralas 'zastyvšaja, pokrytaja snegom poverchnost' ozera.

Kasu honetan, frantsesezko eta errusierazko esamoldeak bereizten edo desberdintzen dituen osagai semantikoa "ondorio-kausazioa" deritzana da.

Sintesi linguistikozko eredu situazionala arrakastarekin erabil daiteke itzulpen teorian. Beronen bidez, itzultzaileek sarritan baliarazten dituzten parafrasi lexiko-sintaktiko ugari esplika daitezke.

E. Nidaren ereduarekin alderatuz gero, badu alderdi onik, zeren eta transformazio lexikal eta sintaktikoak ez partzialki, baizik eta elkarrekiko harremanean eta ekintzan aztertzen bait ditu. Bestalde, argi eta garbi jartzen du agerian analisi konponentzialaren askieza itzulpenari dagokionez, zeren eta itzulpenean enuntziatuen tranformazio oro ez bait da osagai semantikoen banaketa soil batera mugatzen.

Hala ere, V.G. Gakek berak dioenez, eredu hau diskurtsuaren funtzio denotatiboari buruzko kasuak deskribatzeko ia soilik erabiltzen da. Baina oinarrian duen printzipioa situazio objektiboen deskribapenez kanpora ere heda daiteke.

Halaber, lehen aipaturiko adibideetan, baliokidetasunezko erlazioak ez dira zuzenean errealitate atalen artean ezartzen, baizik eta errealitate hau isladatzen eta enuntziatu jakinen alderdi semantikoa eratzen duten epaien artean. Adibide hauek argi erakusten dute enuntziatuaren edukin semantikoa ez dela zentzu elementalen batuketa soil. Beste era batez hitz egi-teko, arazoa askoz zabalkiago ere formula daiteke:

Ze legek determinatzen du enuntziatuen baliokidetzak, zeinak zentzu elementalezko multzo batez desberdintzen bait dira elkarren artean, situazioa isladatze planuan ezezik, baita komunikazio egintzaren beste karakteristika funtzionalen ikuspuntutik ere?

Garrantzi handia du itzulpen teoriarako bi hizkuntzen arteko perifrasi lexiko-sintaktikoen oinarrian dauden legeak aurkitzea, zeinak ematen bait dira enuntziatuaren dominante funtzional desberdinen arabera.

Itzultzaile askoren esperientziak erakusten duenaren arabera, itzulpenak suposatzen duen erabaki hoberenaren bilaketa, eskuharki, ez da behin betirako gertatzen den zerbait, bapateko itzulpen edo interpretaritzaren kasua alde batetara utziz gero. Bilaketa hau gehienetan "saiakera eta errakuntz metodo" izenekoaz baliatzen da, zeina bariante hoberenera pixkanaka hurbiltze bat bait da, aldaera posible batzu hau-

tatuz eta lehen agertutako irizpide funtzionalei erantzuten ez dietenak bertan behera utziz.

Gainera, transformazio eta perifrasi lexiko-sintaktikoen birtartez ("hizkuntzabarneko itzulpena" deritzanaz) SHn egiten den hasierako mezuauren aurrelaborazioarekin batera erabat ahalgarria da SHko enuntziatuen eta berauei dagozkien XHkoen artean korrespondentzia egokiak aldi berean ezartzea. Lehen urratsak ematen ari den itzultzaileak hasierako mezuauren egitura gramatikal eta konponentzialetara hurbiltze handieneko printzipioaren arabera ezartzen ditu erlazio horiek. Itzultzaile adituak, ordea, aurreko esperientzian oinarriturik, maiztasun handiagoko korrespondentzia estruktural eta lexikalekin egiten du lan. Ez da sarri gertatuko, antzekoak diren eraikuntzak itzultzerakoan kasu bakoitzean "analisi-transformazio-berregituratze" eragiketa berri bat egin beharrean itzultzailea aurkitzea, E. Nidak dioenaren arabera.

Argi dagoena zera da, alegia, sarritan itzultzailea korrespondentziatzako "bloke atonduz" baliatzen dela. Hala ere, oso maiz, "bloke atondu" hauek soluzio hoberenerako lehen hurbiltze bat besterik ez dira izaten: Ondoren, komunikazio egintza konkretoaren parametro funtzionalen baitan zuzenketa sartzen dira eta gutxiasko garrantzizkoak diren aldakuntzetara makurrerazten da testua.

Hemen argi ditugun gogoetek, neurri batetan, hipotesi baliok besterik ez dute eta berrespen esperimentalak behar dute. Hala ere, "giza itzulpenari" buruzko epai gehientsuenei aplikatutako dakiekeen zerbait da. Itzulpen teoriak esperientzian oinarritutako jeneralizazioak behar ditu, itzulpen-praktikaren azterketa sakonen eta hizkuntz zientziatzako azken lorpenetan funtsatuak, eta bereziki, diskurtsuaren ekintza aztertzen duten disziplina linguistikoetan oinarrituak behar ditu, zeinen artean aurkitzen bait dira alderdi pragmatikoak ere. Berauek behar bezala sakontzeko komunikazio egintzaren funtzio desberdinen elkarregintza hartu behar da kontutan, eta, lehen-lehenik, adierazpen diskurtsiboaren genero eta helburutik zintzilik dauden dominante funtzionalena.

Badakit aita etorri dela. Badakit aita etorri dena.

Uliondo

Duela zenbait urte gramatika zeretan jakitun den lagunak antzeko bi esaldi aurkeztu zizkidan "deLA" eta "deNA" horien arteko diferentzia zertan ikusten nuen jakin nahiz. Zer erantzun ez nekiela geratu nintzen. Ez zitzaidan gauza bera iruditzen, baina ezin nik azaldu zertan zetzan biren arteko aldea.

Nire adiskideak zioenez gramatikalariek ordura arte (eta orain ere, oso oker ez banago) ez zuten denek gauza bera esaten horri buruz.

Batzuetan antzeko zerbaite omen bi esaldiok (konpletibak), esanahi beretsurekin. Besteetan aldiz, biren arteko zenbait nabardura agertzen digute.

Etxean entzuten nuen euskarak (eta beste nonahi ere berdin) ez zidan biderik ematen gauza bera zirenik sinesteko. Haur garaian "Nik etorri naiz" eta "Ni erosi dut" gaizki zeudela senez nekien bezalaxe (ergatibo izena bera entzun gabea banuen ere), "etorri dela" eta "etorri dena" horiek ezberdinak iruditzen zitzaizkidan. Azpimarratu behar dut osaba-izeben artean (aiton-amonak areago) ba zirela elebakar soilak. Oroitzen naiz behin zernolako barreak egin genituen amak eta biok, osabak "Vascongadas hori" Burgos aldean ez ote zegoen bada, galdetu zigunean.

Ikus dezagun zer dioten gramatikalariek:

-R.M. Azkuek (1):

«5º (Bc, R), sufijo verbal que vale por "que". Se usa en verbos como "saber, asegurar, negar, creer, conocer, ver, decir"... y otros semejantes. No es exactamente lo mismo que el sufijo verbal -LA, pues -NA significa más bien "el hecho de que"...» (66. orrialdean)

-Xabier Kintana eta 6 lagunek Ekiten taldeko irakasleekin (2):

«-na. Vide -(e)na.

-(e)na: (B) completivo, vide (-)la; badakit galduko naizena: ya sé que me perderé». (106. orrialdean)

-Txillardegik (3):

«Bizkaieraz bederen (baina Gipuzkoan ere maiz entzuna) ongi atxikitzen da -na = -la liferentzia.

Etorri dela esan digute. Kasu horretan (esan digute) esaldia dugu galdegai. Beste honetara, berriz: *Nola* jakin duzue? *Esan egin digute* etorri dena». (396. orrialdean)

-Sebero Altubek (4):

«Este dice que viene ahora = Oraintxe datorrena ("onexek diño")» (119. orrialdean)

Umeak ostu dabe-*la* ("zeuk" esan dozu). Aquí no se da como cierto ni se niega que el niño haya robado).

Umeak ostu dabe-*na* ("zeuk" esan dozu). (Aquí se da como cierto que el niño ha robado)». (121. orrialdean)

-Patxi Goenagak (5):

«(215). 2. -ELA eta -(E)NA.

(1) **Diccionario Vasco Español Francés**. Bigarren tomoa. 590. orr. Bilbao. 1906. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 1969.

(2) **Hiztegia 80**. Euskara-espainiera/espainiera-euskara. 854. orr. Bigarren argitaraldia zuzendua eta gehitua. Bilbo. 1980.

(3) **Euskal Gramatika**. Ediciones Vascas Argitaletxea. 453. orr. San Sebastián. 1978.

(4) **Erderismos**. 315. orr. Euskaltzaindia. Gaubeka'ren Irarkolan. Bermeo. (Vizcaya). 1929. Indauchu Editorial. Bilbao. 1975.

(5) **Gramatika bideetan**. 380. orr. Erein. 1978.

Leku batzutan, orain arte aztertu dugun ELA-ren ordez, beste atzizki bat erabiltzen dute: -(E)NA:

(11) banekien etorriko zela = banekien etorriko zena.

Baina badirudi hau leku batzutan bakarrik esaten dela. Hala ere, honek badu garrantzirik gero ikusiko dugun zer-baitetarako: perpausa nagusia ezezka denean, -enik agertzen baitzaigu eta ez *-elik edo -elarik, adibidez». (228. orrialdean)

-Adolfo Arejitak (6):

«-NA. Bizkaieraz erabilten da ondoen eta zeatzen atzizki ezaugarri hau. Beste euskalkietan ere, gipuzkeraz batez ere, erabili egiten da, baiña enparauek -LA artu dabe esaldi osogarrietako ezaugarri orokor legez.

Noiz erabili:

Baldintza honek eragiten dabe -NA morfemaren erabilerara:

Esaldi nagusiak baiezkoan egon bear dau. Kasuren batzuetan itauna izan arren ere erabilten da:

Eskerrak bizkor etorri daNA, bestela kito!

Sinesten dozu atera etorriko daNA?

Ezaugarri hau (NA) daroen esaldi osogarriak sekula ere ezin dabe izan esaldi nagusiaren galdegai. Beti izan oi da beste galdegairan bat esaldi nagusian.

Esaldi menperatuok nagusiaren galdegai ez direnean: -NA morfema sartzea da egokiena. Esan genduan, -LA morfema esaldi menperatua galdegaia zanean erabili bear zala geienbat.

Ba daki berak asarre nagoaNA.

Naiko ziurra ei da auteskundeak eukiko dituguNA.

Inork esan barik berak agertu dau lapurretan egin

ebeNA.

Esaldi nagusiko aditzak ZIURTASUNA agertzen dabenak badira orduan -NA morfema erabili bear dogu. Adibidez: JAKIN EZIN, UKATU, SINESTU, SEGURU, EGIA IZAN, BISTAN EGON, ZIURRA IZAN, ARGU EGON, SEÑALE IZAN...» (76-77. orrialdetan)

Hurrengo beste sei orrialde adibidez, ariketaz eta zehaztasunez beterik.

Aburu gehiegixko, aukeran. Zerbait dudarik gabekoa de-
nean gutxiagorekin nahikoa izan ohi da.

Inoiz gertatzen da, hala ere, esaldi bereborean -LA/-NA ho-
riek soil-soilik aldatuz esanahiaren kanbio zehatza inolako du-
darik gabe ikusten duela edozein euskaldunak:

1. a) "Ikusi dut, Iñaki, egin duzula"
- b) "Ikusi dut, Iñaki, egin duzuna"

Lehenengo kasuan, zer ikusi dut?: Iñaki dela egilea. Eta bi-
garrean: Haren lana da nik ikusitakoa.

2. a) "Entzun dut esan duzula"
- b) "Entzun dut esan duzuna"

Zuk esan eta norbaitek zu zarela esalea agertu dit, a) ka-
suan. Eta zure hitzak entzunak ditut, b) kasuan.

Bi adibideotako b) esaldiek erlatibo soila dute -NA-ren "A"
hori izenorde bezala erabiliz. 1-b) kasuan, "Ikusi dut egin du-
zun...a", "egin duzun lana" adierazten du. Eta ondorengoan:
"Entzun dut esan duzun...a", "Esan duzun hitza (edo perpausa
edo hitzaldia)".

1-a) eta 2-a) konpletiba normalak dira.

Idazpuruko esaldietara itzuliz "Aita etorri dena/dela", eta
oraingoz honelako perpausak Euskal Herrian mendetan zehar
erabili izan diren ala ez bazterrean utziz edota Bizkaian eta Gi-
puzkoan bakarrik erabiltzen direnentz (nire aita nafarra zen),
ez ote zaigu zilegi inferentzi batzu egitea aipatu bi esaldiotan
(eta antzeko beste zenbaitetan) oinarrituz?

Metodologiaren ikuspuntutik aztertuta ez zait iruditzen ka-
koa nork esan duen kontuan datzanik (edota esandakoa onar-
tzen edo ukatzen al den, ala esaldi nagusia baiezkoa edo ezez-
koa izatean).

Nire ustez alderdi honetatik begiratu geniezaioke:

Hizlariak, alde zurretik, bere buruan jaso duen informa-
zioa honelakoa da:

"IÑAKIK EGIN DU" (1-a kasuan)

Eta hori hitzez azaltzerakoan bi posibilitate izan ditzake
kontuan:

- A) Iñaki (subjektoa) dela egilea azpimarratu nahi izatea,
- B) Predikatuak agertzen duena azpimarratu nahi izatea.

Horren arabera banaturik:

"Iñakik (A) egin du (B)"

Demagun "IÑAKIK (A) egin du (B)" azpimarratu nahi duela. Orduan konpletiba erabiliko du, "Ikusi dut, Iñaki, egin duzuLA" (A).

"Aldez-aurreko" deitu diogun perpausa horretatik predikatu nabarmendu guraez geroz, "Iñakik (A) EGIN DU (B)", alegia, "Ikusi dut, Iñaki, egin duzuNA (B)" esango luke.

"Esan duzu", "aldez aurreko" perpausan oinarrituz gauza bera, noski, "Entzun dut esan duzula/na" kasuan.

Adibideak sortuz eta trukaketak eginez gauza bitxiak gertatzen dira. Batzuetan -LA/-NA argi dago. Besteetan -LA horrek ongi ematen du eta -NA arraro samar gertatzen da. Eta azkenik -NA-rekin ondo eta -LA-rekin ezohiak gertatzen direnak ere badira.

-LA/-NA-ren adibidea: "Ikusi dut egin duzuLA/NA". "Badakit aita etorri deLA/NA" izango litzateke bigarren kasuko etsenplua. Eta hirugarrena, "Nik jango dut zuk utzi duzuNA"; -LA jarrita ez du itxura onik hartzen. Nahiz eta buelta txiki bat eman ez esaldi arrunta egin ahal izan:

"Nik jango dut zuk utzi duzula". Ez.

Baina, "Zuk utzi duzula-ta, neuk jango dut". Bai.

Badirudi, hortaz, -LA alde aurreko perpausa izkutu horren subjektuari dagokiola. Eta -NA perpausa berberaren predikatuari.

Hori horrela balitz, tituloko esaldi bi horietan hizlariak zuen informazioa (bere perpausa ahoskatu aurretik) hau litzateke:

Aita (A) etorri da (B).

Eta hipotesi hau okerra ez bada idazpuruko bi esaldien esanahi zehatza honela izango litzateke:

1. Posibilitatea:

Azpimarratu nahi duena honela da: "AITA (A) etorri da (B)" = "Ikusi dut aita etorri deLA (A)"

2. Posibilitatea:

Azpimarratu nahi duena etorrera da: "Aita (A) ETORRI DA (B)" = "Ikusi dut aita etorri deNA (B)"

Hasieran aipatzen nuen senak onargarri egiten dit hipotesi hau. Azkuek agerturikoa ildo beretik joango litzateke, gainera ("el hecho de que", alegia). "Etorri dena" = Ikusi dut ez aita, baizik eta "el hecho de que ha llegado", "el hecho de su venida".

Bukatzeko adibidetxo batzu gehiago:

Aldez aurrekoa: Zu (A) *lizentiatu zara* (B).

Diodana: Zure emaztegaiak esan dit zu lizentziatu zareNA (B).

Aldez aurrekoa: Anttonek (A) *bihar ekarriko du* (B).

Diodana: Esaiozu Anttonek bihar ekarriko dueNA (B). (El hecho de que lo traerá mañana).

Esan beharra dago proposatzen duguna zuzena baldin bada, "Ikusi dut ekarri duzuna" bi eratara ulertu ahal izango dela: Ikusi dut ekarri duzun maleta / Ikusi dut ekarrera burutu dela. (He visto *lo* que tú has traído / He constatado que has acabado trayéndolo").

Mantxako herri batean

Gotzon Egia

Esker gaiztokoa aitortu zuen Don Pedro Berrondok **Don Kixote Mantxa'ko**-aren euskaratzea, baina ez zuela hala ere lana eginaren damurik. Euskaraz egiten ez duen kronistaren bategen **El Diario Vasco**-n "magna obra" titulatu zuen; elkarriketaren bat ere egin zioten Berrondori bigarren alea kaleratu zela-ta, baina apaiz itzultzailea aspaldi honetan erretiratua dagoelako edo, euskaltzaleen artean ez du Kixotearen lehenengo euskal translatione osoak (LAE = "lenengo aldiz euskeraz" harro aitortzen da liburuaren gibelean) esangurarik sortu. Ez dago sobera, bada, itzulpenaz nahiz itzultzaileaz mintza gaitzen.

Berrondoren lana, itzulpen-lana den horretan, *a priori* batez dago moldatua: euskara ere badela gai ia mundu guztiko hizkuntzetara aldatua den klasiko hori jasotzeko. Euskal letretako tradizio bati lotzen da, beraz, "el imposible vencido"-arena berriz ere. Ondorioz, Berrondok darabilen itzulpen-eredua eta teknika -segidan gainbegiratuko duguna, hain zuzen- ez dago ikusmolde utilitario batetan oinarritua. Berrondorena ez dago euskaraz irakurtzen duenari Cervantesenak eman diezaiokkeen adina emateko pentsatua: itzulpena baino *re-kreazioa* dela esango nuke.

Baina Berrondoren lana bere horretan ulertzeko egilea bera ezagutzea ere komeni da. Berrondoren hitzak dira:

Nola litekek lehengo euskara zaharrean mintzatu, oraingo irizpide berriak, Holandako auzo zikin hoietan bildutako iritzietan euskaraz mintzatu. Hori ezin liteke. Nere iritzian euskarak gaur kabi bakarra Elizan zakak, eta kito. Elizara joaten den jendeak bere bihotza lehengo euskara zahar hortan mamitua zakak. Euskara hori gai duk, eta gainera gaibide ona, barrengo gauzak, barrengo, bihotzeko hizkuntza hori beretzeko, goxatzeko, argitzeko, erakusteko. Eta horretarako kabi ona zakak Elizan, Jainkoari eskerak (...) Zer modu, eta ondo al gaude esan, eta pake hori eman, lanean ari direnei. Hori duk apaizaren egitekoa. Euskal Herria, plazan barrena, paseoan dabilen apaiz sotanaduna galdutakoan, ez duk Euskal Herria izango. (Oh! Euzkadi 1980)

Filosofia oso bat dago hizkuntzari buruz, denborari buruz, hitzon barnean. Filosofia hori bera da, dudarik gabe, Berrondoren luma gidatu duena urte luzeetako lan

* * *

Kitxotearen euskarazko bertsioen historia ez da, nolanahi dela ere, Berrondoren lanaz hasten. Aspaldiko kontua izan du te euskal izkribatzaile eta itzultzaileek Kixotearen itzulpena, eta Berrondorena baino lehenago argitaratuak ziren zati labur batzu han eta hemen.

Zatikako lehen bilduma Julian Apraiz euskaltzale arabarrak eman zuen argitara: Donkituera umill euskalduna CERVANTES-eri opatua Manchako don Quijote, seme argi ta ospatsua agertu zanetik irugarren eunki-urrenean. On Julian Apraiz jaunaren aginduz, eta ustez. VITORIJAN, Domingo Sar jaunaren maldagintzan (sic) 1905-garren Epaillean (aurrerakoan, Apraiz 1905 eta Apr. laburturik). Hitzaurrean Apraizek dioskunez, 92 orrialdetako liburuska honek hurrengo lanak biltzen ditu: Kixotearen hitzaurrea eta lehenengo hiru kapituluak, Duvoisin kapitainak lapurterara itzuliak eta Mr. Edward Spencer Dodgsonnek 1904ko uztailean zuzendu eta argitaratuak Miarritzen (Duvoisin 1904); biga-

rreren zatiaren XLII kapituluaren hasiera, gipuzkeraz eta bizkaieraz nahasirik Pablo Zamarridak eman; kapitulu beronen amaiera, gipuzkeraz Mateo Mugica apezpikuak moldatua; XLIII kapituluaren hasiera, Evaristo Bustinzak bizkaieraz jarria, eta beronen bukaera Serafin Ascasubik araberez (Arabako euskalkiaz, alegia) egina. Azkenik, XLII aipatu kapituluaren hasiera ere berriz ematen da, lapurteraz itzultzaile anonimo batek egina.

Hau horrela ikusita, tentazio handiegia zen Duvoisin kapitainaren eta Berrondo apaizaren lanak gonbaratzea. Baina, Apraizen liburuskaren bigarren argitalpenak aitzin solas berria dakar lapurterazko zatien egilearen berri zehatza ematen duelarik bertan. Izan ere, lehenengo argitalpenaren hitzaurrean esana zuen Apraizek Mr. Dodgsonen eritzira puska haien itzultzailea ez zela Duvoisin bera, "*sino que es probable que sea de algun cura ó presbítero del país*" (Apraiz 1905). Ez zebilen guztiz oker. Aipatu aitzin solas berri horretan argitzen da lapurterazko itzultzailea Alberto de Palacio jauna dela. 1873-74 urteetan beronen osaba zen Jose de Palacio y Viteri jaunari Don Francisco Lopez Fabra koronel zerbantistak Kixotearen zati batzu euskara zitzan eskatu zion Bartzelonan, ehun hizkuntzatan argitaratzeko asmoz. Honek ilobari egin zion enkargua, artean 15 urtetako mutikoskorra zena. Baina ordurako euskara ongi ikasia, ama Sarakoa bait zuen eta bertan bizi izan bait zuen haurtzaroa. Inudea Bonaparte Printzearen informatzaileetariko bat omen zuen gainera... Hitz batera, Alberto de Palacio arkitektu arabarra izan zen bere gaztetan Kixotearen zati hauen lapurterazko itzultzailea, lanaren azken ikutuak Duvoisinek berak, iduri, eman bazizkion ere.

Historia luze hau gora behera, Apraizek duela larogei urte argitaratu zituen itzulpen hauek dira Kixotearen euskal aitzindariak. Alberto de Palacioren itzulpenak lapurtar klasi-koen jarraitzaile dira osoki, xehetasun batzuetan Duvoisin bezain latinzale ez bada ere. Pablo Zamarridak, Mateo Mugica, Evaristo Bustinza eta Serafin Ascasubi, berriz, mugaz honutzako giroan egositako lanez ageri dira. Lexikoan larramenditarrak dira aho batez (esondeak, onentzuna, goyenda, billanquideak (sic), egopea, ecaidotu, dagoquindeac, etc.), baita sintaxian ere, nork bere ikutu propioak izanik ere. Bustinzarenak ez beste guztiek, gainera, beren ezintasuna erakusten dute, alde zuzenetik ikasigabe eta ezjakintzat jotzen den irakurle ton-

toari hitz "zailen" ondoren parentesi artean gaztelerazko ordaina jartzen bait diote. Arrazoi guzti hauek gogoan hartuta, Zamarripa, Mugica, Bustinza eta Ascasubiren itzulpen zati tiptei ez diegu ondorengo lerroetan jaramonik egingo.

Kixoteren euskal itzulpenen beste pasadizo bat 1928 urtean Iruñako udalak antolaturik izandako lehiaketa da. Gaia, Cervantesenaren IX kapitulua euskaratzea **Donde se concluye y da fin a la estupenda batalla que el gallardo vizcaíno y el valiente manchego tuvieron**. Lehiakideak, Oyeregi, J. Garbizu, Lizardi, Anabitarte, Irigaray eta Orixe. Azkenak eraman zuen txapela. Orixe itzultzaile arras aipatua dute euskal itzulpen-teorigileek, eta ez dugu deus erantsiko. Lizardi berriz ez da itzultzaile famatu (Lizardi poetaren ondoren Lizardi prosagile eta itzultzailea aurkitzeko beharrean gaudea...), baina bada zer ikus eta zer ikas bere lan horretan, lexiko "garbizalearen" azalaz gairi.

* * *

Ez da poesia ideiez egiten hitzez baizik, esan zuen poeta sinbolistak. Ez dute (literatur) itzulpen kontzeptu hutsek eta sinifikatuek egiten hitzek eta sinifikatzaileek baizik, esan behar dugu orain. Itzulpen baten zuzentasuna jatorrizkoari zor zaion fideltasunak bakarrak neur dezake: itzulpen on batek jatorrizkoak eman dezakeen guztia eskaini behar dio irakurleari. Itzulpena gogortu egingo da, honen harian, itzultzaileari IS bat IS batez aldatzea eskatzen bazaio (hizkuntza guztiek omen dute beren zera hori...). Baina itzultzaile onak badaki ironiazko pasarte bati, esate baterako, ironiazko hizkera eta estiloaz dagoela erantzutera behartua. Hori omen da, hain xuxen, ofizioaren koska, eta hala aitortzen dute trebeenek ere (Valverde 1985). Hizkuntza batetan hain erraz eta labur esan daitezkeen horiek baldar eta luze bihurtzen dira itzulpenean, eta hitzen ertzetatik irristatzen den *doinu* berezi hori iheskor egiten zaio itzultzaileari ia beti. Baldintza gordinak bildu beharra dauka, bai, itzultzaile onak.

Esanak esan, inork ezin leporatuko dio Berrondori bere lana kaskarra denik. Kixote osoari egin dio aurre, galanki kostatuko lanaz gainera. Baina Berrondoren eritzi partikularrez ezin liteke itzulpen on eta fidelik egin, ene ustean. Berrondok ez dio halabeharrez izenari izenez, edo aditzari aditzez erantzuten,

baina Cervantesenak puntuz puntu aurpegiatzen dizkion arazo eta korapiloerik kriterio jakinik gabeko askabideak bilatu dizkio banan bana. Ikus dezagun adibide bat hasieran bertan:

En un lugar de la Mancha... (Cer. 19)

Mantxa-aldeko erri koxkor batean... (Ber. 31)

Mantxako herri batean... (Apr. 13)

Non ikusi ote du Berrondok *Mantxa-aldea* eta *erri koxkorra* (!), bere idurian ez bada? Bista hobea zeukan dudarik gabe Duvoisinen ikasleak...

Itzulpena ahal-nolaka egite hori, bestalde, estilo ezean da nabari batez ere. Exenplu batez, Cervantesenean Don Kixote mintzatzen den bakoitzean hitz handiez egiten du, zaldunari dagokion legez eta eroari darion zeremoniaz. II kapituluan osatu txar batetan delarik, harlanduzko gaztelua bere irudimenean, deus jatekorik nahi ote zuen galdegin diote. Hona erantzuna:

Cualquiera yantaría yo (...) porque, a lo que entiendo, me haría mucho al caso (Cer. 25)

Edozer noski, jango nuke (...) ortarakoxe bait-nago, nere ustez, egon ere (Ber. 47)

Jan nezake edozein gauza, ezen ene gogoko hainitz onxa ethorria lizate (Apr. 31)

Zalantzarik gabe Berrondorenak esan ere esan egiten du Cervantesek zioena, baina edonork ikus lezake euskarazko *ortarakoxe bait-nago* gaztelerazko **me haría mucho al caso** horretatik urruti dagoela, *hainitz onxa ethorria lizate* horretatik bezain urruti, alegia.

Garbikeria lexikalak ez zaizkio maiz harrapatzen Berrondori, orobat garbizale dela argi baldin baderakus ere. Gero berriaz erdarakada nabarmenak ageri ditu, ulertezinak sarri asko:

... no ha mucho tiempo... (Cer. 19)

... denbora asko ez dala... (Ber. 31)

...aspaldi ez delarik... (Apr. 13)

adarga antigua (Cer. 19)

adarga zaarra (Ber. 31)

oraino erredola (Apr. 13)

Horiek baino gehiago dira, askoz ere, errazkeriak eta oztopoen aurrean ahal bezala bilatutako aterabide arinak. Hauen artean, gainera, jatorkeriak dira nagusi: gaztelerazko elementu bati gisa ezberdineko beste euskal elementu "jatorragoaz" erantzuten diorean, alegia:

Estaban a caso a la puerta dos mujeres mozas...

(Cer. 23)

Bi neska gazte zeuden, ara, etxeko atean... (Ber. 45)

Suerteak emanik athean baziren bi neskatcha gazte...
(Apr. 27)

Itzulpen-bideak euskara jatorraren altxorrean bilatu behar horrek goitik behera tronpatzera darama batzutan Berrondo, etimologiaren zantzuari lotzeagatik adibidez:

... **un hijo seco, avellanado** (Cer. 9)

.... *ume zimur ta urritz-biur* (Ber. 17)

... *ume kizkor, kozkor* (Apr. 1)

Gaztelerazko **avellanado**-ari lotzen zaio Berrondo, nonbait: "AVELLANAR - Arrugar y poner enjuta, como las avellanas, secas, una persona o cosa" dio hiztegiak (Sopena 1985), baina oiartzuarra urrutiegi doa hori asmatuz: zer dela-ta *urritz*, gazt. **avellano** nik dakidala? Palacio ez zen noski lazo horretan erori, eta *kozkor* itzuli zuen: "KOSKOR - vou té par l'age" dio Lhanderen hiztegiak (Lhande 1926).

Beste batzuetan bildurgarrizko sinplifikazioak egiten ditu Berrondok, Cervantesek zioena euskaraz jatorkiago esango duelakoan. Lokuzioetan gertatzen zaio bereziki, eta jende orok badaki Kixotea lokuzio, errefrau eta atsotitzen bilduma dena. Adibide bakarra, ez luzatzeagatik:

Fue luego a ver a su roc n, y aunque ten a m s cuartos que un real... (Cer. 21)

Bere zalditxarra ikustera joan zen urren eta anka-joa izanik... (Ber. 36)

Gero goan zen berehala bere chamalkoaren ikustera, eta nahiz bazuen sosak ardit baino zibela gehiago... (Apr. 19)

Cervantesek **cuarto** hitzaren bi zentzuekin egin zuen joko: **cuarto** dirua eta "CUARTO - Abertura longitudinal que se hace a las caballerías en las partes laterales de los cascos" (Sopena 1985) luzaroan ongi perratu gabe ibiltzearen ondorioz bereziki. Berrondok ulertu bai, baina ihes egiten dio lokuzioari, eta errazkeriaz bilatzen ordaina. Palaciok berriz, euskaraz joko bera ezin egin, eta bi elementuren gonbaraketa **más cuartos que un real** gonbaraketa hirukoitz batez aldatuko du *sosak ardit baino zibela gehiago*: "ZIBELA - Maladie des bêtes ovines" dakar Lhandek (Lhande 1926).

Euskal itzultzaile ororen buruko mina dator gero, erlatibo erromanikoen euskaratzea hain zuzen. Hizkuntza erromanikoen erlatibozko egitura da euskal itzulpenaren hastapenetik kezka eta erantzunbehar gehiena dakarkiona itzultzaileari. Erlatibo erromanikoei emandako translazioetan ikus daiteke gaur ere itzultzaileari nondik jotzen dion haizeak. Testu sakratuen itzultzaile klasikoek erlatibo erromanikoa euskaratzeko latinezko egiturari puntuz puntu jarraituko zion euskal egitura berri bat paratzea deliberatu zuten. Geroztik era guztitako garbizaleek errazkeriaren akatsa leporatu diote Leizarraga eta bere ikasleen jokabide honi: errazena omen da erdara datarren eran tipi tapa euskaratzea, euskal joskeraren arauetarako axolarik gabe.

Astiroago pentsatzekoa da, ordea, erlatibo erromanikoaren egiturari nolako irtenbideak eman zaizkion. Izan ere, erlatibo erromanikoak kateatu ahal izateko egitura malgu eta aproposa dauka, egitura akumulagarria dela esan genezake. Honen ondorioz, hizkuntza erromanikoetan maiz aurkituko ditugu amaigabeko perpausak, erlatibozko anitzen kateatzeaz moldatuak. Halakoetan, perpausaren luzaldiak berak erritmo jakin bat ezartzen dio kontakizunari, hitzak *ordenu* zehatz batetan dira jarriak, narrazioaren elementu sustantiboak eta osagarri hutsak hierarkia batez sailkatzen direlarik sarritan. Ezin ukatuko dugu, adibidez, Cervantesek **En un lugar de la Mancha, de cuyo nombre no quiero acordarme, no ha mucho tiempo que vivía un hidalgo de los de lanza en astillero, adarga antigua, rocín flaco y galgo corredor** dioenean hori bera nahi duela esan, eta ez beste. Guzti honen ondorioz itzultzaileak badu beste galdera bat begi bistan: ez ote da itzulpen baten fideltasuna jatorrizkoak ezarritako hitzen *ordenu* eta hierarkiari atxekitzeaz ere neurtzen? Edo bestela, indiferentea al

da elementu itzulkizunen ordenamendua guztiz aldatzea edota puskatzea? Adibideak argi mintzo zaizkigu:

-Así es verdad -replicó Don Quijote- por lo cual los no de principios nobles deben acompañar la gravedad del cargo que ejercitan con una blanda suavidad que, guiada por la prudencia, los libre de la murmuración maliciosa, de quien no hay estado que se escape. (Cer. 527)

-Ala da bai -Don Kijote^k berriz-; orregatik, esku biguñaren leuna erantsi bear diote beren kargu-itzalari, aundizkien seasketan azi ez diranak; orretzek, zentzu ona giddari (sic), gorde lezazke maxiatzallen gaiztotik; eta-eta (sic), bizilegerik ez da orri iges egingo dionik. (Ber. 333)

Don Quichoten arraposta: eguia diok, eta horra zerendako sortze aphalekoak kargu handien azpian yartzen direnean, ekharri behar duten amultsutasun ezti bat, zoinak zuhurtziaz ongui guidatua delarik, beiratuko baititu nihor guti erkapatzen (sic) den aho gaichtoen ausikietarik. (Apr. 66)

Berrondok ez du, behin ere gero, erlatibozkorik errespetatzen. Guztiak puskatzen ditu, denetan ezartzen ditu nahi adina puntu eta koma, sekuentzi edo sintagma bakarrak hiru, lau edo bost bihurtzen direlarik bere eskuetan.

* * *

Euskal itzulpenaren historia tipi eta ezezagun honetan episodio nagusietarik bat da, ene ustez, Mantxako Don Kixotearen euskaratzea. Ez du ziur aski irakurle desinteresatu gehiegirik bilduko, eta behar bada kritika zorrotzak egingo dizkiote itzultzaileek. Baina lan hori hor dago, urte luzeetan beste inork egingo ez duena, eta itzultzaileak bilatzen jakin behar du bere ikasbidea Berrondo apaiz oiartzuar itzultzaile saiatuaren emaitza honetan. Bereziki Holandako auzo zikin horietan bildutako iritzietan euskaraz mintzatzen diren itzultzaile berriek.

Aipamenak

APRAIZ, Julian. Donkituera umill euskalduna CERVANTES-eri opatua Manchako don Quijote, seme argi ta ospatsua agertu zanetik irugarren eunki-urrenean. Gasteiz: Domingo Sar. 1905.

BERRONDO, Pedro. Don Kixote Mantxa'ko. Isaba: Jose Estornes Lasa Arg. 1985.

CERVANTES, Miguel. El ingenioso hidalgo Don Quijote de la Mancha. Madrid: Espasa-Calpe S.A. 1940.

DUVOISIN, Miguel Saavedra Cervantestarrak scribatu zuen Don Kixoten Gerthakariak deitzen den liburuko Duvoisin Capitainak Ziburun zegoela Laphurdiko Heuskaraz emanak. Miarriz: Ernest Seitz. 1904.

LHANDE, Pierre. Dictionnaire Basque-Français. Paris: Gabriel Beauchesne Ed. 1926.

VALVERDE, José María. in HABE. 7. zk. Donostia: HABE. 1985.

----- Enciclopedia de la lengua. Madrid: Sopena. 1985.

----- Oh! Euzkadi. 2. zk. Donostia: Lur Ed. 1980.

SINTESIS

El autor critica en este artículo la traducción, por primera vez completa, del Quijote, llevada a cabo al euskara por el pbro. D. Pedro Berrondo y publicada por B. Estornés Lasa editor este mismo año, con gran aparato de propaganda. El crítico expone la práctica imposibilidad de llegar a una buena traducción del texto cervantino si se parte de los presupuestos sociolingüísticos y religioso-lingüísticos que en muhas ocasiones ha manifestado públicamente el traductor de la obra.

Tras trazar una breve historia de la traducciones que se han hecho del Quijote al euskara, parciales todas ellas, el articulista compara la actual con versiones de Duvoisin, Lizardi, Orixe, Irigaray, etc., y destaca la falta de rigor de la comentada, sobre todo en lo que se refiere a equivalencia de estilo, y el excesivo purismo y repetidas simplificaciones de que adolece.

Destaca el caso del tratamiento dado por D. Pedro Berrondo en su traducción al llamado "relativo románico", en el que a cada paso se deja ver la falta de criterios científicos que ha presidido esta traducción.

SYNTHESIS

In this article the author criticizes the first complete translation of "Don Quijote" into Basque by the priest Pedro Berrondo and published in a clamour of publicity by the editor B. Estornés Lasa this year. The critic expounds the idea that it is virtually impossible to translate Cervantes' text well given the

sociolinguistic and religio-linguistic premises which have been publicly expressed by the translator of the work and upon which it is based.

After a brief history of the translations made of "Don Quixote" into Basque, all of which, incidentally, are biased, the writer compares the actual translation with versions by Oyeregi, J. Garbizu, Duvoisin, Lizardi, Orixe, Irigaray etc. and above all highlights the looseness of this particular translation, especially in terms of style, and the excessive purity and repetitive simplifications from which the text suffers.

One of the outstanding faults made by Pedro Berrondo in his translation is the case of the treatment given to the so-called "romanic relative", in which the lack of scientific criteria which dominates the translation becomes evident.

Orixeren itsu-mutila

Pedro Iturrioz

Maisu bada ere, Orixe aski eztabaidatua izan da gure literaturgintzan, eta gauza asko esan dira hari buruz, onak eta txarrak, baina ez da lan honen asmoa eztabaida horiekin jarraitzea, baizik eta, haren itzultzeko joera agertzea, eta horretarako beste edozein bezain ona da **Tormes-ko itsu-mutila**.

Badirudi ez direla berdinak itzulpenari buruzko, gaurko eta orduko joerak, zeren gaur egun, itzultzaileak ahal duen neurri handienez errespetatu eta ahal duen modu naturalenean eman behar bait du jatorrizko testua. Orixeek ordea, bere moralismoaren menpe jartzen du jatorrizkoari zor zaion errespetu hori eta gaizki ulertutako paternalismo batean erortzen da; gauzak kenduz, erantsiz, moldatuz... Eta zenbaterainokoa den moralismo hori ikusteko nahikoa dugu lehen aipatu dugun itzulpenera jotzea eta berak jarri zion oharra irakurtzea:

Erdel-yaubearen idazti jatorretik, yardun au (azken atala) osorik kendu dot eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako. Kendu dodaz ganera, esan zantar bat lelengo yardunean, amazortzi lerro irugarrenean, eta bi koma-tarte laugarrenean. Kritikak begirape-na zor egi dautsoe yaubearen idazti jatorrari: nik osteraz zor deusot neure buruari ta irakurle euskaldunari.

Baina atalak eta esaldiak kentzetik aparte beste asko bigundu egiten ditu, eta jatorrizkoan indarra duen esaldia edo hitza ez zeru eta ez lur uzten du:

... **maldita la gota que se perdía**
... *on dakiola galtzen den tantari*

Beste bat aipatzearren:

Hijo de ruin madre
*Doilorkumea (11 or.) **

* Gaztelaniaz ¡**Hideputa!**: aldatu egin du, azkenean Orixeek adierazo ere egiten duenez. Kixotean ere agertzen da esaldi hau: "¡O hideputa, puta y qué rejoy debe de tener la bellaca" (II, 13).

Agerian daude gaztelaniazko eta euskerazkoaren arteko ezberdintasunak eta ez dut uste komentario luzeagorik behar duenik Orixeren joera eta aldi berean ezaugarri honek.

El Lazarillo de Tormes-i buruz esan behar da, Erdi Aroan idatzitako gaztelaniar klasiko bat dela, eta horregatik gaztelez zaharrean idatzia dagoelako, berarekin daramala hizkuntzaren zailtasuna. Hark nahitanahiez, sarritan, interpretazio modu askotara behartzen du itzultzailea, ez duelako bere literaturgintzan mota horretako tradizioirik; eta uste dut hau dela gauza berriak asmatzeko duen arrazoi bat; baina ikus dezagun adibide bat:

Justó muy ruinmente el señor don Fulano, y dió el sayete de armas al truhan, porque le loaba de haber llevado muy buenas lanzas: ¿qué hiciera si fuera verdad?

Halako jaun batek zaldi-guduka barregarria egin eban, eta barritsuari gudu-jantzia eman eutson, guztiz ondo egin ebala esan eutsolako. Zer emongo egia izan balitz?

Eta horregatik, aipatu dugun arrazoiagatik, itzulpenak nahiko librea dirudi, halere batz bestea, jatorrizkoa errespetatzen du neurri handi batean eta egokia da itzulpena; haren ezaugarri barru, ezin bait da ahaztu lehen esan duguna.

Beste batzuetan, bi zentzuzko elementuak agertzen direnean ez dio itzulpenari zentzu erreala ematen.

Bere aitaz ari da hitz egiten, garia ostu du eta atxilotu ondoren auzia:

... confesó y no negó y padesció persecución por justicia

... eta zuzentasunagatik larrialdiak igaro ebazan

Kasu honetan *zuzentasunak* eta *justicia*-k ez dute zentzu edo esanahi bera nahiz eta Orixerengan, geroago ikusiko dugun bezala, esanahi desberdinak izan. Jatorrizkoan poliziak atzetik ibili zituela dio eta itzulpenean berriz, zintzoa izan zelako larrialdiak pasa behar izan zituela. Ba dira oraindik beste batzu, eta beste bat aipatzeko:

... achacaron a mi padre ciertas sangrias mal hechas...

... zaku-sahietsetan zan-ebaketa batzuk egin ebazala

Parez-pare itzulita dago baina ez da hau itzultzeko era zuzena, ez bait du jatorrizkoan dagoena ematen. Gaztelaniazko *sangrias*-ek zakuari garia balerio bezalako irudia ematen du, eta euskerazkoak ez du imajina hori ematen. Beharbada hobe litzateke *odol-usteak* egin zituela esatea, irudia mantentzen bait du.

Eta sintaxiari begiratzen badiogu, laster konturatuko gara ez duela jatorrizkoarekin inolako loturarik eta horretarako nahikoa da jatorrizko testua eta itzulpena parean jartzea, konpara ditzagun, adibide gisa, hitzaurrean datozen hauek:

..della algun fruto; porque si...

... ba leike, azaltzeko.

Osterantzean...

... y adversidades. Suplico...

... dala ikusita.

Hartu begi...

Era honetako aldaketak, mila azaltzen dira testu guztian zehar. Badirudi Orixeren beste ezaugarri bat dela, sintaxiarekiko loturarik eza.

Hitzen hautapenari dagokionean, ez duela aukeratzen zenbait kasutan espero daitekeen hitza esango nuke:

cosas señaladas
gauza ezaugarriak

Bai, ezaugarriaren esanahi bat hori da, ezagutzea merezi duten gauzak, baina ez da normalean zentzu horrekin erabiltzen eta kasu honetarako zituen aukerak *nabarmenak* eta *garantzizkoak* normalagoak edo egokiagoak izanik ez ditu erabiltzen.

Nahiz eta Orixek ez izan garbizale amorratua zenbaitetan purismoaren eragina nabari zaio:

soldado armada
gudari gudari-talde

Merezi dutela, uste dut, bi hitz hauek, komentario labur bat. *Gudari* hitza hasiera batean **soldado** bazen ere laster *euskal soldado*-a bakarrik izatera pasa zen, ez da orduan itzulpen egokia, egokia ez den bezala *gudari-talde* ez bait du esanahi zehatzik eta edozein gauza izan daitekelako, "compañía", "batallón"... Baina garbizaletasun horren barruan badira oraindik zenbait hitz:

letras obra de arte competición de caballos
idazti ederlan zaldi-guduka

Baina, haren garbizaletasun joeraz, Patxi Altunak beste gauzen artean honela dio:

... (*inork*) ez bezelako teknika du Orixek itz berriak tajutzen. Eta Orixeren bidea aurrekoena baina egokiagoa zela dio. (Azurmendi, Joxe. **Zer dugu Orixeren kontra.**)

Halere, ez da nahikoa gauzak nolabait adieraztea batez ere hizkuntza teknikoaz ari garenean zeren gauzak zehatzak bait dira eta zehatzak eman behar dira: eta ez du balio, herriak ez duela hizkuntza teknikoak ulertzen esatea, honelako hitzak asmatzeko:

cultura concepto filósofo
buru-lan buruan ernea iakinzale

existencialismo
izaten-filosofia

aclaración, explicación
zuzenbidea

Azken adibideari buruz esan behar da lehen justizia zena Orixeren baitan batzutan *justizia*, bestetan *argibidea* edo akla-razio bihurtzen dela (ibidem).

Bai, Orixe "trebe baino trebegoa izan da beti hitz berriak sortzeko -batez ere hitz elkartuak- edo hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko". Baina bidea bera dago problemaz eta nekez betea (ibidem). Eta problema horiei aurrea eman ez zitelako, lortu nahi zen garbitasun hori, iluntasun eta nahaspide bihurtu zen. Eta era berean, garai hartako idazleek sarritan iluntasun horretara bultzatu zituzten beraien ikasleak, bilatu zituzten irtenbideak ez zirelako baliagarriak. Ikus ditzagun bere lanetan erabilitako irtenbide batzu :

1) Azpimarra faltsoak:

duten medium hori
zenbait novela tzarretan

2) Komatxoak:

"*pampa*"etan
"quietistak"

3) Erdal ortografia gordetzea:

nominativoa aldatu; ablativoa denean; guzti honetan ez dago el arte por el arte.

4) EDO batek soluzionatzen duena:

... iritzi miritzi edo kritika...
Bi atake edo eraso

5) Parentesia:

Erdi Aroko ikur-iztiak (epigrafiak)
Guk aintzinako norki (personaje) bi...

6) Erdarazko itzulpena:

... otoitz bikainari, erderaz alta oración esan...
Gure buruaren ederra edo herriak esaten duena, eder-itsusia erderaz esan, amor propio. (ibidem)

Baina guzti honek, aurrerakada izan ordez atzerakada handi bat suposatu zuen.

Eta berriro itzulpenara itzuliz; estilo aldaketa nabarmenak ageri direla testuan, esan behar. Sintaxiarekiko lotura ezak estilo aldaketa dakar, baina utz dezagun aldaketa mota hori eta ikus dezagun hurrengo esaldikoa:

... le pesa cuando le dicen: !Oh, qué maravillosamente lo ha hecho vuestra reverencia!

Orixek zuzenean emana dagoena honela itzultzen du:

Hasarratuko al da -egundoko ederto dihardu berorrek-esaten ba deutsoe?

Baina beste puntu batera aldatuz, hizkuntzaren mailara, hain zuzen, Orixek, itzulpen honetarako bizkaiera aukeratu du, baina beste euskalkiak ere menderatzen zituen. Bizkaiera errespetatzen du neurri handi batean, aditzak, erakusleen erabilera berezia, lexikoa, eta abar; baina halere bi alde bizkaierarekiko ez dira betetzen, alde batetik s eta z kontsonanteen arteko nahasketa, eta bestetik h-aren erabilera; bizkaierak ez du kontsonante hori idazteko tradizioirik izan:

*Holan
ahaiztu-hobian
haugatik
lehena*

Haren euskalkien ezaguera aipatu dugunez, hona zer dioen I. Sarasolak:

"Euskalki guztiak ezagutzen zituen eta oroz baliatu zen bere esperimenduetan, euskal prosarentzat bide berriak irikirik. Baina esperimenduzaletasunaren ondorioz, Orixeren obraren balorearen desberdintasuna eta koherentzi falta nabarmentzen dira. Hori da, hain zuzen, Orixeren behaztoporik handiena, gaurko idazleentzat eredu bezala jartzeraokan".

Bestalde hizkuntzaren jabetasun kontuan, Orixeren handitasuna itzulpenetan azaltzen da batipat, arlo honetan literato

antzera jokatu du jatorrizkoa birkreatuz, baina bere iritzien arabera, gauzak aldatuz, moldatuz. Itzultzailea jatorrizkoari zor zaio eta horregatik eztabaidagarria da bere joera hori. Harelere hau, nahikoa errespetatu du, baina kontutan izanik aipatu ditugun arazoak, agian gauzak gehiegi errazten ditu.

Idazlan guztiek, Orixeren printzipioz, ulergarriak izan behar dute, edozeinek ulertzekoak eta horretarako sarritan gehiegi erraztera darama, beste batzuetan egokitza; baina honela testua gaizki ulertzeko arriskuan jartzen du irakurlea, ez bait ditu gauzak zehatz-esaten eta interpretazio gehiagora bul-tzatzen du.

Orixerentzat, euskarak dohain bereziak zituen eta ez zuen hizkuntza teknikoaren eta arruntaren arteko diferentziarik ikusten edo gutxienez edozein etxeoandre edo artzaik ulertzeko egin zitekeela uste zuen. Baina ez da zaila bien arteko diferentziak ikustea. Gaurregun biak beharrezkoak dira nahiz eta hizkuntza tekniko ezer ez izan hizkuntza arruntaren ezean.

Baina, nolabait esateko, Orixe lurperatu zuen arazoa, bere iritziez gain bere garaiko garbizaletasunaren arazo eta krisia izan ziren eta bere garaikoa zelako, Orixe, bere garaikideekin eta mugimendurekin batera desagertu zen.

Bibliografia

- AZURMENDI, Joxe. *Zer dugu Orixeren kontra*. Jakin, Donostia, 1976.
 AZURMENDI, Joxe. *Zer dugu Orixeren alde*. Jakin, Donostia, 1977.
 Anonimoa-ORIXE. *El lazarillo de Tormes - Tormesko itsu-mutila*. Lauro ikastola. Bilbo, 1984.

SINTESIS

La figura de Nicolás Ormaetxea, "Orixe" (1888-1961), es una de las claves necesarias que ayudarán a interpretar la actual literatura vasca, tanto en lo que se refiere a literatura de creación como en lo referente a literatura de traducción, ya por su obra propia como por la dinámica creada en torno a su persona en la pre y posguerra.

El autor analiza en este caso la traducción del *Lazarillo de Tormes* llevada a cabo por aquel al dialecto vizcaíno y publicada en 1929.

Señala el autor el paternalismo moralista que llevó al traductor a cambiar términos *malsonantes* y hasta a suprimir totalmente el último capítulo del libro y rehacerlo según sus dictados morales le ordenaban.

Aparte de tan singular criterio moral, el autor da cuenta del pensamiento estilístico y literario de Orixe, ampliamente compartido por los literatos y traductores de su tiempo. Si tanto abundan las simplificaciones sintácticas y los cambios de estilo en la traducción de Orixe, no es por falta de capacidad ni desconocimiento de la lengua, sino por convicción teórica. "Une belle infidèle", "belle" ciertamente, paradójicamente, "infidèle".

El articulista reconoce, pues, el valor magistral que la obra de Orixe, incluidas sus traducciones, ha tenido en la posterior literatura vasca.

SYNTHESIS

The figure of Nicolas Ormaetxea, "Orixe" (1888-1961) is one of the keys necessary to the interpretation of modern Basque literature in the fields of both literary creation and literary translation for two reasons. Firstly, because of his work and secondly because of the dynamic surrounding his personality in the pre and post-war years.

The author analyzes in this case the translation made of *Lazarillo de Tormes* into the Biscayan dialect which was published in 1929.

The author points out the moral paternalism which led the translator to change words which he considered offensive and to even suppress the last chapter of the book completely and rewrite it according to his own moral dictates.

Besides this rather distinctive moral criteria the author gives an account of the stylistic and literary thought of Orixe, widely shared by the literary figures and translators of his time. Although syntactical simplifications and changes of style were numerous in Orixe's translations, they were neither the result of a lack of ability nor a lack of knowledge of the language but moreover due to his theoretical convictions. "Une belle infidèle", "belle" certainly, paradoxically "infidèle".

The writer thus recognizes the magisterial quality of the work of Orixe, including that of his translations, in the later development of Basque literature.

IRUZKINAK

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea

META. Journal des Traducteurs-Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Montréal, mars 1985. Vol. 30, N. 1, p. 1-114. Numéro spécial. Sous la direction de Eliane Orléans-Gerstein. **Interprétation de Conférence / Conference Interpretation.**

Sommaire-Contents

Un mot... vaut-il mille images? *Eliane Orléans-Gerstein.*

Le pulsations de la traduction. *Walter Moser.*

Interprétation ou interprétariat? *D. Seleskovitch.*

L'interprétation, manifestation élémentaire de la traduction. *Marianne Lederer.*

L'oralité de la traduction orale. *M. Garcia-Landa.*

The Kintsch and Van Dijk model of Discourse Comprehension and Production Applied to the Interpretation Process. *Jennifer Mackintosh.*

Le modèle d'efforts et l'équilibre d'interprétation en interprétation simultanée. *Daniel Gile.*

Conference Interpreting - A Multichannel Communication Phenomenon. *Hildegund Bühler.*

Le registre littéraire en interprétation simultanée. *Karla Dé-
jean le Féal.*

Expressions. *Gérard Ilg.*

Physiology: a Questionnaire. *Sylvie-Michèle Lambert. Wallace
Earl Lambert.*

Light Relief A Palindromic Interpreter's Life. I. *Marian Ma-
rica.*

The Nuremberg Trials (Communication through Translation).
Margareta Bowen.

La responsabilité de l'interprète de conférence professionnel ou
Pourquoi nous ne pouvons pas écrire nos mémoires? *Christo-
pher Thiéry.*

The Conference Interpreter's Working Environment under the
New ISO and IEC Standards. *R. Walter Jumpelt.*

Interpreting for International Satellite Television. *A. Daly.*

Screening Potential Interpreters. *Barbara Moser-Mercer.*

Le métier d'interprète - d'hier à demain. *Thérèse Romer.*

SI: A Note on Error Typologies and the Possibility of Gaining
insight in Mental Processes. *P.A. Jensen.*

META. Journal des Traducteurs-Translators Journal. Organe
d'information et de recherche dans les domaines de la traduc-
tion, de la terminologie et de l'interprétation. Montréal, juin
1985. Vol. 30, N. 2, p. 119-198.

Sommaire-Contents

Terminologie et efficacité de la communication: critères lin-
guistiques. *Rostislav Kocourek.*

Studies of Translation Models 3. An Interaction Model of the
Translation Process. *Ronald H. Bathgate.*

De l'idée à l'énoncé: une expérience et son exploitation péda-
gogique dans la formation des traducteurs. *Daniel Gile.*

Consecutive interpretation Training: Videotapes in the Class-
room. *Nancy Schweda-Nicholson.*

Etudes Terminologiques et Linguistiques

Scientific Terminology in the Arab World: Production, Coordi-
nation, and Dissemination. *Mahmoud Esmail Sieny.*

L'arbre de domaine en terminologie. *Massiva N. Zafio.*
Je ne file pas très bien aujourd'hui ou Comment ne pas traduire le verbe «to feel». *Geneviève Quillard.*

Documentation

Bibliographie. *Irène V. Spilka. Robert Serré.*
Comptes rendus. *Daniel Gile. Marthe Faribault. Gilles Bélanger. Antoni Dandonneau. J.-P. de Chezet.*

Bloc-Notes

Interpreting/Translating in Australia. *Adolfo Gentile.*
Evolution in Translation since 1966 as Reflected in the Pages of META. *Roda P. Roberts.*

CONTRASTES. Revue de l'Association pour le Développement des Etudes Contrastives. **Traduction automatique -Aspects européens-**. Hors Serie A4. Janvier 1984.

Sommaire

Présentation.

SYSTRAN et EUROTRA: La traduction automatique à la Commission des Communautés Européennes.

Traduction automatique et périphériques: évaluation, post-édition, attitudes, formation. *A.-M. Loffler-Laurian.*

Reflections on transfer in machine translation. *S. Krauwer & L. des Tombe.*

De la traduction automatique à la réflexion linguistique: la traduction de la préposition anglaise *through*. *M.-C. Bourquin-Launey.*

Old men and women in glasses: a headache for computational linguists. *X. Huang.*

Quel statut épistémologique donner à la traduction automatique? *G. Bourquin.*

Traduction automatique, analyse linguistique et didactique des langues. *J.L. Vidalenc.*

Contemporary perspectives in machine translation. *R. Johnson.*

Fragments de fugue. *J.M. Zemb.*

Hizkuntzalaritza kontrastiboko ikerketan aritzen den "Contrastes" aldizkariak, itzulpenarekin zerikusia duten alderdi desberdinak lan monografikoan bidez sakontzeari ekin ohi dio. Oraingoan Europaren batasunerako garrantzi handia duen gaia jorratzen du: itzulpen automatikoa.

Jean-Michel Laurian-en gidaritzapean buruturiko mahai-inguru baten emaitzarekin hasten da liburua, eta bertan Europako Komunitateetan erabiltzen diren itzulpen automatikorako bi sistema nagusien berri ematen da, SYSTRAN eta EUROTRA sistemena hain zuzen.

Loffler-Laurian-ek itzulpen automatikoaren albo-eginkizunez idazten du: ebaluazioa, postedizioa, jarrerak, formazio eta abarrez.

Krauwert-Des Tombe-k itzulpen automatikoan gertatzen den transferrari buruzko gogoeta batzu eskaintzen dituzte.

Ondoren bi artikulutan arazo puntual batzu aztertzen dira: *through* ingelesezko preposizioa eta "old men and women in glasses" sintagma itzultzeak sortzen dituenak.

G. Bourquin-ek itzulpen automatikoari eman beharreko estatutu epistemologikoaren gaia lantzen du.

J.L. Vidalenc-ek itzulpen automatikoa eta hizkuntzen didaktika eta hizkuntz analisia jartzen ditu harremanetan.

Azkenik, R. Johnson-ek itzulpen automatikoari gaur egun ikusten zaion etorkizunaz hitz egiten du.

Zalantzarik ez dugu monografiko honen gaia interesgarria ezezik askok uste baino lehen etxeratuko den zerbait denez gero, ongi letorkigukeela beronetaz arduratzen hastea.

Contrastes. Revue de la Association pour le Developpement des Etudes Contrastives. Declarations d'Humour. Hors Serie A5. Juin 1985.

Umorea eta Itzulpena da ADEC eta CRELIC-ek 1985eko abenduaren 13 eta 14ean Parisen antolatutako duen bilerarako gaia. Jardunaldi hau prestatzen hasteko 1984 azaroko *Contrastes* N. 9-an "Dossier-Discussion" bat argitaratu zen eztabaidagaitzat.

Monografiko honetan ildo beretik jotzen du zuzendaritzak eta lau lan eskaintzen ditu:

Ivan Fonagy, **He is only joking** (Txistea, metafora eta hizkuntz garapena).

Anne-Marie Laurian, **Some aspects of humor in scientific communication.**

John F. Moffitt, **Les Nexus-Systématiques visuelles-textuelles / "Nexus-Systematics": a provincial exercise in late modernist art-thinking** (artikulua ingelesez idatzirik dator).

Haim Vidal Sephiha, **Messages, transmissions, traductions et humour - Remarques préliminaires.**

Contrastes. Revue de l'Association pour le Developpement des Etudes Contrastives. H. Pottier Navarro: **La polysémie lexicale en espagnol. Théorie et résolution.** Hors Serie T1. ADEC. Paris, Mai 1985.

Contrastes aldizkariaren zenbaki monografikoa dugu honako hau, polisemiaren arazoa gaitzat duena. Izenburuak dioenez, gaztelaniar hiztegiaren polisemiaz jardun du egileak; ene ustez ordea lanaren helburu nagusia polisemia orokorraren aztertzean datza, hau da, hizkuntza natural guztietan ematen den fenomeno semantiko gisa. Gaztelania eredutzat hartzen da, azterketa jakinetarako materiale. Areago: polisemiaren bitartez hiztegiaren azterketa semiko (posible) baten eredia aurkeztu nahi dela lan honetan iruditzen zaigu. Iritzi hau baieztatu egiten dute izan ere *Conclusion* eranskina amaitzen duten hitzek: «Esperientziak erakutsi digu ez zegoela lexiak aztertzeko *metodo bakarrik*. Hauetariko bakoitza ezaugarri eta erlazio semikoen alderdi bat zein bestea lehen mailan jartzen duten azterketei egokitzen zaizkio. Hizkuntza baten hiztegiaren osotasunari aplikagarri zitekeen "semantika orokor" batetik oraindik oso urrun garela dirudi» (162 or. Azpimarrak bereak dira).

Bestalde, esan behar da egilea batez ere Bernard Pottier hispanista ezagunaren lanetan oinarritzen dela; semantika estrukturallean sartzen da bete-betean beraz. Hala ere, gramatika sortzailearen zenbait kontzeptu *-competence eta performance* bereziki- ere erabiltzen ditu.

Azterketaren objektua honela zabaltzea *-gaztelaniazko polisemiatik semantika orokorrera-* ez zaigu batere harrigarri gertatzen ordea. Metaforari buruzko liburu inportante batetan antzeko gauza gertatzen da: azkeneko atalak "azterketa semiko batetarako" ("por un análisis sémico") du izenburu eta gai. Izan ere arazo jakin baten deskribapenak ingurukoen azterketa ere suposatzen du: azkenean, alor osoa deskribatu beharra izango dugu. Eta hau oso nabarmena da oraindik ere hain eztabaidatua den semantikaren mundu labainean.

Aurrera egin aurretik ordea lana agertu egin behar da. Liburuak berak dakarren aurkezpenean oinarrituko gara honetarako. Bi zatitan banatzen da lana: lehenengoa teorikoa da eta polisemiaren problematika orokorra lantzen du. Hizkuntz komunikazioaren mekanismotik abiatuz, polisemia komunikazio ekintzaren une desberdinetan agertzen dela erakusten digu egileak, hainbat polisemia mota bereiziz: erreferentzia mailakoa, hizkuntzakoa, berbaldikoa; bereizi egiten ditu halaber polisemia eta mezuaren anbiguotasuna *-igorle do hartzailearen arabera-*, eta hau morfema, enuntziatu eta testu mailan (errefrauen azterketaren bitartez azalduz testu polisemia). Polisemia eta homonimiaren arazo eztabaidatua ere ukitzen du, eta baita ere metafora eta metonimiaren teoria berri bat aurkeztu *-polisemiaren ikuspegitik*.

Bigarren zatian adibide jakinak aztertzen dira. Lehenik, gaurko testu literario eta zientifiko bana aztertuz, ikusten da nola hizkuntz (edo gaitasun) mailako polisemia berbaldian berriz monosemian gauzatzen den. (Eta hau ene ustez liburuaren alderdirik berri eta interesgarrienetakoa, nahiz eta ez garrantzi handirik izan lanaren osotasunean). Gero, "Lexia-lekuko" (lexies-témoins)

zenbaiten azterketa aurkezten da, hala nola *cuarto, verde, levantar, fuente, plantarena*, korpus zabal batetan oinarrituz (zabala, bai denbora, bai testuen ezaugarri dagokienean). Denotazio eta konnotazioak kontutan hartzen dira, eta anbiguotasuna apur lezaketen prozedurak ere aipatzen dira. Bukatzeko, esan bezala, ondorio gisako eranskina dator: ondorio honetan, kasu jakinetatik teoria orokorrerako zenbait hipotesi eskaintzen dira.

Esan liteke lan honek deskribapen semantiko sakona eta metodologikoki koherentea osatzen duela. Azpimarratu egin behar da "lexia-lekuko" delakoan egokitasuna: kasu interesgarriak bait dira, bai sinkronia, bai diakroniari dagokienean; eta hitz arruntak dira gainera, ohizko adibideak (eserleku, garrarioak) edo adibide bitxiak (teoriarako aproposak) baztertzuz. Gure ustez, egileak teorian eta azterketa jakinen bitartez frogatzen duen gauzarik garrantzitsuena hau litzateke: hizkuntz polisemiari bada ere, berbaldian ez da (ia) inoiz agertzen: «Normalean, mezu "performatuak" monosemikoa izatera jotzen du. (Monosemiko) ez denean, hiztunaren nahiaz sortzen da, zeinek "hitz jokua" egiten dituen (...), edo hiztun horren ardurarik-ezari edo hartzailearen interpretazio okerrari zor zaio...» (17. or.).

Azpimarratu nahi genuke zenbait puntutan ez gatzela bat egilearekin. Horrela, polisemia "erreferentziala" izendatzen duena: hizkuntz zeinu eta aipaturiko objektuaren arteko harreman gisa definitzen du, *izendapena* da beraz; eta (adibidez) "zuhaitz" edozein zuhaitzi esan diezaiokenez, polisemia omen dugu. Guk, horrelakoetan, hizkuntz sinbolizazioa aipatuko genuke, besterik gabe (edozein hizkuntzalarik bezalaxe bestalde), ez bait zaigu egokia -ez serioa- iruditzen hizkuntzaren funtzionamenduaren oinarrian polisemia jarzea. (Polisemia ohizko zentzuan ulertzen bada behintzat: adierazle bakarrantzat hainbat adierazi, egileak onarturiko definizioa berau).

Beste puntu eztabaidagarria *errefrauei* dagokiena iruditzen zaigu. Errefraueak esaldi-polisemiaren (*polysémie phrastique*) eredutzat hartzen ditu egileak: kasu eta egoera askotan bait dira aplikagarri. Gure ustez aplikagarritasun horrek ez du inolako zerikusirik polisemiarekin, berbaldiaren (funtzionamenduaren) zenbait ezaugarrietatik baizik -pragmatikoak bereziki-: erabiltzaileek ezagutzen dute errefrauen eredu-balioa, Coseriuuk dioen bezala (2) berbaldiaren "zati errepikatua" bait dira. Honetaz gainera, eta Pottierrek dioen bezala forma linguistikoki jakinetan gauzatzen dira, tradizioz osaturikoak, eta balio mnemotekniko nabaria dutenak; baina ez dugu uste inolako polisemiarik dagoenik hor.

Metafora eta metonimiaren azalpena ere nahiko eztabaidagarria iruditzen zaigu; ez dugu hala ere hemen aipatuko, gehiegi luzatuko ginateke eta (3). Gainera, funtsean behintzat, aurrekoen arazo bera planteiatzen dela dirudi: fenomeno semantiko guztiak (edo asko behintzat, eta garrantzitsuak gainera: izendapena, metafora, metonimia, konnotazioa, denotazioa...) polisemiaren bitartez esplikatzen dira. Egilearen beraren honako hitzok kontutan izanik, uler dezakegu bere ikuspegia: "ukaezina da hizkuntzaren ia morfema guztiak polisemiak dira..." (19. or.). Ikuspegi honetatik beraz -hipotesi honetan oinarriturik- polisemia (ia) fenomeno guztien iturri litzateke. Gure ustez, balegoke bestelako hipotesirik: hizkuntzan -gaitasunean- lexien sememak -suabego, hitzen esanahiak- oso irikiak lirateke, sema gutxiz oso trinkoak, eta horrek permitituko luke hitz horien erabilera efektibo -berbaldian- zabal eta aberatsa. Polisemia kasu interesgarriak (ia) homonimia direnak lirateke, hau da,

esanahiak oso desberdin sentitzen direnean: horiek tratatuko bait lukete (edo aberastu, segun) komunikazioa. Badakigu hau esatea ezer gutxi dela; honegatik Pottierren lana -azterketa jakin eta dokumentatueta oinarritua-, deskribapen semikorako aportazio interesgarria dela uste dugu.

Bukatzeo, eta gauden lekuan gaudela, egileak ondorioan zenbait hitz eskaintzen diola itzulpenari esan behar da: "Egia da Hizkuntza Natural guztiei dagokien polisemiaren fenomenoak arazo larriak sortzen dituela HN¹etik HN²ra itzuli behar denean, nekez agertzen bait da hizkuntza batetik bestea- rekiko egokitasuna.

Gure azterketa erabilgarria iruditzen zaigu itzulpen automatikoaren ikerketarako adibidez, bereziki azterketa semantikoan oinarritu behar duen ikerketa da eta" (162. or.).

Ea nor animatzen den.

Koro Navarro

Oharra eta Bibliografia

- (1) M. LE GUERN, *La metáfora y la metonimia*. Cátedra, Mdríd, 1978.
- (2) E. COSERIU, "Introducción al estudio estructural del léxico". Principios de semántica estructural. Gredos, Madrid, 1981.
- (3) Ez dugu ukatzen noski alor korapilotsua denik hau, eta fenomeno hauek ondo mugatzeko zailtasuna.

Cuadernos de Traducción e Interpretación. 1984: Año Shakespeare. N. 5/6. E.U.T.I. Escuela Universitaria de Traductores e Intérpretes. Universidad Autónoma de Barcelona, Bellaterra, 1985.

Indice

1984: año Shakespeare. *Fernando Valls*.

Nuevas ediciones shakespearianas. *Stanley Wells*.

Actualidad de Shakespeare. *Joan de Sagarra*.

[Recuerdo de Procusto: traducir a Shakespeare]. *Manuel Mújica Lainez*.

Un soneto de Shakespeare, otro de Miguel Angel. *Luis Antonio de Villena*.

Una traición a Shakespeare. *José María Micó*.

Herederos de Hamlet. *Emilio Barón*.

Shakespeare y sus traducciones en España: perspectiva histórica. *Esteban Pujals*.

En el nombre de Astrana. *Eduardo Haro Tecglen*.

Shakespeare: familia y sociedad. *Cándido Pérez Gállego*.

Usos del humor en Enrique IV. Aránzazu Usandizaga.

«Mucho ruido y pocas nueces». Inma Garín.

Diàriament, periòdica, sempre Shakespeare. Rosa Maria Martínez Ascaso.

Entrevista

Sempre amb Carme Serrallonga. Ricard Salvat.

De la traducció teatral. Parlant amb Carme Serrallonga. Lourdes Mañé i María Dolores Herrera.

Reseñas

William Shakespeare, *Romeo i Julieta*, Vicens Vives, Barcelona, 1984. Traducció de Salvador Oliva.

Josep M. Nadal i Modest Prats, *Història de la llengua catalana, I (Dels inicis fins al secle XV)*, Edicions 62, Barcelona, 1982.

M. Esgueva y M. Cantarero ed., *Estudios de Fonética, I. CSIC (Collectanea Phonetica, VII)*, Madrid, 1983.

T.S. Eliot, *La tierra baldía*, Swan, Madrid, 1982. Estudio preliminar y versión métrica de Avantos Swan.

Alberto Blecua, *Manual de crítica textual*, Castalia (*Literatura y Sociedad*, 33), Madrid, 1983.

Pierre Alzieu, Robert Jammes, Yvan Lissorgues, ed., *Poesía erótica del Siglo de Oro*, Crítica, Barcelona, 1984.

José Ferrater Mora, *El Mundo del escritor*, Crítica, Barcelona, 1983.

Louis Hammer & Sara Schyfter, *Recent Poetry of Spain. A Bilingual Anthology*, Old Chatham, Sachem Press, Nueva York, 1983.

M. Teresa Espinal i Farré, *Els Verbs auxiliars en català*, Monografies de Quaderns de Traducció i Interpretació 1, Escola Universitària de Traductors i Intèrprets, Universitat Autònoma de Barcelona, 1983.

John Lyons, *Lenguaje, significado y contexto*, Paidós (*Paidós comunicación*, 6), Barcelona, 1983. Traducció de Santiago Alcoba.

Xavier Romeu Jover, *Manual de fonología catalana*, Barcelona, 1983.

Luis S. Granjel, *Eduardo Zamacois y la novela corta*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 1980.

El Crotalón. Anuario de Filología Española, Madrid, núm 1, 1984.

Aldizkariaren atarikoan esaten denez, urte guztiak dira Shakespeare-ren urte, baina urteurrenak eta antzeko ospakizunak ongi etortzen dira aitzakia horrekin eskuetan daukaguna bezalako ahaleginak burutzeko eta "itsaso hondogabea" den Avongo Zisnearen lan erraldoia zertxobait aztertu eta sakontzeko.

Hamabi artikuluk ekin diote Skakespeare-ren lana eta beronen itzulpena ikertzeari; eta hurrenez-hurren egingo dugu nagusien aipamen labur bat, itzulpenari buruzkoa bereziki azpimarratuz.

"Nuevas ediciones shakespeareanas". Oxford Unibertsitateko Stanley Wells-ek dioenez Shakespeare-ren obrak argitaratzean ortografia isabelinoa erabiltzea, agian fonetikoagoa gerta liteke, eta ortografia zaharra gomendagarria izan liteke bertsoetarako eta noizbehinka erritmoa, hitz-jokoak eta hala egiteko baina, oro har, editoreak ikusten dion auragatik bakarrik erabiltzea Beethovenen sonata bat pianofortez jotzearen antzeko derizkio: ortografiatzko konsistentziarik ezari nahasmendu fonetiko gehitzea besterik ez omen da lortzen. Beraz Stanley Wells erabat ortografia gaurkotuaren aldeko agertzen da, nahiz eta badituela zailtasunak onartu.

"Actualidad de Shakespeare"-en Joan de Sagarrak Shakespeare-ren obrak ezagutu dituen "irakurketa" desberdinak aipatzen dizkigu: Jan Kott, poloniarra, 60. urteen hasieran; ondoren Peter Brook-ek *The empty space*-en egin zuena. Eta gaur egun aurreko bien sintesi bat dabilela nagusi uste du Lluís Pasqual eta Giorgio Strehler-en muntaietan. Gaur egun, De Sagarraren ustez, teatro-zuzendariak berriro hasi dira testuaz gehiago arduratzen eta hau seinale ontzat dauka: teatroak *engagé* izateari utzi eta plazer izaten hasi da.

"Herederos de Hamlet" (Notas sobre la poesía irónica moderna) artikuluan, Kanadako Queen's Universityko Emilio Baron-ek, zalantzan jartzen du Baudelaire poesia modernoaren aita delakoa eta Tristan Corbière eta Jules Lafargue berreskuratu nahi ditu poesia modernoaren sentiberatasun hiritarrari dagokionean.

Dena den, Baudelairek estetika modernoaren oinarrian jartzen dituen bi ezaugarri funtsezkoak surnaturalismoa eta ironia izaki, bigarren hau erreferentziatzen harturik, frantses poesian hiru joera bereizten ditu: lehena (Mallarmé-Valéry) eta bigarrena (Rimbaud-Lautréamont), hirugarrena (Cabière, Lafargue, Charles Cros eta Apollinaire) ironia irtenbidetzat hartzen dutenena da Baudelaireren baldintza hobekien bejaten duena. E. Baron-en ustetan, Lafargue eta Eliot, biak Hamlet-en oinordeko dira. Hamlet-ek, botereaz gabeturiko printzeak, bazterturik aurkitzean poesia dramatiko eta mintzaira ironikoa lantzeari ekiten dio eta honetan poeta modernoaren aurrirudi da.

Esteban Pujals-en "Shakespeare y sus traducciones en España: Perspectiva histórica" artikulua Espainian egin diren Shakespeare-ren itzulpenen ikuspegi labur bat eskaintzen du. Berandu samar -mende eta erdi geroago- hasi zen Espainian Shakespearez hitzegiten eta XVIII mendean European sortu zen Shakespeare-zaletasunak eta Voltaireren kritikak pizten du José Cadalsoren luma muturrean sua, Cadalsok abortotzat zeuzkan frantseserara eta Ramón de la Cruz-ek espainierara egindako itzulpenak.

Moratinek zehaztasun eta errespeto handiz burutu zuen Hamlet-en itzulpena.

1838-an, José García de Villalta-k **Macbeth** itzuli zuen eta ingelesa ongi ezagutzen zuenez gero, lan bikaina burutu zuen prosaz baina ez hainbestekoa bertsoz.

1840-an Bartzelonako unibertsitatean, Berguesek **Crestomatía Inglesa** argitaratzen du bere ikasleentzat eta bertan **Hamlet**, **Macbeth** eta **Otelo**-ren pasarteak ageri dira.

Baina XIX menderen bigarren partean izan zen itzulpenen egiazko aroa. Matías Velasco, Dos Hermanas-ko markesa izan zen itzultzaileen aurrelari baina goiz hiltzeak obra gutxi itzultzeko aukera eman zion, ingelesa ere ez zuen hainbeste menderatzen eta bertsozko itzulpena eskas samarra da. Claik eta Macpherson ingelesak itzulpenak ugariagoak eta gogoangarriagoak dira.

XX mendearen sarrera, Cipriano Montoliu-ek Shakespearearen produkzio dramatikoa erdia itzuli zuen gaztelaniara, J. Benaventek **King Lear** (1911); Celso García Morane-k hiru tragedia eta hiru komedia argitaratu zituen eta beste zenbait idazlek katalanerara itzultzeari ekin zion. **Hamlet** bat euskararaz eta **Macbeth** galegoz ere badaude. Baina XX mendeko hiru itzulpen garrantzikoena Astrana Marín, José María Valverde eta José María de Sagarrak katalanera egindakoak dira. Lehendabiziko bien itzulpenak presazkoak dira eta esaldiz-esaldi eginak eta lan gailenak ez badira ere leialtasun-nahi batez burutuak dira. J.M. de Sagarrak bertso zuritan egin zuen bere katalanerazko itzulpena eta berau da Espainian dagoen itzulpenik bikainena.

Gaur egun Valenciako Unibertsitateko Shakespeare Institutua ari da obra osoa itzultzen Manuel Angel Conejeroren gidaritzapean eta ekipo ongi prestatu honengandik itzulpen gailen bat espero liteke. Dagoeneko sei obra agertu dira.

"**Shakespeare: familia y sociedad**" artikuluan Cándido Pérez Gallegok dioenez, dramaturgoaren obretan, familia suntsitzearen zeremonia estrainio bat omen dago, gero berriz eraikitzeko, gizona desagite bat, ondoren atzera berregiteko. **King Lear**-en amaiera izan omen liteke aitaren bilaketa-zeremonia horren giltza, eta Kent, zerbitzari leialaren hitzetan ageri da: "I have a journey, sir, shortly to go; my master calls me, I must not say no".

"**Usos del humor en Enrique IV**"-n, Aránzazu Usandizagak jeneroen teoria aipatetik hasten da, osagai historiko eta komikoen integrazioaz hitz egiteko ondoren, komikotasunak bere buruaz egiten duen hustirapena eta metafora nagusietan alderdi historiko eta komikoak nola biltzen diren esateko azkenik.

Inma Garín-ek "**Mucho ruido y pocas nueces**" obraz R.S.C.-k Bartzelonan egin duen muntaia aitzakiatzat harturik Royal Shakespeare Company-k landu dituen alderdiak aztertzeari ekiten dio.

"**Diàriament, periòdica, sempre Shakespeare**" titulupean, Rosa María Martínez Ascaso-k "Biblioteca de Catalunya"-n dagoen fondoko egunkari eta aldizkarietan Shakespeare eta beronen obrari buruz ageri diren kritika, iruzkin eta interpretazioen zerrenda prestatu du, hiru sailetan: I) Egunkarietako artikulua penintsulako hizkuntzetan. II) Aldizkarietako artikulua penintsulako hizkuntzetan. III) Aldizkarietako artikulua atzerriko hizkuntzetan.

Azkenik, Carme Sarrallonga, itzultzaile katalanari buruzko R. Salvaten artikulua bat eta Mañé-Herreraren elkarrizketa bat datoz aldizkaria ixteko.

Xabier Mendiguren

Bibliografia

UZEI: "Zuzenbidea. Hiztegia" 1 eta 2. Donostia, 1985.

Agertu da azkenean UZEIko Zuzenbide-hiztegia, luzaro landua, aspaldidantik itxarona eta behar-beharrezkoa. Lan-prozesu luze eta neketsu baten ondoren heldu da. Bi partetan banatua dator eta bi liburukiz osatua. Lehenengo partea "Hiztegi entziklopediko" deitzen da eta bigarrena "Hiztegi terminologiko".

Lehenengo zati hau Zuzenbidearen sarrera bezala kontsidera daiteke; alfabeto ordenaturiko 1260 eta gehiago artikuluz osatua dago. "Hiru mailatako artikulua dauzka: 15 artikulua nagusi, Zuzenbideko adar handien ikuspegi orokorra ematen dutenak ("Zuzenbidearen Izaera eta Iturriak", "Euskal Zuzenbidea", "Lan-Zuzenbidea", "Gizarte-Segurantza", "Zuzenbide Administratiboa", "Z. Penala", "Z. Prozesala", etab. dira horietako titulu batzuk); 144 artikulua erdimailako, Zuzenbideko kontzeptu funtsezkoenak azaltzen dituztenak; 1.100dik gora artikulua txiki Zuzenbideko kontzeptu garrantzitsuen berri ematen dutenak".

Bigarren partea, bigarren liburuki osoa hartzen duena, "Hiztegi terminologikoa" da. Hiru zerrendaz osatua dago: Euskara-Espainera-Frantsesa (10.036 euskal hitz, beren ordainak espaineraz eta frantsesaz dituztela); Espainera-Euskara (6.349 espainerazko hitz, beren ordainak euskaraz dituztela); eta Frantsesa-Euskara (7.760 frantses hitz beren euskarazko ordainekin).

Zuzenbidea positiboa eta aplikatua izan ohi da gehienbat. Euskal Herrian, berriz, gaur agintzen dutenak bi zuzenbide-mota izaki, Espainiakoa eta Frantziakoa, eta biok elkarren artean biziro desberdinak, nahitaezkoa zen bi Zu-

zenbideok kontutan izatea lan hau egiterakoan. Eta hala izan da. Baina haatik esan beharra dago, Zuzenbide espainiarra eta espainerazko lexikoa izan direla hiztegi honen lehendabiziko erreferentzi puntua. Gero frantseseko ordainak bilatu dira eta Zuzenbide frantsesetik Ipar Euskal Herrirako beharrezko ziren figura juridikoak jaso dira. Aski sinplea da jokaera honen arrazoiak: batipat Hegaldeen erabiliko da, hemengoak dira bertan lan egin duten lankideak, lanari muga batzuk jarri beharra zegoen handiegi gerta ez zedin, eta azkenik oso lan eskerga eta zaila ikusten da honelako lan bat Iparraldekoekin batera eta hango egoerak eskatuko lukeen hedadurarekin antolatzea eta burutzea. Hortaz, bi pausoak osorik eman ezinaren aurrean, pauso t'erdi ematearekin konformatu beharra egon da.

Lexikoa lantzeko hitz asko hustu dira lehendik zeuden hiztegi arruntetatik eta han-hemen zabaldurik zeuden idazlanetik. Honako hauek aipatuko ditugu beste batzuren artean aipagarri deritzegulako: "Euskalerrientzako Sortarau-asmoa" (1933), "Euskadi'ren Berjabetasun Araudia" (1936), "Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa. Diario Oficial del País Vasco" (1936ko urritik 1937ko ekaina bitartekoa) eta gaur egun izenaldaturik agintaritzen den "Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria". Bildutako hitz-mordo horretatik aukera bat egin behar izan da, eta aukeratutakoei berei ere esanahia finkatu behar izan zaie.

Behin puntu honetara helduz gero, planteatu beharra dago hiztegi gileek zorrotz planteatu duten problema bat: euskara-ereduarena alegia. Banan-banan aletzen dira hartu den bidea aukeratzeko izan dituzten arrazoiak:

- Ia ikastola eta eskola guztietan eredu hori erabiltzen delako.
- Euskarazko komunikabideetan, prentsa, irrati eta telebistan gehiena horrela egiten delako.
- Gaur egun idazten diren libururik gehienak horrela egiten direlako.
- Udaletxe eta diputazioetako itultzaile gehienek eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sail eta departamentuk ere hori erabiltzen dutelako.
- Eliz liburu ofizialetako euskara ere, oro har, bide horretatik doalako, nahiz eta Euskaltzaindiak euskara baturako eman dituen arau guztiak ez bete.
- Goimailako irakaskuntzan (UEU lekuko), maila horietako argitalpenetan eta mintegietan dabilen euskara-eredua ere horixe delako.
- "Beraz, arrazoi guzti horientatik, eta inongo agindurik ez bait genuen ikusten gu ereduz aldatzera behartzen gintuenik, euskara-eredu hori geuretzakotu genuen eta horretan mamitu dugu Zuzenbide-hiztegi hau".

Ez nuke bukatu nahi aurkezpen hau, hiztegi honetan kontzeptuen eta hitzen mugak zorrotz definitzen egin den ahalegina aipatu gabe. Konparazio baterako, erdarazko "autoridad" hitzak ordain desberdinak hartzen ditu euskaraz, horrekin adierazi nahi dena zer den kontu. Honela dator hiztegiari:

Autoridad (aginteko pertsona) = agintari, agintedun.

Autoridad (agintzeko ahalmena) = aginpide, aginte.

Autoridad (agintzeko kargua, organoa) = agintaritza.

Autoridad (zerbait egiteko ahal juridikoa) = ahalmen, botere, esku, eskugo.

Autoridad (orokorra) = autoritate.

Garbi ikusten da hor zeinen ordain desberdinak dauden euskaraz erdarazko "autoridad" hitz esanahianitzekoarentat. Eta guztiarekin ere ez da "autoritate" hitza bera bazterterik egon; nola eman bestela "principio de autoridad", "ser una autoridad en la materia" eta horrelakoak?

Beharrezkoa da argitasun-bide hau hitzak egoki erabiltzen ikasteko eta, kontzeptuen mugak behar bezala errespetatuz, ordainak euskal senaren arabera bilatzeko. Lehengo batean irakurtzen nuen "ideien elkartzea, ideien elkartea" = ideien harremana, erlazioa, zerikusia edo adierazteko. Hori idatzi zuenak erdarazko "asociación de ideas" esan nahi zuen, eta hiztegiara begiratu ondoren "asociación = elkarte, elkartze" aurkitu zuen, konturatu ere egin gabe pertsonen "asoziazioari" esaten zaiola "elkarte" eta ideiena beste gauza dela.

Analisi-modu horri jarraituz ez genuke "kontradizio" esateko beti eta bakarrik "kontraesan" erabiliko, gaur gehienek egin ohi duten bezala, "kontradizio" hori "esatezkoa" ala "izatezkoa" den begiratu gabe. Izan ere, bi gauza bait dira euskaraz "kontraesatea" eta "kontraizatea, "kontraesana" eta "kontraizana" nahiz eta biak erdaraz "kontradizio" izan.

Hitz gehienek beharko lituzkete honelako argitasunak, baina hiztegiari buelo handiegia ez ematearren, hitzek "berenez gatazkarik sortzen ez zutenean", argitasun berezirik gabe gelditu dira.

Mila eta gehiago orrialde dituen hiztegi hau (360 lehen partean eta 770 bigarrenean) laguntza handia izango da inondik ere Zuzenbide-munduarekin zerikusirik duen nornahirentzat: jurista, legegizon, notari, abokatu, administrazio-jende eta abarrentzat. Hala izango al da. Horrelaxe opa diogu.

F.M.

PETER RUSSEL: Traducciones y traductores en la península ibérica (1400-1550). Servicio de publicaciones de la Universidad de Barcelona. Barcelona, 1984.

Liburu labur eta atsegin honetan Peter Russelek Iberiako penintsulan Erdiaroaren amaiera eta Errenazimenduaren hasiera bitartean, Europako beste hainbat lurraldetan klasizismo garai bat izan zen unean, egin ziren itzulpenen azterketa egiten du, itzulpengintza horren zenbait ikuspegi desberdin arakatu.

Azterketa gaia, egileak berak aitortzen duenez, itzulpenen beraien sarretan, eta itzulpengintzari buruzko garaiko zenbait tratatutan aurkitu du.

Itzulpenari buruzko eta itzulpenezko hainbat liburu eta saiotan bezala, aztergai den garaiko itzultzaileek dakarten paradoja batetatik hartzen jdu abiabidea autoreak: itzulpenaren ezintasun hainbeste bider aipatua eta kabu-

rik ez duena (ordurako hasiak bait ziren erronka horretan!). Ezintasun hori, izan ere, orduan ere nonbait, itzultzaileek ere aipatzen bait dute maizenik, eta hala ere etengabeko ihardunean ari dira itzultzaileak Iberiako penintsulan dauden errege, printze, markes eta munta gutxixeagoko jende modu entzutekoen gorte, korta edo monastegietan.

Ezintasunaren iturburuak bi eratakoak dira batez ere, garaiko itzultzaileek aitortzen dutenez. Herri hizkuntzen gaitasun gutxia (inguruotan ere horrelakoxe zerbaiten entzutea ez ote dugun!) eta latinaren (batez ere) sotiltasuna dira: "*Si algunas paraules seran trasportades, o que parega que no sien conformes de tot en tot al lati, no sia imputat a oltracuidament de mi, mas que cascú entena que aquell transportament o mudament és per donar entendre planament e gossera los latins, qui sont molt subtils*" (Jaume Conesa, *Historia destructionis Troiae*, 1367), edo gaztelaniaz ezin delako "*el dulce e buen orden de fablar, segunt que en la latina, fallar non se puede*" (Pedro de Cincilla, 1466). Eritzi horrek luzaro iraungo zuen.

Garai horretan, gainera, uste izatekoa zenez, latinetik itzuli zen gehiena Iberiako hizkuntzetara; ez latinetik bakarrik, ordea, nahiz eta testuaren azken sorburua hartan edo grekeran aurkitu ohi zen maizenik. Latinetikotzat ageri ziren itzulpen asko eta asko, aurrez Europako beste zenbait hizkuntzetara itzulirik aurkitu eta haietatik iberiakoetaratuak dira; frantseseratik eta italiararik, edo Italiako dialektu literarioetatik eginak, alegia. Baina Iberia bertako hizkuntza batetik bestera egindako itzulpenak ere ugari izan ziren. Era horretara, itzulpenetako erizpideak batu eta zabaldu egin ziren batetik, eta bestetik literatur altxor munta handikoak metatu ziren orain gaztelera, portugesezko eta katalanerazko deitu litezkeen literaturen hastapenetan.

Horrenbesteko itzulpen ihardunak behar zuen, inondik ere, teoriako zimentarriren bat, eta bazuen eduki ere; itzultzaile gehienek San Jeronimoren jarraitzaile aitortzen dute beren burua, darabilten teoria osoa haren **De optimo genere interpretandi**, Pamakiori egindako epistolari aurkitu izan balute bezala. Egia, ordea, aho bateko aitorten hori baino askoz ere konplexuagoa da askoz ere, ez bait dira ahaztekoak haren interpretaziorako egin ziren zenbait saio, Alfonso de Madrigalek bere **Comento de Eusebio**, S. Jeronimok grekotik itzultitako **Cronici Canones**-en gaztelararako itzulpen komentatua egin duena adibidez. Eragin teoriko gutxixeko izan zuten nonbait Leonardo Bruniren **De interpretatione recta** liburuak, eta Giannozzo Manettiren izenburu berekoak, zeinetan asko jasotzen eta goratzen bait da herri hizkuntzen balioa hizkuntza klasikoaren parean, eta itzulpenetako erizpide modernoagoak ematen dira, Iberiako itzultzaileen artean askoz ere beranduagoa arte gorputz hartuko ez zutenak. Baina ideiak poliki poliki zabalduz joaten bait dira, XVI mendearen hasierarako gutxitan ageri dira dagoeneko, nahiz eta banaka batzurenagan ageri diren oraindik, latin-grekotatik herri hizkeretara itzuli ezina gauza ziurtzat ematen zuten XVeko *topoi* haiek.

Peter Russelek, bere laburrean ere, abiapuntu baliósoak ematen dizkigu georoxeago bide egiten hasiko den euskal itzulpenaren historiaren lehengune hartan zein modutako teoriatan oinarritzen ziren jakin ahal izateko. Pentsatzekoa bait da, Leizarraga bera, bere garaiko seme zenez, eta beste alor batzuetan Europan zebiltzan eztabaiden jakitun eta partaide -pentsa bedi erlijiozko gaietan, bestera gabe-, jakitun eta partaide izango zela Bibliako itzulpenetarako zebiltzan erizpideei dagokien ere. Haren itzultzeko moldea ez da beraz, seguru as-

ko, erlijiozko jarrerak bakarrik baldintzatua, une hartan bertan Europan zehar autore klasikoen itzulpenari buruz zebiltzan erizpide desberdinen jakinaren gainean hartutako erabaki baten ondorio baizik. Eztabaida horren azarrenek, topoi berberak, soma bait litezke Testament Berria-ren sarreran.

J.M. Zabaleta

ASKOREN ARTEAN: La traducción: arte y técnica. Publicaciones de la nueva revista de enseñanzas medias. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid, 1984.

Irakasleek irakasleentzat argitaratzen duten aldizkari horrek monografiko oso bat eskaini dio itzulpen gaiari. Itzulpenak irakaskuntzan txertatua du gai asko, nahiz eta izan, hori baino askoz ere hedatuagoa, (barreiatua?) duen gaia.

Sarrera atsegin bat du liburuak, Valentín García Yebra eta José María Valverde literatur itzultzaile, literaturgile eta teorizatzaile ezagunei egiten zaizkien elkarriketa banatan. Toreadoreek ere aitabixia behar izaten dute alternatiba hartzerakoan, eta "nueva revista"koek ere zorrotzak ikusi dizkiote nonbait zezenari adarrak. Nolanahi ere, beti da eskertzekoa itzulpengintzan horrenbeste bide egirik dutenen eritzia ezagutzeko parada, eta gozagarria da, baita ere, ofizioak ematen duen jakituriazko humore horrekin itzulpengintzak eman dien teoria mola aletzen duten ikustea.

Liburuaren gunea, ordea, gune teorikoa, eta pisua, hiru artikuluk betetzen dute: **La traducción de textos en verso** (Eustaquio Barjau, Complutenseko Filologiako Fakultateko irakaslea); **Sobre la traducción de obras científicas y obras literarias** (Julio Calonge, grekozko katedraduna) eta **Problemas y dificultades de la traducción** (Waldo Merino, frantses eta ingeles katedradun izana).

Hiruotan lehenengoak bertsozko itzulpenaren problematika eta eman izan zaizkion irteerak aipatzen ditu, bera irtenbide zehatz bat ematera ausartzen ez dela. Poema klasiko, oinez neurtuaren arazoak, poema modernoagoenak, eta batez ere itzuli beharrak eragiten duen testu azterketa bereziak poematikara isuri lezakeen argi berriaz dihardu.

Askoz ere artikulua polemikoagoa da Julio Calongek obra zientifikoaren eta obra literarioaren itzulpenaz idatzi duena. Testu mota bakoitzaren itzulpena egi-tera bultzatzen ahaltasun eta premia sozial eta kultural mailak aztertzen ditu.

Azterketa horretan oin harturik, itzulpen zientifikoaren ahalgarritasuna baiezturik premia sozialaren murrizte erabatekoa iragartzen du, mende honen amaierarako zientzia esperimentaletan hizkuntza bakarra erabiliko dela uste bait du. (Oso gauza bestelakoa da dibulgazio maila desberdinetan zein hizkun-

tza erabiliko den, eta zenbateraino behar izango den itzulpena). Oinarrizko baldintza jartzen du, gainera, zientzi testuen itzultzailearentzat, itzultzen duen alorrean espezialista izatea.

Literatur testuaren itzulpenaz dihardunean, itzulpenaren premia guztizkoa baieztaturik, testuaren literaturtasunaren azterketa sakon bat egiten du, aski orijinala, eta itzulpenak kontutan hartu behar duen oinarrizko filosofiaz jarraitzen du.

Itzulpenak dituen arazo eta nekeei buruzko artikuluan, Vinay-Darbelneten teorizazio eta jokamoldeari jarraitzen zaio W. Merino, eduki berririk ozta bat ere dakarrelarik.

Gainerantzeko artikulua bigarren mailara jaisten dira aipatuen ondoan. Aipatzekotan, *la traducción de las partículas italianas ci y vi*, M.T. Navarro Salazar-en hizkuntzalaritza kontrastibozko lana aipatu beharko litzateke, gure artean ere egiteko lirakeen hainbat eta hainbat horrelakoxe ikerketa puntualetarako bidea erakusten bait du.

J.M. Zabaleta

JEAN ETCHEPARE: Buruxkak. Elkar, Donostia 1980. Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. Elkar, Donostia, 1985.

Jean Etchepare (1877-1935), Sarako medikua euskal prosalaririk gorai-patuenetakoa izan da, ez haatik ezagutuena, nola ezagutu faltaz gehienik. Bere bi liburu argitaratuak, **Buruxkak** (1910) eta **Berebirez** (1934) guztiz aurki-gaitzak zirelako, hain zuzen, ez eta are zailagoak aldizkarietan barreiatuak zituena hainbat eta hainbat artikulua.

Oraingo honetan bi berrargitalpen aipatzeko aukera dugu, zeinetan, dituzten sarrerez gainera (Buruxkak: Pierre Lafitteren sarrera mardula, Etchepareren ezaguera onerako balio handikoa, eta Idazlanetan Piarres Charrittonen sarrera laburtzua), Etchepare beraren prosaren "estilo esmerado, atento siempre a conformar con exactitud los matices de pensamiento" (Luis Michelena: Historia de la Literatura vasca) ezagutzeko aukera ederra ematen zaigun. Edo bestela Piarres Lafittek aipatu sarreraren zioena: *Aintzin hortan haren mintzairaz giniona hemen errepikatzen ahal ginuke haren izkiribuzko lanez. Nahi-eta-ez zelaian hazi gizonak traka dorpea du mendiz-mendi atrebitzen denean. Berdin gerta dakioke hizkuntzari: sukalde-ezkarazetan hazia, baditake josi-aire emaiten duen salunetako dirdira lilluragarrien artean. Bainan Etchepare mirikuaren eskuara segurik, burua gora badagoke nun nahi; ez dio frantsesari berari deus zorrik ez soinez, ez soinuz: jaun emaiten du; usaian baino jaunagormenturaz; ez ordean behin ere jaunegi, aberastu-berri ergelaren pare.*

Eusko Olerkiak 1930. Euskaltzaleak. Eusko Olerkiak 1931-II. Euskaltzaleak. Hordago, Donostia, 1985.

Kontrazalak berak ongi dioen bezala "Euzko Olerti egunek garrantzi handia izan zuten gerraurreko literaturan: haien bitartez hasi zen euskal poesia mundu-ordu jartzen gaiez eta batez ere moldez, eta haietan plazaratu ziren, hurrenez hurren, poeta berriak gerra arteraino. Poesiaren Urre-Aroa esan zitzaien garaia hain zuzen". Kontutan izan zuten, dirudienez Aitzol'dar J.-k liburuaren sarreran dioena: "Izkera guzien lurraldeetan sasi eta larrak garbitu dituztenak, soroetan azia lendabizi erain dutenak olerkariak izan dira".

Lehendabiziko liburuari dagokion I Olerti Egunan Estepan Urkiaga "Lauaxeta" gertatu zen garaile, **Maitale kutuna** poemarekin. Baina berarekin batera bere garaiko olerkari baliosoenak ageri dira lehian: Orixe, Lizardi...

Bigarren liburuari dagokionean, Tolosan ospatu zen II Olerti Egunan Jose Mari Agirre "Lizardi" izan zen saritua "Urte-giroak ene begian" poemarekin.

**BERRI
ETA
ALBISTE**

Heinrich Böll, ezetz esaten zekiena

Heinrich Böll, Alemanian eta handik kanpora, kontzientziadun idazlea, edo idazlearen kontzientzia zen, Alemania beraren kontzientzia salataria zen bitartean.

Idazteko moduan ez zenion artifiziositate katramailaturik aurkituko: ez zuen helburu bezala idazlearentzat onerizten. Kontzientziak hitz sotiletan, oso arruntetan, salatzen bait du txarkeria. Dela injustizia, dela hipokrisia, dela legekeria, dela segurtasuna askatasunaren lekuan jartzen dela.

Alemanian Kolonian, 1917ko Abenduaren 21ean jaioa, ohizko ikasketen ondoren, liburuzain ikasten hasi zen. 1939ko gerrateak ordea hautsi zizkion asmo guztiak, sei urtez soldaduskara behartuz. Handik etxeratzean, Germanistika ikasketak burutu zituen.

1949ko urteaz geroztik idatziko ditu ipuinak, nobelak, irrati eta telebista emanaldiak, teatroa.

1972an Nobel Saria eman zioten.

Alemanian, Heinrich Böll, agintarien aldetik ez zen oso maitatua, kontzientziaren zereginaz kezkatu dagoen oro bezala. Hiltzean, denek aitortu zioten miresmena, bizitzan sarri salaketa izan eta neke izan zuena. Baader-Meinhof taldeak Schleier, enpresarien burua, hil zuenean, eta ondorioz Alemaniako Gobernuak benetako ehiza egiazkoa Alemania osoan ire-

ki zuenean ezetz esan zuenetako bat izan zen Heinrich Böll, eta gisa horretan irakur litezke **Katharina Blumen ohore galdua** edo **Halabeharrezko Setiaketa**, lehenean prentsa mota baten jokabidea salatuz, bigarrenean segurtasunaren gainetik askatasuna aldarrikatuz.

Pailazo baten eritziak liburuan elizaren eta gizartearen hipokresia salatuko du, halako jokabide axialari ezetz esanez.

Baina, zer eskain diezaioke Heinrich Böllek euskal idazleari? Batetik, egin diren itzulpenak: **Katharina Blumen ohore galdua** eta **Pailazo baten eritziak**. Bigarren, haren idazteko moduari jarraiki, egin asmo omen den nobela: **Talde argazkia, emakume eta guzti**, datorren urterako idatzia.

Hirugarren, ordea, eta agian nagusien: Dagokigun garaia aztertzeko eta deskribatzeko modua. Gure gaurko historiaren aurrean, zenbait jokabideren aurrean, maxiaketaren ordez, erreflexio sakon eta mingotsa. Agintedunen aurrean, burua tente eta aske edukitzea.

Heinrich Böll hil dela eta, kontzientzia zuen ahots bat isildu da. Gizon bat gutxiago, ezetz esateko.

Pedro Zabaleta

Italo Calvino, una pietra sopra

Ilabete gutxi batzuk besterik ez dira, Italo Calvinok, bere azkeneko liburua Italian argitaratu zuenean esaten zuela beste nobelarik ez zuela gehiago idatzi behar, haren nobelak bukatu zirela. Esaten zuenez, nobelak emana zuen emateko zeukan gutzia, bere adierazmen guztia ahitua eta agortua zuen, beste adierazmoduren bat asmatu beharra zeukan irakurleekiko komunikazioan jarraitu nahi bazuen. Eta horra non Herriok azpimarratu dituen haren hitzak, irailaren 19ko goizean.

1923an jaio zen, Cuban, Italo Calvino, baina txiki txikitandik Italian bizi izan zen, San Remon lehendabizi, eta gero Milan eta Turinen. Elelderretako ikasketak egin zituen, eta Joseph Conrad-i buruzko tesis batez amaitu. Laster, ordea, II gerra mundialak partisano bihurtzera eraman zuen, PCIko beste burkide asko bezala, Ligurian Garibaldi Brigadako partaide izanez. 1959an Italiako Alderdi Komunistatik alde egin zuen, hiru urte lehenago Hungarian gertatuaren ondorioz.

Bere partisano esperientzian oinarriturik idatzi zuen lehenengo nobela. **Il sentiere dei nidi di ragno**, 1946an Cesare Pavese-ren babesean argitaratua.

Ultimo viene il corvo (1949) liburuan fabulazio eta irudimen ahalmena areago nabarmentzen da. Geroztik ospea emanago zioten hiru nobelen trilogia argitaratuko zuen, **I nostri an-**

tenati: **Il visconte dimezzato** (1952), **Il barone rampante** (1957), **Il cavaliere inesistente** (1959). Bere idazkietan era batera edo bestera beti ageri den gizarte gaia zuzenago aipatuz baditu zenbait nobela: **La giornata di uno scrutatore** (1963), etab., baina geroztik gai abstraktoetara bihurtu zen berriro: **Marcovaldo** (1963) eta batez ere **Cosmicomiche** eta ondorengoak.

1980an **Una pietra sopra**, gizarte eta literaturazko saio liburua argitaratu zuen, gaztelaniara **Punto y aparte** (Bruguera, Barcelona, 1983) izenburuarekin itzulia, gaurko Italiako eta are Europako literatura ulertzeko hainbat giltzarri ematen dituena.

Itzultzaileoi dagokigunez, eta literatur-itzultzaileoi dagokigunez batez ere, **Una pietra sopra**-n literaturaren ulermenerako ematen dituen klabez gain, ereduzko jokabidea izan da, askotan ikusten ez dena, Italo Calvinoren beraren eta bere hainbat obra gaztelerara itzuli dizkion Ether Benítezen artean izan zuten konponbidea, **Quaderns de Traducció i Interpretació 3**-n azken honek argitaratu zituen gutunetatik ikusten den bezala, itzulpen horiek elkarlan estuan eginak bait dira.

Italo Calvinoren obrarik ez da euskarara itzuli, behin Euskadi Irratiko saio batean irakurri zen **Il barone rampante**-ko zatitxo bat besterik, argitaratu edo publikora iritsi arazi denik behintzat. Nahiz eta Italo Calvinoren fabulak, beren gaurkotarun, literatur eduki eta laburtasunagatik, edozein itzultzaile-arentatzeko tentagarriak diren, eta are argitaletxeentzat argitaragarriak ere.

J.M. Zabaleta

Donostiako udako IV. ikastaroak

Aurtengo Donostiako udako ikastaldietan eta linguistikaren sailaren barnean bi gai nagusi aztertu dira: **"Euskal testuak eta Hiztegitza"** eta **"Euskal sintaxiaren zenbait arazo"**. bai batari eta bai besteari gure hizkuntzaren egoera eta irtenbideak ikusteko oso baliagarri deritzogu. Ale honetan laburpen moduan lehenengo sailaren berri emango dugu, bigarren gaia beste ale batetarako utzirik.

Hiztegitzaren inguruan azken lanen berri izan dugu I. Sarasolaren hitzaldian, **Hiztegitza eta informatika**; bertan informatikari esker unibertsitatean egiten ari diren lanak eta bere hiztegirako erabili dituen materialak nola jaso, sailkatu, eta aztertzen dituzten adierazi digu.

Sarasolaren ustez historian zehar behar bezala landugabeko material ugari du euskarak eta horrekin topo egiten du hizkuntzalariak edozein lan egitera dihoanean. Arazo honetan informatikak izugarri lagunduko dio korpusak aztertzen eta ordenatzen, eta ondorioz askotan frogatzat eman diren intuizio eta azterketatxo pertsonalak alboratuz, hitzaren historia ziurra izango dugu.

Lan horretan ikusi ahal izan da hitzak agertu eta desagertu ibili direla testuetan barrena, maixu zenbaiten eragina handia izan dela eta erabilerak aldatuz joan direla.

Bertan 1950. urtea arteko idazle nagusien lanak jaso dira (erlijiozko lan eta bestelakoak sartzen saiatu direlarik): testu bakoitzari bere kodea emanez, hitzak zerrenda alfabetikoan azaltzen zaizkigu testuinguruarekin batera. Sistema honen bidez zenbaki soil batzuk (kodeak) aztertuz oso ondorio inportanteak atera daitezke hitzen historiarako.

Korpus zabal honetaz baliatuz, eta Mitxelenak zituen beste fitxa asko erabiliz, Sarasolak argitaratu du hiztegiaren hasierako zatia (*).

Lan sistema honen berri izatea oso interesgarria izan da, baina ordenagailu horietan jaso den informazioa are baliagarriagoa izan daiteke etorkizunean egin litezkeen lanetarako. Sarasolak berak aipatu zuen, korpus berbera erabiliz ari zirela sintaxi eta morfologi-azterketak egiteko saioetan.

Alor honen barnean izan dira beste hitzaldiak, hala nola Ines Pagolarena "**Sabino Aranaren zenbait neologismo**". Hitz berriak sortzeko Aranek erabili zuen sistema bereziaz azterketa zehatza azaldu zaigu. Lana bere osotasuncan jasotzeko aukera izango dugu hurrengo ale batean.

Joseba Lakarra: "**Bizkaiera zaharraren inguruan**" hitzaldian bizkaiera beti euskalki berezi eta ezberdin bezala azaltzeko ohitura gairitu nahiean, euskalki isoglosak bere lekuan jartzen ahalegindu da, horretarako testu zaharretan oinarrituz. Topiko ugari desegin daitezke, aditzaren sistemarena bera, testuak sakonki aztertuz eta aurreiritzirik izan gabe.

E. Knörr, "**Harrieten hiztegiak**" aritu zaigu. Euskal hiztegiarik onenentzat aipatu da sarri ikastaldi honetan. Lana 1855-erako hasia omen zen eta argitaratu gabe geratu, zergatik ez dakigula. Gaurko hiztegi gintzan egiten ari diren lanen antzera antolatua; eskuizkribuz iritsi delarik eta noski bilduma lana eskuz eta makinarik gabe egina.

Koldo Mitxelenak "**Hitzak eta lanak**" hitzaldian hitzak bere historia duela eta historiak bere hitzak, izan du oinarritzeko ideia.

Islandian XVII. mendeko liburu batean aurkitutako esaldiak erdi euskaraz erdi beste hizkuntzetan (islandiakoan, ingelesez, eta maiz gaztelaniaz) agertzeak garai hartako arrantzealen artean halako "pidgin" modukoa erabili zela frogatzen

(*) Sarasola, Ibon. *Hauta-lanerako euskal hiztegia*.

du, euskalkien gainetik, euskaldunek eta bertakoek elkar ulertzeko erabilia izan zena.

Bestalde, arrantzaleen hizkuntza berauen erabileran aztertu beharko da galtzen ez den bitartean bederen, hitzen bizitza egitazkoa eguneroko lanean eta elkar hizketan aurkitzen delako.

Programaz kanpo ere antolatu da mahainguru bat, X. Kintana, L.M. Mujika, I. Sarasola eta M. Zalbide partaide izanik. Norberak bere lanaz hitz egin ondoren –garrantzizkoak denak bakoitza bere garaian; gaurkoa batez ere tradizioa eta joerak ezagutzeko bidean dagoela dirudi– ideia nagusi zenbait azpimarratu dira:

- *Erizpideak finkatzeko premia*; alegia, muturreko adibideetan eta bitxikerietan ia denak bat etorri arren, tartean zulo handi samarra geratzen dela erabaki gabe hitzen erabileraz eta formaz.
- *Euskararen mugak direla eta bere barruko baliapideak erabiltzearen aldeko jarrera*, batez ere hiztegitza teknikitik kanpo, bapateko eta eguneroko hizkeran erraztasuna, naturaltasuna, hitzen erabilera egokia... oso premiazko bezala aipatu dira.

Honen inguruan "aurrizkien erabileraz" eztabaida sortu da, alegia, euskarak betidanik izan dituen bideak ezin direla bapatean aldatu gaztelania eta hizkuntza erromantikoen bideari jarraitzeagatik, zehazkiago aditzen sorreran.

Dena dela, euskarak baduela beste oztopoa denek baieztatu zuten, adjetibo gutxi izatea eta hauek sortzeko bide itxi samarra edo egotea.

Bukatzeko, eta hiztegitza eta psikologia lotuz, euskaldunak "konplejo" moduko zerbait baduela aipatu da, gehiegi larritzen delako gaztelaniazko hitzaren ordezkorik ez badu aurkitzen.

Ondorioz, hiztegitzak azterketa sisteman norabidea aldatu duela dirudi: lan premiazkoak martxan ikusi ditugu hiztaldi guztietan; hala ere espero dugu unibertsiteatearen hesia gainditu eta lehenbailehen zabalkunde izango dutela, hitz altxorra ongi ezagutzeko premia maila askotan ikusten bait da.

Aintzane Ibarzabal

HARPIDETZA TXARTELA

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena

Kalea Herria

Urteko ordainketa (2.100 Pta.) nire Banku edo Aurrezki
Kutxako kontuaren bidez egingo dut :

Banku edo Aurrezki Kutxa

Kontuaren zenbakia

Sukurtsala

Kontuaren jabea

Entitate horretako nire Kontuan zorpetu itzazue nire izenean
doazkizuen erreziboak.

Sinadura

Helbidea

EUSKALDUNON HIZKUNTZA EUSKARA

EUSKALDUNON PRENTSA EUSKARAZKO PRENTSA

ARGIA

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN DEITURAK

Helbidea

Herria Probintzia

Banku edo Aurrezki Kutxa

Sukurtsala

Zenbakia

SINADURA

ARGIA astekaria
Ramonenea etxea, behea.
Virgen del Carmen, z/g
Donostia (12)
T. 28 33 99

2

Gaiak:

Itzulpena eta hizkuntz normalkuntza / Terminologi zentru eta bankuak / Transformazio lexikoak itzulpenetan / Itzulpen kritikaz / Itzulpena eta testuen interpretazioa / Itzulpen prozesuaren sakonketa linguistikoa / Badakit aita etorri deLA/NA / Mantxako herri batean / Orixeren itsu-mutila / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea. / Bibliografia: UZEI. Zuzenbidea. Hiztegia. 1 eta 2 / RUSSEL, P. Traducciones y traductores en la península ibérica (1440-1550) / ASKOREN ARTEAN. La traducción: arte y técnica / ETXEPARE, J. Buruxkak / Eusko Olerkiak 1930 eta 1931 / Heinrich Böll, ezetz esaten zekiena / Italo Calvino, una pietra sopra / Donostiako udako IV. ikastaroak.